

XVI. JAGON Jardunaldiak: Arabatik Arabara euskaraz

Gasteiz, 2011-XI-11

Euskera. 2011, 56, 3. Bilbo
ISSN 0210-1564



Sarrera

INIGO, Andres
Euskaltzaindiko Jagon Sailburua

Euskera. 2011, 56, 3. 519-522. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskaltzaindiari, bertzeak bertze, hizkuntza lantzea eta arautzea dagokio, euskararen erabilera indartuz eta hedatuz joan dadin. Inguruabar horretan, euskararen erabilera sustatzea eta indartzea da Jagon Sailaren helburuetako bat, bereziki, Jagon sailak barnebiltzen duen Sustapen batzordearena.

Horiek horrela, Sustapen batzordeak euskararen erabileraren nondik norakoa aztertzeko, urtero Jagon jardunaldia egiten du. 2011. urtekoa XVI.a izan zen, eta *Arabatik Arabara, euskaraz* goiburupean garatu zen, Gasteizen, Artiumen.

Aitzineko jardunaldiek ardatz gisa gai edo arlo zehatz bat hartu badute ere –*Gazteak, aisialdia eta euskara; Euskara, kontsumoa eta hizkuntza eskubi-deak; Euskararen legeak 25 urte Euskal Autonomia Erkidegoan*, errate baterako–, 2011. urtekoa lurralde bateko errealitatea aztertzeko baliatu da. Izan ere, Araban euskarak suspertze handia izan du, azken 40 urte hauetan, euskararen jakiteari, erabilerari eta presentzia areagotzeari dagokionez.

Arabako Foru Aldundiaren laguntzarekin, lurralde berean lanean ari diren elkarte eta erakundeekin lankidetzan antolatu zuen Euskaltzaindiak 2011. urteko jardunaldia. Egitarauari dagokionez bi zati izan zituen; goizean, Arabaren izaera euskalduna. Euskararen jakiteak eta erabilerak izan duen bilakaera. Euskara indarberitzeko elkarte eta erakundeek egindako lana, eta euskararen inguruan askotako indarrak biltzeko garatu beharreko diskurtso berria izan ziren, bertzeak bertze, hizpide; arratsaldean, berriz, Arabako herri-agintean ordezkaritza duten alderdiek euskararen sustapenerako planei buruz jardun zuten mahai-inguru batean. Era berean, Araban kokatu eta garatutako zenbait egitasmo ere aurkeztu ziren, era laburragoan –Mintzalaguna egitasmoa. Koadrilan bertsotan. Arabako euskarazko hedabideen oraina eta gerorako perspektibak. Euskararen erabilera areagotzeko planak aisialdian. Merkataritzan eta ostalaritzan euskara sustatzeko planak–. XVI. Jagon jardunaldiari egunak emandakoa laburbiltzen zuen ondorioen irakurketarekin eta Henrike Knörr euskaltzain zenari egindako omenaldiarekin amaitu zen.

Bihozkie guztiei, egitaraua ontzen lagundu zutenei, parte hartu zutenei zein txostenak-eta aurkeztu zituztenei esker oneko hitzak, Euskaltzaindiaren izenean, sarrera labur honetan.

Hona, bada, Euskaltzaindiaren *Euskera* barne-agerkariaren ikerketa-zenbaki honetan jasotako txostenen jatorria. Izan ere, XVI. Jagon jardunaldiko goizeko saioan aurkeztutako txostenak eta ondorioak dira ale honetan argitara ematen direnak, gogoetarako eta aitzina begira zenbait ildo eskainiko duten itxaropenarekin. Gainerako aurkezpenak, bai eta XVI. Jagon jardunaldietan jasotakoa ere, Euskaltzaindiaren webgunean aurki ditzake irakurleak.



Izena, izana

Nombre e identidad

Nom e identité

Name and identity

RUIZ URRESTARAZU, Manu
Euskaltzaindiaren Arabako ordezkaria

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 523-538. Bilbo
ISSN 0210-1564

Mendeetan zehar, euskarak Araban izenetan iraun du; leku eta landare izenetan batez ere, Euskal izen horien bitartez, Araba euskalduna izan dela agerian dugu. Horra hor Gasteiz hiria: XII. mendean Antso VI.ak Gasteizi Victoria izena ematen dionean, bertakoek Bitoria ahoskatzen dute euskaldunak zirelako. Araba osoa ere euskal izenen sorta ederraren jabea da eta izen horietan euskararen hitzen bilakaera ikus dezakegu.

Hitz-gakoak: Arabako izenak, historia; toponimia, fitonimia, hizkuntzen harremanak, euskararen iraupena.

Durante siglos, en Álava, el euskera ha perdurado en los nombres; sobre todo en los nombres de la flora y los topónimos. A través de estos nombres vascos queda constancia de que Álava ha sido euskaldun. Como ejemplo la ciudad de Gasteiz: cuando en el siglo XII Sancho VI da a Gasteiz el nombre de Victoria, los lugareños lo pronunciarán Bitoria, debido a que son euskaldunes. Toda Álava es dueña de un gran patrimonio de nombres euskaldunes y es mediante esos nombres que queda reflejada la progresión de los nombres vascos.

Palabras clave: nombres de Álava, historia, toponimia, fitonimia; relaciones entre lenguas, perduración del euskera.

En Alava la langue basque a survécu dans les noms pendant des siècles, surtout dans les domaines de la flore et de la toponymie. Ces noms basques ont fait que l'Alava est resté basque. Prenons pour exemple la ville de Gasteiz : lorsqu'au XIIème siècle Sanche VI donna à Gasteiz le nom de Victoria, les habitants du lieu étant basques le prononcèrent Bitoria. La province d'Alava possède un riche patrimoine de noms basques et c'est grâce à ces noms que l'on peut observer la progression des noms basques.

Mots-clés : noms d'Alava, histoire, toponymie, phytonymie, relations entre langues, survie de la langue basque

In Araba (Álava) down the centuries Basque has survived in names; in the names of places and flora, in particular. These Basque names confirm that Araba has been Basque. The city of Gasteiz is an example of this: in the 12th century King Sancho VI gave Gasteiz the name Victoria, which the local people pronounced Bitoria, because they were Basque speakers. The whole of Araba is also the owner of a beautiful collection of Basque names which bear witness to the evolution of Basque words.

Keywords: Araba names, history, toponymy, phytonymy, relations between languages, conservation of Basque.

«*Haec est Victoria quae vincit*». Garaipenaz garaipen, honela dio Gasteiz hiriko armarrak. Egia esan, Victoria honek ez zuen luzaro iraun. XII. mendean gaude, 1181ean, Nafarroako errege jakintsua den Antso VI.ak Gasteiz deitzen zen herriari hiri gutuna ematen dio eta honekin batera nafar erregeak hiri berri hori Nafarroako erresumaren gotorleku sendo bihurtu nahi du eta sendotasun horren aurrekari gisa Victoria izen baikorrarekin bataiatzen du Lautada mendaldeko honetan hegi estrategikoan kokatzen zen Gasteiz herri zaharra.

Victoria horrek ez zuen bide luzerik egingo. Ez bakarrik Historiari bagagozkio, hemeretzi urteren buruan arestian bataiatutako hiri berria Gaztelako Alfontso VIII.ak bereganatzen duelako, baina baita ere, eta erresumak erresuma, Victoria izen ozen hori bataiatze garaitik bertatik hemengo euskaldunen ahotan soinu aldutzen delako, itxura gotor hura, Victoria, guztiz arinduz, Bitoria eginez.

Dakigunez, euskaldunek atzo arte, beste hizkuntzetan trebezia lortu arte bederen, horrelako *-ct-* latin soinu horiek *-t-* egiten zituzten eta Victoria hanpatsu hura Bitoria xaloe emango ziguten betiko. Euskalduna zen Bitoria hori herritarren ahoskeratik eskribauen idazkietara pasatuko zen gero, usadio arruntaren poderioz.

Horrela, Erdi Aroan bertan, Gaztelako errege zen Johan II.ak XV. mendean, 1431n, Bitoriako hiriari ziutate titulua ematen dion dokumentuan hiriaren izena Vitoria forman agertzen da, *-c-* gabe baina *-v-*z, sorreraren etimologiari so eginez, ahoskera *-b-*rekin egingo bazen ere. Harrezkero gaurdaino mantendu zaigu idazkera hibrido hori, euskarazko ahoskera onartuz, grafian *V-* mantendu arren (orduko beste dokumentutan *B-*z ere agertzen da Bitoria; dakigunez, hemengo euskaldun eta gaztelaniadunei hitz bat *V-*z edo *B-*z hastea ahoskatzeko orduan berdina zaie).

Araba ere, neurri handi batean, Gasteizko ispiluan ikus genezake. Gasteizi zein Arabari euskara pol-pol zerien aspaldidanik. Orduko jario oparo hura, erromantzeen zabalkundearekin batera, pil-pil umil batetan bilakatu zen, mendez mendeko mintzo lehorte luzearen ondorioz.

Baina pil-pilean arituz ere, euskararen ura ez zen Araban pausatu, gelditu, ez zen agortzera iritsi. Guganaino mantenduko zen Araban euskara, zokoratutako euskaldun multzo batzuei esker.

Arabako hego-ekialdean eta hego-mendebaldean erromantzeen sorrera -sarrera gertatzen da eta sortutako erromantze berri horiek latinaren erreleboa hartzen dute. Administrazioak, Nafarroan zein Gaztelan, hizkuntzaren soroa erromantzeen ildotik goldatuko du eta euskararen muga, pausoz pauso eta mendez mendez, estutzen joango da.

Baina, zorionez, euskara hemen ez zen airean desegin; lurrean finkatu zen, toki-izenetan, dokumentuen erreferentzia askotan eta lurraldean bizi ziren pertsonen esaldi zenbaitetan. Hor- hemen jauzika agertzen da euskara edonon.

Hizkuntza baten aztarna adierazgarria toponimian aurkitzen dugu sarritan eta Arabako eremu nagusiaren testigantza toponimikoak euskararen presentzia zaharrarenaz hitz egiten digu.

Landareak, beren aldetik, gizartearekiko aitzindari eta garaikide izaten dira, giza bizitzarako behar-beharrezkoak. Landarerek gabe gizakirik ez. Horregatik fitonimia edo landare izenak kultura baten ondorioak dira.

Euskararen presentziaren lekukotasunaz hitz egiterakoan toponimia eta fitonimia argigarri suertatzen dira maiz. Adibide esanguratsua ematearren, Euskaltzaindiak 1989an argitaratutako Gerardo López de Guereñu Galarragaren *Toponimia Alavesa, seguido de Mortuorios o Despoblados y Pueblos Alaveses* obra handian agertzen diren herrien izenen artean, landaredi baten euskal izena daramatenak emango genituzke orain, lehenengo aipamenaren antzinakotasunetik sailkatuz:

- Lixarzo (864)
- Bagoeta (925)
- Artazaha (Foronda) (1025)
- Artazaha (Lacozmonte) (1025)
- Ascarzaha (1025)
- Bahaeltu (1025)
- Elhorriaga (1025)
- Elorzahea (1025)
- Elhossu (1025)
- Hameçaha (Asparrena) (1025)

Hameçaha (Zuia) (1025)
 Harizavalleta (1025)
 Hillardui (1025)
 Hillarrazaha (1025)
 Lucu (1025)
 Ocariz (1025)
 Otazaha (Foronda) (1025)
 Otazu (1025)
 Zuazu (Donemiliaga) (1025)
 Zuhazola (1025)
 Zuhazu (Ganboa) (1025)
 Zuhazu (Gasteiz) (1025)
 Gorostiza (1067)
 Ozeta (1071)
 Iraza (1085)
 Arispaldizaca (1095)
 Aguinaga (1114)
 Urrecha (1138)
 Basabe (1175)
 Madaria (1199)
 Arechaga (1257)
 Çuaçu (Kuartango) (1257)
 Çumelçu (1257)
 Esquibi (1257)
 Oyardo (1257)
 Sarria (1257)
 Uñçaa (1257)

Herri horiek denek euskal izena daramate eta Araba osoan zehar barreiatzen dira.

Erdarazko landare izena zeramatenak ere baziren Araban, batez ere Gaztela izango zen aldera kokatzen zirenak; hala nola:

Pinedo (805)
 Salceto (873)

Alcedo (975)
 Frasceneta (1025)
 Bernedo (1257) edo Verrnedo (1292)
 Fayoeta (1257)

Aurreneko lau horiek Gaubea eta Lantaron eskualdeetan daude, mende-baldean. Bernedok, aldiz, nafar erromantzeko kutsua darama, Altzu, Al-tzaia edo Altzeta izango zen euskaraz eta Ega ibaiaren ondoko hiri hori Bernedo izenarekin bataiatzen dutenean Nafarroako erresumakoa zen oraindik. Fayoetaren kasua, Urizaharraren ondoan, gure gaurko Pagoetarena alegia, hizkuntzaren aldetik zalantzakoa da; hor ikusten dugun «fayo» izen hori latinezko *Fagus*-tik dator noski, euskarazko *fago*, *bago* eta *pag* bezala, baina Araban arruntean aurkitzen dugun euskal toponimiaren erara *bago* edo *pag* emango zuen, Mendialde horretan *bago* seguru asko, hor daukagu oraindik, inguruan gertu, Bagatza izeneko mendi amankomuna; «fayo»-k erromantzea dirudi («fayo» Asturietan, «faye» Frantzian, «faig» Katalunian).

Pentsa genezakeenez, erromantzeko mintzairak mende dezente izan ziren Araban euskarari guardia egiten, ezker-eskuin, euskarari gerria estutzeko zorian. Hala ere, euskararen mehetzea Araban astiro joan zen eta Arabako iparraldean eta baita Lautada eta Mendialde eskualdeetan ere mende askotan zehar lirain eta giharrez mantenduko zen euskara, gaztelania nagusitu arte. Bilakaera hori hor dago Historian; XX. mendera arte heltzen da prozesu hori, euskararen aldeko ahaleginak gorpuzten eta ofizialtzen diren arte.

Hala ere, toponimo asko eta fitonimo nahiko guganaino mantendu dira, lekuei itsatsita edo hiztunen hitz jarioan.

Landare izen batzuk luzaro gorde dira euskaraz Arabako eskualdeetan: horien artetik *hagin*, *ametz*, *zume* edo *zumaka* eta *ote* edo *otaka* adibidetzat hartuko ditugu, azken mendeetan erdaldundutako eremuetan euskal testigu iraunkor zaizkigulako.

Hagina lehen. Gure arbolen artean hagina dugu bizi luzeenetarikoak, Errioxako olibondoarekin batera. Aiaratik hasi, hor daukagu Aginaga he-

rria, eta Ega inguruko mendietaraino zabaltzen dena, *hagin* izena *hagin* arbola bezain bizi mantentzen delarik.

Ametza gero. Haritzaren bikario hau, ametza, Gorbeia inguruan, Elgea-Urkilako maldetan, Izkin eta Gaubeako Artzenan zabalduta dago, lur hareatsu higatueta bereziki. Artzenako ameztiak kentzen baditugu (han ametzari «roble» deitzen diote-eta) beste toki guztietan ametz izena ezagutzen dute, ahoskatze diferenteekin noski. Mendialdeko inguruan ametz izena itxuraldatu dute zerbait eta XX. mendean jadanik «almez» esaten zioten arbola honi, beharbada «el ame(t)z»-etik hartuta. Zuia eta inguru horretan ametzaz gain (Ametzaga herria eta Ametzola mendia hor daude), mendebaldeko *tokor* hitza erabiltzen da gaur ametz arbolari deitzeko, *tokorno* aldaerapean, agian eta euskararen eremuan bageunde *-no* atzizkiak tokor izenari txiki, heldu gabe edo antzeko zerbait gehitzen diolarik.

Ibarrondo eta lur hezeetan *Salix* generoa arrunta da. *Salix* izenetik datoz euskarazko *sahats* hitza eta horren aldaerak eta baita erdarazko «salce» eta gero «sauce» izenak ere. Euskal Herriko mendebaldean «Salcedo» izena eta deitura aspalditik daude barneratuta. Euskarazko toponimian Saratsu eta Sagatseta (1025ean Sagassaheta) herriak daude Trebiñun eta Saratxo Amurrio ondoan eta Saratsaga, Saratxaga, Sarasketa, Sarastuia barreatuta daude istinga inguru askotan. Sahatsaren sinonimoak *zuma* eta *mihimen* dira eta biak agertzen dira Araban, Aiaratik Kanpezuraino: Mimentza, Mimentzaga, Mimenduia, Mimintza, Miminduia, Mimitzaeta. Agian sahatsei deitzeko *zume* edo *zuma* izenetan sortutako toponimoak izango dira Araban gehien agertzen direnak eta erdarazko solasetan ere noizbehinka entzuten ditugunak: «las zumas». Zumaka, zumaren aldaera, Gasteizen bertan geldituko zen Zumakera toki-izen mistoan.

Ote eta otaka. Otorala deitura poetikoa Arabako deituren artean erakarrienerarikoa da, itxurosoa. Pagadipeko Araban edonon agertzen eta ikusten da otaka. Otaka izenarekin ezagutzen da *Ulex spp.* landare multzoa Araban, erdaraz hitz egiterakoan ere. Hain sartuta dago izen hori, ze orain urte batzuk Barrongo herriko batek hango mendietan nonahi agertzen den *Genista hispanica* L. landarea nolakoa zen azaltzeko hauxe esan zuen: «es como una otaquilla». Barrongo hiztun harentzat otaka hitza eta izaera ta-

maina horretako landareen artean erreferentzia nagusia zen, euskara Lacozone inguru hartan aspaldi galduta edo galdukotzat izan arren.

Belaunez belaun, euskal toponimiak jantzi polit eta iraunkorrez bezitu zituen Arabako lurralde zabala eta haren haran menditsu asko. Hori ikusteko adibide batzuk azalduko ditugu orain.

Mendialdea hartuko dugu lekuko. Goiko lur horrek, Gasteizko Mendietako tontorrek eta Iturrieta-Entziako pagadiak iparraldetik eta Toloñoko harkaitzen sistemak hegoaldetik bildutako eskualde horrek ordoki, haran eta ibar ederrak gordetzen ditu eta haien erliebean euskal toki-izen argigariak azken mendeetako izkribuetan eta baita gaurko herritarren deskribapenetan ere aurkitzen ditugu, batzuetan euskal izen horiek zerbait aldatuta bizi arren.

Lagrango lurretako iparraldean eta Trebiñu konterriko mugan, Lañu, Basauri eta Obekuriko herri trebiñuarrekin batera Lagrango hiriak osatzen dituen lau mendi komunitateak daude, Erdi Arotik hona heldu zaizkigunak, lauak Arabako lurraldean, Lagran izanik komunitate horien burua, aipatutako lau herriren artean hiri bakarra Lagran da-eta. Villaverde herri arabarra ere mendi komunitate horien kidea da, Lagran hiriko barrutian aurkitzen delako. Lau mendi komunitateak hauek dira: Jaunden (Lañurekin), Artekozila (Basaurirekin), Intuzpea-Ameztuia (Basaurirekin) eta Erramutza (Basauri eta Obekurirekin).

Mendi amankomun horiek beren osotasunean mantentzeko mendien mugak bisitatzen ziren aldiz aldi. Mugak egoki deskribatzeko izen adierazgarriez bataiatzen ziren usu, segituan ikusiko dugunez.

Adibidez adibide, 1760an (ekainaren 14an) Jaundengo mugetako bisitatik ateratzen ditugunak: Vagacederra (Bagatzederra), Bujeta, la cubalza (Lakubaltza), la cogurria (Lakugorria), la coluna (Lakuiluna), Christaran, Goicogana eta Goycogana (Goikogana). Lañu herria Lañu eta Laño formetan agertzen da XVIII.eko dokumentu horretan. Dagoeneko ikusten dugu eskribauaren edo herritarren euskararekiko zalantzak hasten direla.

XVII. mendean euskarazko izenak errotuagoak agertzen ziren. 1647ko ekainaren 30ean eta uztailaren 1ean Artekozilako mugetara egindako ikus-

ketatik hartzen ditugun izenak: Artia (Artea), Zornosteguietalaqua eta laguna de Zornosteyeta (Zornoztegieta lakua), Biolanda, fuente de Guipuzturri (Giputziturri), Lañusabela (1725erako la anisabela idatziko dute eta gaur Lanisabela diote), lacucusolo (Lakukosolo), Bialdapeta (orain Valdiápeta esaten dute), Lezeta (gaur Lécetas), Zapatarana, Acharvina (Atxarvina), Azpiligorta.

Intuzpea-Ameztuia zeritzan mendian (Intuzpea hori Antuspia bihurtu zuten gero) eta egun berean (1647ko uztailaren 1ean) egindako mugen deskribapenean izen hauek ikus ditzakegu: Martinnarria (Martíñarria), Baxauribidea, menditua, Larrasoleta.

Azkenean eta laugarren mankomunitatean, Erramutza delakoan (Ramuza esaten dute gaur), 1735ean (maiatzaren 31n) muga ikustalditik izen hauek ateratzen ditugu: Rottarana (Errotarana), Abadesolo (1920rako Abadesolo eta Abaisolo, gaur Abaisolo), fuente de Turrizarana (Iturritzarana).

Lehen Artekozila mendian ikusi dugun Bujeta toponimotik aparte, bada-go oraindik Lagrango beste mendi batean Bujumendia leku izena; mendi horretan bertan Goikozabala bat aipatzen da 1671n (gaurko Huecozabala delakoa). Buju hori da Arabako hegoaldean ezelari deitzeko erabiltzen zen izena (horra hor Bujanda). Ekialde eta iparralderago, aldiz, Ezpeleta toki-izena Kanpezuko Durruman, Musitun eta Aramaioko Arexolan aurkitzen dugu.

Lagrandik Izkira igaroko gara orain. Izki inguru honek misterio antzeko zerbait gordetzen du, bere izen laburretik hasita. Mapari begiratzen badiogu, Izki irla bat dirudi, Araba osoan herrietatik, populazioarengandik, irilatue-na, isolatuena, urrunduen. Isolamendu hori dela-eta Izki Naturak nahiko naturala ematen du eta hori izan zen arrazoiren bat Izki Natur Parkea deklaratzeko. Hala ere, gizonak, zentzu orokorrean (gizon eta emakume), Izki goitik behera eta aspalditik zeharkatu du. Handik ibili eta hura erabili egin ditu gizonak, berak zuzen edo beraren ganaduen bitartez. Gizakiek Izki erabili eta ustiatu dute modu askotan eta aspaldian.

Izki aldeko euskaldunek aztarna toponimikoa utzi ziguten hango mendi eta basoetan. Mapan kokatuta, ezkerretik eskuinera, sartaldetik sortaldera,

hiru mendi komunitate topatzen ditugu Izkin: Axkorri, Ezkerran eta Iratzagorria.

Axkorritik hasita eta 1688. urteko mugarritze batean, honako toki-izenak irakurtzen ditugu: Arasolua (Arasolua, Axkorri, Ezkerran eta Trebiñuko Bosturia mendi komunitateak bereizten zituen hirimugakoa), Mitxilarra, Gazteluaran, Sarrussa (Sarrutza?, Zarrutza?), Pradozuia (Pradozuria 1846an).

Ezkerrango mendietan 1569an egindako mugen bisitatik ateratako toki-izenak: Barregibea, Belabea, Iturrigaiztua (Iturrigaiztoa), Larrautia edo Larragurena, Sarruchostea (Sarrutzostea?, Zarrutzostea?), Sarruchia (Sarrutxua?, Zarrutxua?), Padurazuria (lehengo Pradozuia edo Pradozuria noski), Orimendiostea, Belaustegigana, Zorroztarri, Mandazaibidea (gaur Mandazibidia deritzate), Durrutegieta, Berroztegieta, Urgazi, Arrugaça (Arrugatza), Eskibileta, Mendiokelu, Landaluzea, Katamendi, Katamendizorrotz, Usteça (Ustetza), Laquandur (Lakuandur, orain Lakanduz edo Alkanduz esaten diote, lehengo esanahi garbia «laku andur», «laku ziztrin» hura estalduz; beharbada hor *-qu-*ren grafiak lagunduko zuen Lakuandurretik Lakandur lehen eta Lakanduzera gero pasatzeko), Arlarangorri, Mendizorrotz, Aretxandia, Arangatx, Arathegieta eta Arateyeta (Latayeta 1757an, Lataeta gaur), Zubibihurtua, Sagarnabarra, Errekagatxa, Sanctasolua, Sanchogochina (Santxogotxina gaixoak Salsacochina eman du sasi-erdarazko bilakaeran), Kintarabidea.

Azkenean eta Izki mendietako koroa toponimikoa biribiltzeko Iratzagorria mendi komunitatea dago. Egungo egunean lehengo iratza gorri hori oihan eginda, haritz, ametz, pago, urki, haltz eta bestez berez zuhaiztuta. Mendi honetako toponimoak 1757ko mugarriketa batetik hartzen ditugu: Errecacaskan (Errecagasgaña 1707an, berez Errekagatxgaña; Errekagatxa edo Rekatatxa erreka toponimoak bizirik dirau), Galzarra (Galtzarra), Acharabitana (Atxarabitana, gaur Txarabitana), Lezetea, Sagarmingorri, Ipurtica (Ipurtika), Quimisugaña (Kimisugaña), Madurazurieta, Larrineta (gaur Larraneta), Chinquirringaina (Txinkirringaina), Pasadazarra, Ategorria, Solaluzea, Alzandicomadura (Altzandikomadura), Piparduya (Piparduia), Lezaguibel (Lezagibel), Otegui (Otegi), Anzargaray (Antzargarai),

Larrabiribila, Gastanzulo coadana (Gaztanzulokoadana), Urdanterrieta («en el sacón» dagoela diote), Urquiza (Urkitza edo Urkitzaia, Urquizaia bezala agertzen da 1375ean), Ascarza (Azkartza), Llaurta, Astuya (Astuia), Zurrunbarralde, Galbaliturri.

Euskal izenen letania Izkikoa. Izkitik ekialdera igaroz Korresko mendiak diren Artadoia eta Ikalardoia daude. Artadoia garbi dago artez osatutako basoa dela eta hala da. Ikalardoia, berriz, ikalaharrez josita izango ote da?

Izkitik iparraldera Kapildui mendia jaikitzen da. Kapildui kapilez osatutako landareduia izango zen. Eta zer da ba kapil hori? Okarizen, Lautadako ekialdean, badago mendi bat Gabilamendi dena. Kapil(a), gabila. Arabako Lautada eta Mendialdeko hizkeraz, «abillurri» eta baita «abilarri» ere (Kontrastan) deritzate arantza edo elorri zuri landareari (*Crataegus spp.*); «abillurri» edo «abilarri» horiek «ahabi-elorri» konposaketatik ote datoz? Kapil izenera bueltatuz, antzeko edo sinonimo litezkeen gabila, kabila izenak, izen horien erabilpen batzuetan egur multzo edo mota batekin erlazionatuta agertzen zaizkigu. Naturan, elorri edo arantza zuriz osatutako basotxoak (*Crataegus monogyna* zein *Crataegus laevigata*-koak) harizti eta pagadi basoen alternatiba edo laguntzaileak izaten dira. Azken mendeetako espezieen distribuzioan elordiek atzerapen nabarmena izan dute; orain mende batzuk eta ganadua edonondik ibiltzen zenean, elorria nahikoa ondo defendatzen zen bere arantza mingarriak zirela medio; basogintza modernoa sortzen denean, XVIII. eta XIX. mendeetan eta orduetik hona, gizonak baso-basoak nahiago izan ditu, zur eta egurretan ekoizpen handiagokoak direnak, zuhaiznoz betetako basotxoak baino eta elorri asko moztuak izango ziren azken bi mendeetan; horrez gain, baso itxietan, harizti eta pagadietan, azken hauetan batez ere, arbolen itzala lagun txarra da basoko arbola mota nagusia baino tamaina txikiagoa duten espezieen bizitzarako. Baina hala eta guztiz ere, basoa irekitzen zen guneeetan eta larreetan elorriak landare arruntak ziren Kapilduin, baita Gabilamendin ere. Berroztegietak hariztietan Kapilduia toponimoa bi tokitan topatzen dugu eta hor ere elorri zuriak agertzen dira multzoka. Litekeena da ba, nire ustez, gabila, kapil(a) izen hori egurrari lotuta izatea edo espezifikoki elorri zuriari zuzenduta izatea aipatu ditugun Arabako oikonimo hauetan.

Arantza edo elorri zuria (*Crataegus spp.*) hosto polit eta lore ederrekoa da, baina fruitua, gorria eta deigarria izan arren, ez da gozoa gizakiek jateko. Elorri beltzak (*Prunus spinosa* L.), aldiz, lore politaz gain fruitu gozoa ere badakar, aran more-briolet hori, bidondo, landa eta mendietan zehar jendeak gogoz bilatzen duena. Hori dela-eta, elorri izenetik eratorritako toponimoak, gehienak beharbada, elorri zurikoak izango lirakeke, elorri beltzekoek aukeran aran izena eraman lezakeke-eta. Badira, kasu, Arangozo toki-izenak Arriñiz eta Zumeltzun (hau 1740an). Dena dela, Aranduia, Araneta, Arantzeta eta abar elorri zuriko edo beltzeko den zuzen jakiteko tokira joan behar da ea batekoa ala bestekoa den argitzeko. Horrez gain, -h- gabeko grafiapean aran hitza daraman toponimo baten aurrean aurkitzen garenean, haran edo arhan-etik datorren erabakitzeko, dokumentu fidagarriarik ez balego, ingurura begiratu behar dugu arreta handiz. Aran izenak, bere aldetik, Arabako erdaraz bizirik dirau elorri beltzaren fruituari deitzeke: «el arán» singularrean, «los aranes» pluralean.

Berriro Izkira itzuliz, Markina edo Markiniz herriari dagokion Izki basoaren harizti-pagadian badago gaur egun oraindik Magazarra toki-izena, horrela esandakoa. Magazarra Bagazaharra da, bagoaren -b- letra -m- bezala ahoskatuta. Hor, inguru horretan, Euskal Herriko leku askotan bezala, azpil deritzate *Sorbus torminalis* (L.) Crantz arbolari.

Fitonimia euskalduna Kontrastan luzaro gorde da eta hor agertzen zaigu izen bat, agustai, *Sorbus aria* (L.) Crantz-i deitzeke; espezie honetarako izen arrunta euskaraz hostazurikoa da, hostoen beheko aldea zuria duelako; pagoen ondoan bizi da askotan agustai edo hostazuria eta hego haizea dabilenean eta arbolak hostoz direnean, nabari ikusten dira hostazuriak basoan adaburu zuria dela seinale. Kontrastan bada Agustai leku-izena, hango ur-biltokiarena, alegia. Laminorian ere ezaguna omen zen agustai izen hori. Arluzean ustain eta Apinaiz eta Korresen ustai zeritzaten hostazuriari.

Acer generoaren espezie diferenteei deitzeke bi euskal izen bereziak erabiltzen ziren Kontrasta inguru horretan: azkar eta ihar. Azkar *Acer campestre* L.-ri izendatzeko eta ihar *Acer opalus* Miller-i deitzeke. Azkar izena oso zabaldua dago euskal toponimian Euskal Herrian zehar eta baita honen inguru gertuan, antzeko izen erdaldunak erabiltzen zirelarik (Gaztela, Errio-

xa, Aragoi, Biarno). Ihar eta igar izenak ere euskal toponimian gorde dira (horra hor Igartza, Ihartza eta abar), baina izen arrunta gisa ihar izenetik eratorritako astigarra (asto-igar edo asto-ihar) nagusitu da gero, azkarraren pareko, *Acer campestre* L.-ri deitzeko.

Arbolen artean badago bat bere hostoen mugieraz nabari egiten dena: *Populus tremula* L. espeziea, Araban ikara, lertzun eta zuzun edo susun izenekin ezagutzen zena. Espezie honetan hostoa eta hostoa sostengatzen duen txortena bi plano perpendikularretan zabaltzen dira eta hostoa eta txorteenaren arteko lotura ez da egiten lerro batean zehar, beste espezieetan gertatzen den bezala, puntu soil batean edo ia puntu batean baizik. Hori dela-eta, haize goxoa ibili arren lertxunaren hostoak berehala hasten dira dardaratzen, ikaratzten, eta zuzunak mendian urrutitik nabarmentzen dira. Toponimoetara joz, Arabako Mendialdean bagenuen Ikaraduia bat Musitun, 1732an aipatzen zena eta horrez gain eta bizirik oraindik Zuzuluri Erroetan eta Zunzuri Korresen (Artadoia mendian). Iparraldera bagoaz, hor ditugu Lertzundi Legution, Zuzundui Okoiztan (gaur Susundi esaten dutena), beste Susundi bat Zaraten, Susuneta Letonan, Susubieta Landan. Erribera Goitian eta 1763an, Susuntza toki-izena Anuntzetan aipatzen da.

Gure oihan edo basoetan, huntzaz aparte, liana nabarmenena *Clematis vitalba* L. da. Lianek beti basoaren misterioa gehitzen dute; hori dela-eta, Kontrasta aldean *Clematis* horri bildurri deritzate; Orotariko Euskal Hiztegian beldurre hitza Ultzamakotzat ematen da, «madreselva» landareari deitzeko (gauzak horrela, han *Lonicera periclymenum* L. zuhaixka malguari emango liokete izen beldurgarria). *Clematis vitalba* L. lianari deitzeko Arabako Mendialdeko beste herri batzuetan «birigaza» edo «girigaza» derizkiote.

Kanpezu aldean *Erica lusitanica* L. ilarrazkiari deitzeko «giri» hitza erabiltzen dute; Elgea-Urkilan estilarra edo astilarra izango zen. «Giri» horrek lehengo «girigaza, birigaza» harekin antza baduela ematen du, soinuaren aldetik bakarrik, zeren Botanikaren ikuspegitik nahaste-borraste baten aurrean gintzeke antza ahaidetasunean gauzatuko balitz.

Arabako Nerbioi isurialdean, Gaubean eta Kanpezu inguruan, egutere-tan batez ere, *Arbutus unedo* L. zuhaitz txikia usu agertzen da. Mendebaldean «borto» deritzate; Kanpezu aldean, berriz, «burrubiote»; kurioa da

izen hori, hipokoristiko dirudiena. Gernika aldean zuhaitz potolo horri berari gurguxa edo gurguxe izena ematen diote.

Azkenean eta fitonimian zehar egin dugun txango berezi honi amaiera atsegina emateko basoetako lurretan hazten diren fruitu gozoko bi landare xume hartuko ditugu aztergai: fruitu morea duen *Vaccinium myrtillus* L. eta fruitu gorrikoa den *Fragaria vesca* L.. Lehenengoa ahabia da euskaraz eta horrela deritzate Arabako alde euskaldunetan eta «abis» euskarak erdara nahastuz dirauenetan; guztiz marratzekoa da, nire ustez, Gaubean gertatzen dena: mendebaleko eskualde autrigoi horretan «amabias» deitzen diete ahabiei. Holako izen zahar hori oraindik han bizi izatea harrigarria da oso. Marrubi edo mailukiaren kasua ere kontuan hartzekoa da. Mendialdean eta ekialdeko Lautadan marrubia izaten zen landare txipi honen izena; horrela «marrubias» eta «marrubial» toki askotan erabili dira erdarazko solasaldietan esandako eskualde horietan; mendebalderago etorriz, eta oraindik Lautadan bertan, Aberasturin hain zuzen, mailuki hasten zen entzuten; gauza bera Gorbeia inguruan; Laudio alderantz joanez gero mailugi eta mailugin barianteak agertzen ziren. Berriro ere eta Gaubean kausitzen garela, «amayetas» izena gordezten da mailugiei deitzeko; «amayetas» izen horrek euskarazko kutsua duela dirudi, baina beste aldetik Kantabrian eta Asturiasen «mayueta» hitza marrubiari deitzeko erabiltzen da, maiatzekoak direla adierazteko-edo.

Hor dabilta izenak bueltaka, izanei itsatsiz izanak azaltzen.

Ikusten dugunez, euskara Araban bere etxean izan da eta da. Izenetan eta izanetan.

Izena, izana, izango dena.

Bibliografia

ARABAKO MENDI ZERBITZUA, 1980, *Arabako Onura Publikoko Mendi Katalagoa / Catálogo de Montes de Utilidad Pública de Álava*. Vitoria-Gasteiz (argitaratugabea).

ARABAKO MENDI ZERBITZUKO ARTXIBOA, 1647-1920, Lagran hiriko mendi komunitate batzuen mugapen eta ordenantzak: *Artekozila* (1647-1725), *Intuzpea-Amextuia* (1647), *Erramutza* (1735-1920) eta *Jaunden* (1760). Vitoria-Gasteiz.

GONZÁLEZ MÍNGUEZ, C., 1977, « La etapa medieval », *historia de una ciudad. VITORIA I, el núcleo medieval*. Vitoria: bankoa, 23-44

GONZÁLEZ SALAZAR, J. A., 2005, *Montaña Alavesa. Comunidades y pastores*. Vitoria-Gasteiz: AFA / DFA, Colección OHiTURA nº 11.

LÓPEZ DE GUEREÑU GALARRAGA, G., 1989, *Toponimia alavesa, seguido de Mortuorios o despoblados y Pueblos alaveses*. Bilbo: Euskaltzaindia.

———, 1998 (1956), *Voces alavesas*. Bilbo: Euskaltzaindia, 2ª edición.

MARTÍNEZ DE MADINA SALAZAR, E. eta KNÖRR BORRÀS, H., 2009, *Gasteizko Toponimia II. Malizæxa*. Bilbo: Euskaltzaindia.

MITXELENA, K., 1955 (1953), *Apellidos Vascos*. San Sebastián: Biblioteca Vascongada de los Amigos del País, 2ª edición.

MITXELENA, K., SARASOLA, I. ETA BESTE, 1987-2005, *Diccionario General Vasco / Orotariko Euskal Hiztegia*. Bilbao: Euskaltzaindia.

REAL ACADEMIA ESPAÑOLA, 1992, *Diccionario de la Lengua Española*. Madrid: RAE, 21ª edición.

RUIZ URRESTARAZU, M.M., 1973, *Especies Forestales Arbóreas en la Toponimia Vasca*. Madrid, E.T.S. de Ingenieros de Montes (doktore tesia, argitaratu gabea).



Azken 25 urteotako euskararen bilakaera Araban

La evolución del euskera en Álava en los
últimos 25 años

L'évolution de la langue basque au cours des
25 dernières années en Araba

The evolution of Basque in Araba
over the last 25 years

AIZPURUA, Jon

Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 539-556. Bilbo
ISSN 0210-1564

Araba izan da euskararen indarberritzeari dagokionez bizitasun handien erakutsi duen lurraldea. Euskararen ezagutzari, transmisioari eta, zeresanik ez, erabilerari dagokionez, abiapuntua oso apala izan bada ere, Arabako biztanleen euskalduntzea erritmo bizian ari da hazten azken urteotan.

Euskararen ezagutzari dagokionez, azken 25 urteotan Arabak bizi izan duen aldaketa nabarmena izan da. Hala ere, aldaketarik esanguratsuen adinaren arabera gertatu da. Elebidunak gero eta gehiago dira adin-talde guztietan, baina hazkundera gazteen artean gertatu da bereziki. Araban euskara transmititzeko bide nagusia hezkuntza-sistema eta helduen euskalduntzea izan da. Hortaz, gaur egun Arabako elebidun gehienak euskaldun berriak dira. Arabako elebidunek dituzten ezaugarrien artean, azpimarratzekoa da harreman-sarea, bereziki gertukoa, erdalduna dutela eta, oro har, hobeto moldatzen direla erdaraz euskaraz baino. Ezaugarri horiek erabat baldintzatuko dute euskararen erabilera.

Hitz-gakoak: Araba, euskara, erabilera, transmisioa, bilakaera

Álava ha sido el territorio que mayor dinamismo ha mostrado en cuanto a la recuperación de dicha lengua. Aunque es cierto que el nivel de conocimiento, transmisión y, sobre todo, de uso del euskera era muy bajo, la euskaldunización de los habitantes alaveses está creciendo a un gran ritmo en los últimos años.

El conocimiento del euskera presenta un cambio destacable en Álava en los últimos 25 años, siendo éste aún más significativo en determinadas franjas de edad. Pero el crecimiento se ha producido especialmente entre los jóvenes. El sistema educativo y la euskaldunización de adultos son las principales vías de transmisión del euskera; por tanto, en la actualidad la mayoría de los euskaldunes de Álava son euskaldunberri. Entre los rasgos que caracterizan a los euskaldunberri alaveses es reseñable que su entorno, especialmente el más cercano, es erdaldun y que se desenvuelven mejor en castellano que en euskera. Dichas características condicionan de manera determinante el uso del euskera.

Palabras clave: Álava, euskera, uso, transmisión, evolución.

L'Araba est le territoire qui a fait preuve de plus de dynamisme en matière de réappropriation de la langue basque. Il est certain qu'en matière de connaissance, de transmission et d'usage du basque, l'Araba avait une base très fragile, pourtant l'euskaldunisation des habitants d'Araba croît à un rythme très rapide ces dernières années. Au cours des 25 dernières années l'Araba a connu une évolution très significative en matière de connaissance du basque, elle est d'autant plus importante dans certaines tranches d'âge. Les personnes bilingues sont de plus en plus nombreuses dans toutes les tranches d'âge mais l'augmentation se fait surtout sentir chez les plus jeunes. Sur ce territoire le plus important vecteur de trans-

mission du basque est le système éducatif et le réseau d'alphabétisation des adultes. C'est ainsi que la plupart des bascophones d'Araba sont des euskaldunberri (ou nouveaux bascophones). Les principales caractéristiques des bascophones alavais est que leur environnement immédiat est erdaldun (non bascophone) et qu'ils s'expriment mieux en espagnol qu'en basque. Ces caractéristiques vont conditionner de façon très significative l'évolution de l'usage de la langue basque.

Mots-clés : Araba, langue basque, usage, transmission, évolution.


Araba has been the province that has displayed the greatest vitality with respect to the revival of Basque. Even though the starting point has been very modest with respect to the knowledge, transmission and use of Basque, the Basquisition of the inhabitants of Araba has, however, been expanding at a lively pace over the last few years.

With respect to knowledge of Basque, the transformation Araba has undergone over the last 25 years has been considerable. Nevertheless, the most significant change has taken place as far as age is concerned. There are more and more bilingual people across all age groups, but growth has taken place mainly among young people. In Araba the main channel for transmitting Basque has been the education system and the Basquisition of adults. So today most of the bilinguals of Araba learnt Basque as a second language. The most salient feature of Basque bilinguals is the network of relationships, in particular the close one, which is Spanish-speaking and, on the whole, they manage better in Spanish than in Basque. These features determine the use of Basque completely.

Keywords: Araba, Basque, use, transmission, evolution.

Duela bi edo hiru urte, IV. Mapa soziolinguistikoaren irakurketa bukatzen ari ginela, galdera bat sortu zen lan-taldean. Lanean ohituta gaude gu, esparru edo eremu geografiko jakin batean euskararen egoera nolakoa den azaltzen duten kopuruak irakurtzen. Horietako batzuk egiten ditugunean, haien artean erkatu egiten ditugu, eta horrela, bilakaerak nolakoak diren ezagutzeko aukera izaten dugu. Baina, prozesu horretan gertatzen diren aldaketa horiek non dira biziagoak, non apalagoak? Galdera horri erantzuteko, Pablo Sagardoy lankideak bi/hiru oinarriko aldagai hartu, azken urteotan zer nolako bilakaera izan duten aztertu eta emaitza mapa batean irudikatu zuen.

Euskararen bizitasuna. Euskal Herria



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritz.

Emaitza horri euskararen bizitasuna deitu genion (zalantzak izan genituen izendatzeko orduan). Agian, begi aurrean daukazuen mapan irudikatzen de-

nak ez du erabateko berme zientifikorik, eta zalantzak sor daitezke gune jakin batean prozesua agertzen dena baino biziagoa edo apalagoa izaten ari den. Baina nik uste ez gabiltzala oso oker adierazten badugu euskararen eremu osoan, Araba izan dela euskararen indarberritzeari dagokionez bizitasun handien erakutsi duen lurraldea. Euskararen ezagutzari, transmisioari eta, zeresanik ez, erabilerari dagokionez, abiapuntua oso apala izan bada ere, Arabako biztanleen euskalduntzea erritmo bizian ari da hazten azken urteotan. Saio honetan, euskarak Araban zer ibilbide egin duen azaltzen saiatuko gara.

Baina zeregin horretan hasi aurretik, kontuan hartu behar dugu hizkuntzaren egoera eta bilakaera ez direla gertakari isolatuak. Hizkuntza gizartearen berezko zatia da, eta gure irakurketa hankamotz geratuko litzatekeen gizartearen baitan gertatzen ari diren aldaketei eta jokabideei begiratuko ez bagenie. Beraz, lehenik eta behin, gizarte arabarraren oinarrizko deskribapena egingo dugu.

2009ko datuen arabera, Arabak 317.000 biztanle ditu. Horietako %75 hiriburuan bizi dira eta %11 Kantauri arabarrean. Gainontzeko eskualdetan arabarren %14 baino ez da bizi. Hortaz, Arabari buruzko irakurketak egitean, Gasteizek duen pisua erabatekoa da. Duela 30 urte egoera antzekoa zen, baina urteekin Gasteizek pisua irabazi du eta gainontzeko eskualdeek galdu.


Biztanleriaren bilakaera. Araba, 1981 -2009

	1981		2009	
		%		%
ARABA	257.850	%	317.016	%
Arabako Ibarrek	4.267	1,7	5.905	1,9
Arabako Lautada	200.600	77,8	253.511	80
Arabako Mendialdea	3.645	1,4	3.203	1
Errioxa Arabarra	9.559	3,7	11.594	3,7
Gorbeia Inguruak	5.696	2,2	8.556	2,7
Kantauri Arabarra	34.083	13,2	34.247	10,8
Vitoria-Gasteiz	189.533	73,5	237.150	74,8

Iturria: EUSTAT. 2011.

Biztanleriaren adinari begiratzen badiogu, Euskal Herri osoan bezala, aldaketa begien bistakoa izan da azken 30 urteotan. Biztanleria asko zahartu da eta jaiotza-tasak behera egin du nabarmen. Egia da azken 10 urteotan jaiotza-tasak gora egin duela zertxobait eta, horren ondorioz, adin-talde gazteenetan hazkundea izan dela. Hazkunde hori etorkinen seme-alabei esker gertatu da gehienbat, eta ikusi beharko da datozen urteotan, krisiak krisi, eutsi ahal izango zaion. 1981ean, egoera oso bestelakoa zen. Jaiotza-tasaren beherakada nabaritzen hasita bazegoen ere, 30 urtetik beherako arabarrak biztanleria osoaren erdia baino gehiago ziren (%51), eta 65 urtetik gorakoak %12. Gaur egun, 30 urtetik beherako gazteak biztanleria osoaren %30 inguru dira, eta 15 urtetik beherakoak %14. 65 urte baino gehiago dituzten arabarrak, aldiz, %17 dira.

Adin-piramidearen bilakaera. Araba, 1981-2010 (%)



Iturria: EUSTAT. 2011.

Arabako biztanleria jatorriaren arabera aztertuko dugu jarraian. Gaur egun, Araban bertan jaiotakoak %54 dira eta Euskal Herriko gainerako lu-

rraldeetan %12. Halaber, Arabako biztanleen laurdena (%24) Estatuko lurralderen batean jaio da eta %10 atzerrian. Biztanleen jatorriari dagokionez, azken 10 urteotan izan den gertakaririk esanguratsuena atzeritik etorritakoen hazkundera izan da. Izan ere, 2000. urtean, Araban 3.800 atzerritar bizi ziren (%1,3), eta urterik urte kopurua handituz joan da, 2010ean 28.000 (%8,9) izatera iritsi arte.

Atzerritarren bilakaera. Araba, 1981-2010 (%)

Urtea	Araba		
	Biztanleria	Atzerritarrak	
		Kop.	%
1998	284.595	2.460	0,9
1999	285.748	2.801	1
2000	286.497	3.818	1,3
2001	288.793	5.462	1,9
2002	291.860	8.031	2,8
2003	294.360	10.445	3,5
2004	295.905	12.058	4,1
2005	299.957	15.141	5
2006	301.926	16.857	5,6
2007	305.459	19.392	6,3
2008	309.635	22.840	7,4
2009	313.819	26.021	8,3
2010	317.352	28.210	8,9

Iturria: Instituto Nacional de Estadística INE. 2011.

Atzerritarren multzorik handiena (%40) Hego eta Ertamerikatik (%40) etorri da. Afrikatik etorri direnak %28 dira eta Europatik %26. Europatik etorritakoen artean, portugaldarrak (%36) eta errumaniarrak (%22) dira

gehienak. Atzerritar gutxi batzuek euskara ikasi badute ere, gehienek gaztelania ekarri edo ikasi dute. Eskolatu direnen artean, Helduen Hezkuntza Iraunkorrean (EPA) dihardutenak A ereduari ari dira, baita derrigorrezko hezkuntzan ari diren gehienak ere (2005ean, %76).

Atzerritarren bilakaera, nazionalitatearen arabera. Araba, 1998-2007 (%)


Nazionalitate-taldeak	Araba	
	1998	2007
Europarrak	41,6	26,2
Portugaldar	44	35,8
Frantziar	8,8	5,3
UEko gainontzekoak (15)	35,7	16,5
Errumanar	0,9	21,7
Besterik	10,4	20,7
Afrikarrak	24,8	27,6
Hego-Erdialdeko amerikarrak	24,5	39,9
Besterik	9,1	6,3
Guztira	2.460	19.392

Iturria: EUSTAT. 2011.

Orain arte Arabako gizartearen deskribapen xumea. Hemendik aurrera hizkuntza-aldagaiak jorratuko ditugu.

Zenbat elebidun dago Araban? Eta nolakoak dira elebidun horiek? 2006ko Erroldaren arabera, Araban 72.000 elebidun bizi dira, biztanleriaren laurdena. Horietatik, 53.349 (%74) Gasteizen bizi dira. Araba lurralde erdalduna izaten jarraitzen du. Eskualde gehienak 1. gune soziolinguistikoan daude. Gorbeia Inguruak (%40) eta Kantauri Arabarra (%27) baino ez daude Arabako ehunekoaren batez bestekoaren gainetik. Salbuespena, noski, Aramaio da. Aramaioko elebidunen ehunekoa %80tik gorakoa da, baina lurraldearekiko duen pisua oso txikia da (Arabako biztanle guztiekiko %0,5 eta elebidun guztiekiko %2).

Hizkuntza-gaitasuna. Araba, 1981-2006 (%)




Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Euskararen ezagutzari dagokionez, azken 25 urteotan Arabak bizi izan duen aldaketa nabarmena izan da. Kontuan izan behar dugu 1981ean Araban 9.600 elebidun bizi zirela (biztanleriaren %4). Arabako Lautadan, Ibarretan, Mendialdean eta Errioxan elebidunak ez ziren %1era iristen, eta Gasteizen %3 pasatxo ziren. Sasoi hartan, gaur egun bezala, Gorbeia Inguruak eta Kantauri arabarra ziren eskualderik euskaldunenak, baina horietan ere ehunekoa dezente txikiagoa zen (%28 eta %4, hurrenez hurren).

Hala ere, aldaketarik esanguratsuena adinaren arabera gertatu da. Izan ere, 1981ean elebidunen ehunekoa %6 baino txikiagoa zen adin-talde guztietan. 25 urte beranduago egoera oso bestelakoa da. Elebidunak gero eta gehiago dira adin-talde guztietan, baina hazkundera gazteen artean gertatu da bereziki.


Hizkuntza-gaitasuna adinaren arabera. Araba, 1981-2006 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Nondik atera dira, bada, elebidun horiek guztiak? Galderari erantzuteko ikus dezagun jarraian belanez belan nola transmititu den euskara. Bide nagusiak bi dira: sinple esanda, familia eta eskola edo euskaltegia. Arabarren lehen hizkuntzari begiratzen badiogu, %4k euskara izan du eta %2k euskara eta erdara. Hortaz, arabar gehienek (%94) gaztelania jaso dute gurasoengandik.


Lehen hizkuntza. Araba, 1986-2006 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzak.

Lehen hizkuntza denboran zehar oso gutxi aldatzen den aldagaia da, eta bizitza osorako da gainera. Hortaz, normala denez, Araban euskara transmititzeko bide nagusia ez da familia izan azken 25 urteotan, hezkuntza-sistema eta helduen euskalduntzea baizik.


Lehen hizkuntza. Araba, 1986-2006 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzia.

2009/10 ikasturtean, unibertsitatez kanpoko irakaskuntzak 55.300 ikasle zituen Araban. Horietako %35 D erduan aritu dira eta beste horrenbeste A erduan. D erdua nagusi da Arabako mendialdean, Arabako Errioxan, Gorbeia aldean eta Kantauri arabarrean. Arabako ibarretan, aldiz, B erdua da nagusi eta Arabako lautadan eta Gasteizen bertan A erdua.

Irakaskuntza ez unibertsitaria, ereduaren arabera.
ARABA, 1983-84/2009-2010 (%)



Iturria: EUSTAT. 2011.

Ikasmilari dagokionez, ikasmila zenbat eta txikiagoa orduan eta handiagoa da D ereduaren pisua. Haur Hezkuntzan, esaterako, dagoeneko D eredia da nagusi (%50). Lehen Mailako Hezkuntzan D ereduaren izena eman dutenak %40 dira, eta ikasle gehienek B eredia aukeratu dute (%45). DBHn, hiru ereduak oso parekatuta daude: %35 D ereduaren, %33 B ereduaren eta %31 A ereduaren. Batxilergoan, aldiz, A ereduaren ikasleen %62 matriculatu dira eta D ereduaren %38. Azkenik, Erdi eta Goi mailako Lanbide Heziketan A ereduaren nagusitasuna erabatekoa da (%91). Gainerako %9ak D ereduaren dihardu.

Irakaskuntza ez unibertsitaria, ereduaren eta mailaren arabera.
ARABA, 2009/2010

Ereduak	Araba			
	Guztira	A+X	B	D
Haur Hezkuntza	13.659	5,0	44,4	50,6
Lehen Mailako H.	16.479	15,0	44,6	40,4
DBH	10.163	31,4	33,2	35,5
Batxilergoa	4.420	62,4	0	37,6
EGLH	4.665	90,9	0	9,1

Iturria: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.


Ez dakit helduen euskalduntzeari merezi adina arreta jarri zaion beti. Baina euskara berreskuratzeko prozesuan ezinbesteko tresna izaten ari da. Adin bate-tik gorako hainbat eta hainbat euskal herritarrek jaso du euskara euskaltegian edo hizkuntza-eskolan. Azken hamarkadan, esaterako, euskaltegian aritutako 6.000 arabarrek gainditu dute 9. urratsa, hau da, gainditu dute B2 maila.

Lehenago esan dut azken 25 urteotan Araban euskara transmititzeko bide nagusia ez dela familia izan. Horrekin adierazi nahi nuen euskarak izan dituen irabazi-kopuru handienak ez direla familia bidezko transmisioaren bidez lortu. Baina horrek ez du esan nahi inondik inora Araban gurasoek seme-alabei euskara transmititzen ez dietenik. Izan ere, azken 25 urteotan jaiotako seme-alaben %90etik gora euskara bakarrik jaso du etxean guraso biek euskara dakitenean; eta gainontzeko ia guztiak euskara eta gaztelania. Euskara gurasoetako batek bakarrik dakienean, euskara jaso duten seme-alabak %65etik gora dira, gehienak gaztelaniarekin batera. Bide batez esan, transmisioa handiagoa dela euskara dakiena ama denean.

Euskara nola transmititu den ezagutu ondoren, jarraian datorren galdera honakoa da: nolakoak dira azken bi hamarkadatan Arabak irabazi dituen elebidun horiek? Ba al dago desberdintasunik orduko eta gaur egungo elebidunen artean? Horretarako ariketa erraz bat egin dugu. Badakigu nola jaso duten euskara eta elebidunak direla. Hortaz, bi aldagai horiek gurutzatu eta BILA izeneko indizearen arabera sailkatu ditugu. 1986an, Arabako euskaldunen er-

dia pasatxo (%53) euskaldun berriak ziren, hau da, etxetik kanpo ikasi zuten euskara. Etxean euskara jaso zuten elebidunak %35 ziren eta euskara eta erdara jaso zutenak %12. Hogei urte beranduago, asko hazi dira hiru multzoak. Hau da, askoz euskaldun berri, jatorrizko elebidun eta euskaldun zahar gehiago dago, baina euskaldun berrien eta euskaldun zaharren proportzioak dezentente aldatu dira. Izan ere, gaur egun Arabako elebidun guztien ia %80 euskaldun berriak dira eta euskaldun zaharren proportzioa %13koa da. Euskaldun berrien ezaugarriak ondo zehaztuta daude. Elebidun guztien batez bestekoa baino gazteagoak dira, harreman-sarea, bereziki gertukoa, erdalduna dute eta, oro har, hobeto moldatzen dira erdaraz euskaraz baino. Ezaugarri horiek erabat baldintzatuko dute euskararen erabilera, jarraian ikusiko dugun bezala.

BILA indizea. Araba, 1986-2006 (%)




Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzza.

Euskararen erabilera txikia da erabilera-eremu guztietan. Irudiaren eskalari begiratzen badiogu (Otik 10era bitartekoa), berehala ohartuko gara

%8tik beherakoa dela eremu guztietan. Erabilera handiagoa da etxetik kanpo eta eremu formaletan, etxe barruan baino. Hala ere, azpimarratzekoa da azken 15 urteotan, euskararen erabilerak izan duen gorakada.


Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen dutenen bilakaera eremuaren arabera. ARABA, 1991-2006 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritzza.

Batek pentsa dezake gorakada hori elebidunen hazkundeari berari esker izan dela. Hau da, gaur egun euskaraz dakien pertsona gehiago daudenez, normala da euskara gehiago erabiltzea. Eta hori egia da, baina ikus dezagun egia osoa den. Horretarako, elebidunen erabilerak baino ez ditugu kontua izango. Hasteko esan erabilera-tasa askoz handiagoa dela (eskala 0tik 100era bitartekoa da). Etxetik kanpoko erabilera etxekoa baino handiagoa da, seme-alabekikoa izan ezik. Seme-alabekin familiako gainerako kideekin baino askoz euskara gehiago erabiltzen dugu. Azkenik, elebidunak bakarrik kontuan hartuta ere, azken 15 urteotan euskararen erabilerak gora egin du aztertu ditugun erabilera-eremu guztietan.

Euskara gaztelania beste edo gehiago erabiltzen duten ELEBIDUNen bilakaera eremuaren arabera. ARABA, 1991-2006 (%)



Iturria: Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza. Eusko Jaurlaritza.

Laburbilduz

Euskararen berreskuratze-prozesua bizitasun handikoa izan da azken 25 urteotan.

Euskarak izan dituen irabaziak batez ere hezkuntzari eta helduen euskalduntzeari esker etorri dira, familia bidezko transmisioari esker baino.

Arabako elebidun gehienek harreman-sare erdalduna dute (bereziki etxekoa) eta erraztasun handiago dute erdaraz euskaraz baino.

Horrek, nahitaez, eragina du euskararen erabileran. Euskararen presentzia txikia da erabilera-eremu guztietan.

Hala ere, azpimarratzekoa da gaur egun euskara gehiago erabiltzen dela duela 15 urte baino.



Euskararen kale erabilera Gasteizen

El uso del euskera en las calles de Vitoria/Gasteiz

L'usage de la langue basque dans les rues de
Vitoria/Gasteiz

Basque as spoken in the streets of Gasteiz

ALTUNA, Olatz

Soziolinguistika Klusterra

Helbide elektronikoa: o.altuna@soziolinguistika.org

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 557-576. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskararen Kale-Erabilaren Neurketa ibilbide luzeko ikerketa-lan zabala da, Siadecoren eskutik abiatu, eta gaur egun, hogeita bi urteren ostean, Soziolinguistika Klusterrak egiten duena.

Neurketaren I. edizioa 1989an egin zen, eta azkena, VI.a, 2011n burutu da. Hogeita bi urtetan sei argazki atera zaizkio euskararen erabilerari Euskal Herri osoan. Argazki horiek aukera ematen dute une jakin bateko egoera zertan den jakiteko, eta, batez ere, urteotako bilakaera nolako den ezagutzeko.

Bilakaerari erreparatuz gero, joera bat nabarmendu behar da: oro har goraka egin du euskararen erabilerak, baina oso modu apalean. Gainera, ez da antzematen gorakako eboluzio hori bizkortzeko joerarik. Herrialdez herrialde, Gipuzkoan indartu da gehienbat euskararen erabilera. Hego Euskal Herriko beste herrialdeetan egonkor dago. Iparraldean, berriz, behera egin du.

Gasteizi gagozkiola, euskararen erabilera bere horretan mantendu da gorabehera esanguratsurik gabe. Bilbon edo Iruñean jasotako datuen antzerakoak dira Gasteizkoak: euskararen erabilera %3 ingurukoa da hiru hiriburuetan gaur egun. Haurren eta gazteen artean nabaritu da gorakako joera, eta horrek esperantzarako leiho bat irekitzen du. Edonola ere, joera hori eten egin da azken urteotan, gaztetxoek gero eta azkarrago egiten baitute erdararen aldeko hautua.

Hitz gakoak: soziolinguistika, kale-erabilera, ahozko erabilera, neurketa-metodologia.

La medición del uso del euskera, es un amplio y profundo trabajo de investigación. Comenzó de la mano de Siadeco, y hoy en día lo realiza el Cluster de Soziologia.

La primera medición se realizó en 1989, y la última, la VI, se ha culminado en 2011. En 22 años se han tomado seis fotos al uso del euskara en toda Euskal Herria. Dichas fotografías nos dan la oportunidad de saber cuál es la realidad actual y cuál ha sido su evolución.

Si nos fijamos en la evolución, una tendencia es clara: en general ha aumentado el uso del euskera, pero de modo muy modesto. Y lo que es peor, no parece que se pueda acelerar ese crecimiento. Por territorios, es en Gipuzkoa donde el aumento es más significativo, en el resto de Hego Euskal Herria se mantiene estable y en Iparralde decrece.

En lo referido a Vitoria, el uso se ha mantenido estable, sin muchos sobresaltos. Los datos son parecidos a los de Bilbao o Pamplona, es decir alrededor del 3 % habla euskera en las calles de estas ciudades. El mayor uso se da entre los niños y jóvenes, lo que abre una puerta a la esperanza, si bien es cierto que esta tendencia se ha ralentizado los últimos años, debido a que los jóvenes apuestan por el castellano a una edad cada vez más temprana.

Palabras clave: Sociolingüística, uso del euskera en la calle, uso del euskera hablado, metodología de la medición.

Mesurer l'usage du basque représente un vaste et profond travail de recherche. Ce travail a été commencé par le Siadeco et aujourd'hui le Cluster de Sociologie a pris le relais.

La première enquête a été réalisée en 1989 et la dernière – la VIème – date de 2011. En 22 ans on a pris six photos de l'usage du basque dans tout le Pays Basque. Ces photos nous donnent la possibilité de connaître la réalité actuelle et quelle a été son évolution.

Si nous observons cette évolution, une tendance se révèle clairement : de manière générale l'usage du basque a progressé mais de façon très modeste cependant. Et le pire est qu'il ne nous semble pas que cette croissance puisse s'accélérer. Selon les territoires c'est au Guipuzcoa que la croissance est la plus significative, sur le reste du Pays Basque Sud la croissance est stable et en Iparralde l'usage du basque décroît.

En ce qui concerne Vitoria, l'usage du basque reste stable, sans trop de sursauts. Les données sont les mêmes que pour Bilbao et Pampelune où environ 3% des personnes parlent en basque dans la rue. L'usage le plus important se constate chez les enfants et les jeunes, ce qui laisse entrevoir un espoir, bien qu'il soit certain que cette tendance a ralenti ces dernières années, les jeunes glissant à l'espagnol à un âge de plus en plus précoce.

Mots-clés : Sociolinguistique, usage du basque dans la rue, usage du basque parlé, méthodologie de l'enquête.

The Measurement of Street-use of Basque is a long-standing, broad piece of research begun by Siadeco and today, twenty-two years later, is conducted by the Sociolinguistics Cluster.

The 1st Edition of the Measurement was carried out in 1989 and the most recent, the 6th, was done in 2011. Over twenty-two years six photos have been taken of Basque use all over the Basque Country. These photos provide an opportunity to find out what the situation is at a specific moment and, in particular, to know how Basque use has evolved over the years.

As regards the evolution, a trend needs to be highlighted: on the whole, Basque use has increased but only very slightly. What is more, it is not possible to spot any trend in the speeding up of that upward evolution. By province, it is in Gipuzkoa where Basque use has intensified the most. It remains steady in the other provinces of the Southern [Peninsular or Spanish-administered] Basque Country. In the Northern [Continental or French-administered] Basque Country, it has fallen.

As far as Vitoria-Gasteiz is concerned, Basque use has remained the same without any significant changes. Data for Gasteiz are similar to those gathered in Bilbao or Iruñea-Pamplona. Current Basque use is about 3% in the capital cities. There has been a significant upward trend among children and young teenagers, and that opens up a window of hope. However, that trend has stagnated in recent years, because teenagers earlier and earlier opt for Spanish first.

Keywords: Sociolinguistics, street use, oral use, measurement methodology.

1. Sarrera

«Zenbat erabiltzen da euskara kalean? Zenbat, Araban eta Gasteizen?». Galdera hori izan zen Euskaltzaindiaren XX. Jardunaldian egin genuen aurkezpenaren muina. Galdera horri erantzun nahiak eraman zuen 1989an EKB, Siadecoren eskutik, kale-erabilera neurtzen hastera, eta halaber ekarri gaitu, neurraldiz neurraldi, VI. neurketara.

«Zenbat» da, hortaz, hartu den galdetzailea, eta ez «noiz» edo «nola». Izan ere, datu kuantitatiboak jasotzera jo baita ikerketan. Iritziak eta jarrerak alde batera utzita, zenbatekoari erreparatu zaio.

«Zenbat erabiltzen da» diogu, nabarmentzeko ezagutzak ez, baizik erabilerak duela garrantzia aurkezten dugun ikerketa honetan. Ahozko erabileran ari gara, edozein pertsonak edozein pertsonarekin komunikatzeko erabiltzen duenaz. Erabileraren argazki kuantifikatu bat jaso da horrela.

Ikerketa honek Euskal Herri osoa du aztergai, baina txosten honetara, batez ere, Gasteizko (eta, zeharka bada ere, Arabako) datuak ekarri ditugu. Egungo egoera ez ezik, azken hogeita bat urteko bilakaera azalduko dugu, aurrera begirako joera antzematen lagundu dezakeelakoan.

Iaz egindako VI. Neurketako datuen analisi estatistikoa ez da guztiz bukatu oraindik. Uda baino lehen amaituko da datuen prozesamendua eta analisi. Ezin izan dugu, beraz, emaitzen argazki orokor bat artikulu honetara ekarri, eta, zehazki, Arabako azken hogeita bi urteotako bilakaera erakutsi. Hala ere, jakin badakigu Arabaren bilakaera estuki lotuta dagoela Gasteizen gertatzen denarekin, bertan bizi baitira arabarren hiru laurdenak. Orain arteko neurketek garbi erakusten dute: Gasteizko egoera nolakoa den, antzekoa da Arabako egoera. Hori horrela izanda, ahalegina egin dugu Gasteizko datuak analizatzeko eta beste inon baino lehen hemen argitaratzeko.

Honela egituratu dugu artikulu hau: bigarren atalean hizkuntza-erabilera neurtzeko Euskal Herriko Kale-Neurketen nondik norakoak azalduko ditugu; hirugarren puntuan Euskal Herri mailako eta herrialdekako datu nagusien gainbegiratua egingo dugu; laugarren puntuan Gasteizera mugatuko gara, bertako datuen aurkezpen xehatuagoa egiteko; eta bukatzeko, bosgarren puntuan ondorio nagusiak bilduko ditugu.

2. Hizkuntza-erabileraren neurketen ibilbidea

Euskal Herriko Kale-Erabileraren Neurketak hogeita bi urteko ibilbide luzea du dagoeneko. 1989an lehenengo aldiz egin zenetik, lau edo bost urteren tartearekin errepikatu da. Azkenekoz 2011n neurtu dira kaleko elkarriketak, nahiz eta oraindik argitaratu gabe dauden azken neurraldi horretako emaitzak. Horren aurretik, 2006ko neurketaren berri BAT aldizkariaren 64. alean argitaratu zen (Soziolinguistika Klusterra, 2007). Hori da, beraz, Euskal Herriko Kale-Erabilerari buruz dugun azken erreferentzia osatua eta argitaratua.

Ikerketa honen berezitasuna, inon egotekotan, metodologian dago. Izan ere, behaketa bidezko datu-bilketan datza; alegia, normalean erabilerari buruzko datuak inkesta bidez jasotzen badira ere, esate baterako, erroldan edo Inkesta Soziolinguistikoa (Eusko Jaurlaritza, 2008), ikerketa honetan zuzeneko behaketa erabiltzen dugu. Beste modu batera esanda, inkesta bidez, norberak bere buruari aitortzen dion erabilerari maila jasotzen da; hau da, *erabilerari aitortua edo subjektiboa* deitu ohi dena. Kale-Neurketan, berriz, inkestetan ez bezala, mintzatzen ari denari ez zaio ezer galdetzen, entzun eta hizkuntza jasotzen da modu objektiboan.

Horrez gain, honako beste irizpide metodologiko hauek ere nabarmentzekoak dira:

- Euskal Herri osoa hartzen da ikerketa-eremu gisa. Neurketaz gain, Inkesta Soziolinguistikoa da Euskal Herri osoa aztertzen duen ikerketa bakarra. Azkena, 2006an burutu zen (Eusko Jaurlaritza, 2008) Beraz, bi ikerketok batera aztertuz gero, aukera paregabea dugu erabileraren egoera ongi ezagutzeko.
- Eremu publikoan –kalean– neurtzen da hizkuntzen ahozko erabilerari.

Espazio publikoa aztertzen dugu, hau da, kalea. Kalea baita espazio neutralena, hizkuntza-gaitasuna, hizkuntza-joera, eta pentsaera ezberdinetako jendea topatuko dugun espazioa, hain zuzen. Beraz, leku irekiak neurtuko ditugu: kalerik jendetsuenak, plazak, parkeak, jolastokiak, karrikak, etab. Toki itxiak: tabernak, bizilekuak, zerbitzu publikoak, lantegiak, ikastetxeak etab. neurketatik kanpo geratuko dira.

- Hortaz, kalean entzuten diren elkarrizketak neurtzen dira, eta neurtzaileek jasotzen dituzten datuek entzun eta zenbatu diren pertsona horiek leku eta une horretan zein hizkuntza zerabilten adierazten dute, ez besterik. Horrek ez du esan nahi horiek bakarrik direnik euskaraz egiten dutenak, baizik eta hori dela euskararen erabilpenaren proportzioa; alegia, ez dugu jakingo zenbatek egiten duen, baizik eta batez beste zenbat egiten den euskaraz une eta leku bakoitzean.

Kale-Neurketan jasotako datuek zera adierazten dute: neurketa egin den tokian eta unean (egunean eta orduan) zenbat lagun ari den euskaraz (edo erdaraz) hitz egiten.

- Udalerrri bakoitzean ibilbide bat (edo gehiago) zehaztuko da (dira) herri-tamainaren arabera. Oro har, 15.000 hiztunetik beherako udalerrrietan ibilbide bakarra neurtuko da, hortik gora 10.000 biztanleko ibilbide bat gehituko da.

Neurtzaileak datuak biltzen aritzen dira ibilbideetan zehar neurketak irauten duen orduetan. Fitxa-orri batzuk betetzen dituzte entzundako elkarrizketen informazioarekin. Normalean, ibilbideak neurketa batetik bestera errepikatu egiten dira, lau urtetan herriko kale jendetsuenei dagokienez aldaketarik ez bada behinik behin. Gune berriak sortu badira –espazio urbanizatu berriak eraiki direlako–, ibilbideak egokitu egiten dira.

- Datuak jasotzean hiztunen eta elkarrizketa-egoeraren zenbait aldagai biltzen dira: adina, sexua eta haurren presentzia, hain zuzen. Erabilera-datuak ezaugarri hauen arabera aztertzen dira.

2011n burutu den VI. Kale-Neurketan 97 udalerrri neurtu dira, eta orotara 300.000 pertsonatik gora behatu dira.

VI. edizio honetan emaitzen akats-tartea kalkulatu dugu lehen aldiz. Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuordetzaren laguntzarekin, Kale-Neurketarako laginketa-eredu bat sortu dugu¹. Eredu horretaz baliatuz, Euskal Herriko eta eremu txikiagoko erabilera-emaitzen errore-tartea kalkulatu ahal izango dugu.


¹ Helbide honetan ikus daiteke eredu horren formalizazioa: <http://www.soziolinguistika.org/erabileraneurtzekometodoak>

3. Euskal Herriko eta lurraldekako erabilera-datuak 2006a bitarte

2006an Euskal Herriko kaleetan entzundako elkarrizketetan, hiztunen %13,7 euskaraz ari ziren. Denera 185.316 hiztunen jarduna jaso zen, eta horietatik 27.172 ari ziren euskaraz, 153.969 gaztelaniaz, eta gainontzeko 4.175 beste erdal hizkuntzetan².

1. irudian ikus dezakegu hizkuntzen erabilera-proporzioa zenbatekoa izan zen: euskaraz %13,7, gaztelaniaz %83,7 eta beste hizkuntzetan %2,6.

1. irudia. Hizkuntzen kale-neurketa. Euskal Herria, 2006 (euskaraz, %)




1. taula. Hizkuntzen kale-neurketa. Euskal Herria, 2006 (euskaraz, %)

	Kop.	(%)
Euskaraz	27.172	%13,7
Gaztelaniaz	153.969	%83,7
Beste hizkuntzetan	4.175	%2,6
GUZTIRA	185.316	100,0

² Erabileraren portzentajeak ateratzeko hainbat kalkulu estatistiko egiten dira, ehunekoak ez dira zuzenean kalkulatu.

Hala ere, aurrera begira, interesgarriagoa eta esanguratsuagoa da erabilera-datuaren bilakaera aztertzea, momentu jakin bateko datuen argazki estatikoarekin geratzea baino. Hala, hamazazpi urtetan (1989tik 2006ra bitartean) euskararen kale-erabilerak 2,9 puntu egin du gora. Hortaz, euskara gehiago erabiltzen da, baina, oraindik ere oso gutxi euskal gizartearen zonalde gehienetan. Nabarmenezkoa da, gainera, azken urteotan abiadak, azkartzeko baino, moteltzeko joera hartu duela, 2. irudian ikus daitekeenez.


2. irudia. Kale-erabileraren bilakaera. Euskal Herria, 1989-2006
(euskaraz, %)



Erabileraren eta ezagutzaren datuak erkatuz gero, esan behar da erabilera ez dela ezagutzaren erritmo berean hazi. Ezagutza bizkorrago hazi da erabilera baino. Halaz guztiz, ezagutza maila kontuan izanda eta Txillardegiren eredu matematikoan oinarrituta (Txillardegi, 2001), azpimarratzekoa da espero zitekeena baino gehiago hitz egiten dela euskaraz. Oro har, gure hizkuntzarekiko atxikimendu handia eta fideltasun maila altua dugu euskaldunok. Horrela ez balitz, baldintza demolinguistikoek oraindik eta erabilera maila txikiagoetara eramango gintuzkete.

Kontuan izan behar dugu, bestalde, Euskal Herri osoko argazki orokor eta bakunak ez duela lurraldekako errealitate askotarikoa erakusten. Izan ere, alde handiak baitaude lurralde batetik bestera. Gipuzkoa da erabilera-indize altuena duen lurraldea, %32,1. Gipuzkoan hamazazpi urtetan erabilerak 8,8 puntu egin du gora. Bizkaian, erabilera %10,7koa da, lehen neurketa hartatik 2,5 puntu gorago. Araban, aldiz, Bizkaian eta Gipuzkoan baino trabatua goa da gorakako joera; azken neurketan %4,7ko erabilera jaso da, eta horrek esan nahi du 1989tik 2006ra 2,6 puntu egin duela gora. Nafarroan, hamazazpi urtetan erabilerak bere horretan dirau, eta bost neurketetan erabilera-indizea %6 ingurukoa da. Iparraldean³ euskararen erabilerak behera egin du: 2006ko indizea %6koa zen, lehen neurketakoa baino 0,5 puntu txikiagoa. 3. irudiko grafikoan eta taulan adierazi dira bilakaera-datuok.

3. irudia. Kale-erabileraren bilakaera herrialdeka, 1989-2006 (euskaraz, %)



³ Iparraldeko erabilera-portzentajea hiru lurraldeak batuta eman da.

2. taula. Kale-erabileraren bilakaera herrialdeka, 1989-2006 (euskaraz, %)

	Araba	Bizkaia	Gipuzkoa	Nafarroa	Ipar EHa
1989	3,9	8,1	23,3	6,5	
1993	4,2	9,6	23,9	7,5	6,5
1997	4,0	10,5	27,6	6,8	8,3
2001	4,2	10,7	29,5	6,0	7,6
2006	4,7	10,7	32,1	6,0	6,0

Adinaren araberako datuei erreparatuz gero, hizkuntza normalizazio-prozesu batean gerta daitekeen hurrenkerarik onena lortu da, alegia, haurrek egiten dute gehien, eta gero gazteek, helduek eta adinekoek ordena horretan. Beraz, zenbat eta gazteago, orduan eta gehiago egiten da euskaraz. 2006ko neurketa aurrekoekin konparatuz, haurren eta gazteen artean handitu da gehien erabilera (%19,7 eta %13,4), helduek ere hiru puntuten hobetu dute (%12,0) eta adinekoek etengabeko jaitsieran jarraitzen dute (%10,6).

2006ko datuen analisitik beste ondorio hauek ere azpimarratzekoak dira:

- Haurren presentziak nabarmen eragiten du euskararen erabileran, hau da, elkarrizketetan haurrak tarteko direnean euskara gehiago erabiltzen da haurrik ez dagoenean baino. Dena dela, hiriburuetan eragin hori ahulagoa izan da 2006an, 2001ean baino.
- Sexuaren araberako emaitzei dagokienez, Hego Euskal Herriko hiriburuetan (gainontzeko eremuetarako ez dugu lagin nahikorik) emakumezkoek gizonetako baino erabilera-maila altuxeagoak izan dituzte.
- Oro har, zonalde linguistiko guztietan erabilerak gora egin du, batez ere zonalde euskaldunenetan, hau da, ezagutza %75-100 bitartekoa den zonaldeetan.

4. Gasteizko erabilera-datuak, 1989tik 2011ra

Aurreko atalean hamazazpi urteko bilakaera erakutsi digute 2006a bitarteko datuek. Azken bost urteetako erabilera-indizeak laster argitaratuko

dira, eta interesgarria izango da aurretik deskribatu dugun bilakaera hori mantentzen den edo joera-aldaketarik badagoen jakitea.

Azken bosturtekoari dagozkion Gasteizko datuak bai, horiek analizatu ahal izango ditugu. Kontuan izan behar dugu, gainera, Gasteizko joerak Arabakoa guztiz baldintzatzen duela, populazioaren hiru laurdena Gasteizen bizi delako. Azter ditzagun, beraz, Gasteizen 1989tik hona jaso ditugun erabilera-datuak.

Lehenik eta behin, 2011ko azken neurketaren landa-lanaren berezitasunak deskribatuko dugu:

- Gasteizen hogeita bat gune edo zonalde neurtu dira: Abetxuko, Adurtza, Alde Zaharra, Aranbide, Arana, Gazalbide, Errota, Arriaga-Lakua, Zaramaga, Zentroaldea, San Martin, Sansomendi, Txagorritxu, Irubide, El Pilar, Aranbizkarra, Ariznabarra, Lakua, Judimendi, Zabalzana eta Salburua (azken bi hauek edizio honetan neurtu dira lehenengo aldiz).
- Gune gehienetan ibilbide bakarrean egiten dira neurketak, baina badi-
ra ibilbide bat baino gehiago dituzten zonaldeak ere, adibidez, Alde Zaharra edo Txagorritxu.
- Orotara Gasteizen 28.142 pertsona behatu dira, eta 13.219 elkarrizke-
ta. Lagina eta emaitzen adierazgarritasuna (akats-tartea) kalkulatzeko erabili dugun eredu matematikoaren arabera, akats-tartea +0,9koa da lagin osoarentzat, %95eko konfiantza mailan.


2011n Gasteizen ehun hiztunetatik hiru (%3,1) entzun ditugu euskaraz. Bilbon ere kopuru bera dugu (%3,2). Iruñean zertxobait gutxiago, %2,7. Eta Donostian ehun hiztunetatik hamasei entzun ditugu euskaraz (%15,9).

Erabileraren bilakaera

Euskararen erabileraren bilakaera aztertzen badugu Gasteizen, 1989tik hona erabilera %2,0 izatetik %3,1 izatera pasa da; beraz, hogeita bi urtetan puntu bat igo da. 2006an %4ko erabilera jaso genuen, gorakako joera baten adierazle izan zitekeena, baina 2011ko datuak aurreko neurketako (2001) indizera eraman gaitu. Kontuan izanda Gasteizen akats-tartea 0,9koa dela,

2006an jasotako puntu bateko igoera apal hori akats-tartearen barruan koka dezakegu. Beraz, 1989tik honako bilakaerari erreparatuta, Gasteizen hogeita bi urtetan erabilera %3 inguruan dagoela esan dezakegu, gorabehera esanguratsurik gabe. 4. irudiak erakusten du grafikoki bilakaera hori.

4. irudia. Kale-erabileraren bilakaera Gasteizen, 1989-2011 (euskaraz, %)




Erabilera, gutxi gorabehera, bere horretan dago azken hogeita bi urteotan. Aldiz, elebidunen kopuruak gora egin du, baina euskaraz hitz egiteko gai diren gasteiztarren igoerak ez du bere horretan ahozko kale-erabileran eraginik izan. Esan behar da elebidunen igoera batez ere belaunaldi gazteenetan gertatu dela. Azter dezagun, bada, zein izan den erabileraren bilakaera biztanleen adinaren arabera.

Adin-taldeak

Lau taldetan banatzen dira hiztunak: 2-14 urte bitartekoak, haurrak; 15-24 bitartekoak, gazteak; 25-64 bitartekoak, helduak, eta 65 urtetik gorakoak, adinekoak.

5. irudian ikus dezakegu gazteen adin-taldean gertatu dela gorakadarik handiena, 3,2 puntukoa: 1989an erabilera %2,0 zen eta 2011n %5,2 izan da. Haurren adin-taldean puntu bateko igoera izan dugu: %4,2tik %5,3ko erabilerara pasa da. Helduen eta adinekoen taldean erabilerak ez du ez gora ez behera egin, hurrenez hurren %2,6 eta %0,9 inguruan dago erabilera hogoita bi urte hauetan.

5. irudia. Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Gasteizen, 1989-2011 (euskaraz, %)⁴



⁴ Irudiko grafikoan bilakaeraren joera-marra lineala adierazi da. Sei neurketetako datuen tendentzia islatu da, eta datu zehatzak irudiko taulan jaso dira.

3. taula. Kale-erabileraren bilakaera adin-taldeka Gasteizen, 1989-2011 (euskaraz, %)

	Haurrak	Gazteak	Helduak	Adinekoak
1989	2,7	2,0	2,0	0,7
1993	4,2	2,0	2,6	0,9
1997	4,6	3,4	2,4	0,9
2001	3,5	3,4	2,9	0,3
2006	5,8	6,3	3,7	0,6
2011	5,3	5,2	2,6	0,8


Haurren eta gazteen erabileran gertatu den igoerak ez du erabilera orokorrean eragin handirik izan, 25 urte bitartekoak biztanleria osoaren %21 besterik ez baitira. Baina, garrantzitsua da haurren eta gazteen erabilera batez bestekoaren gainetik egotea eta belaunaldi gazteenetan igoera gertatzea. Mezu baikor honi datu ilun bat ere gehitu behar diogu, ordea: 2006tik hona haurren eta gazteen erabilerak apur bat behera egin du. Neurketan sumatu dugunez, eta beste zenbait fenomeno sozialetan ere igarri denez (adibidez, alkoholaren kontsumoan edo sexu-harremanetan), joera goiztiarra areagotzen ari da; alegia, gurera etorrira, badirudi geroz eta lehenago egiten zaiola uko euskarari komunikazio-hizkuntza gisa, eta haur-gazte txoek lehenago egiten dutela erdararako jautzia. Lehen hamalau-hamabost urterekin egiten bazen erdararako hautua (gazteen adin-taldean), gaur egun jauzi hori hamar-hamaika urterekin antzematen da (haurren adin-taldean).

Sexua

Sexuari dagokionean, oro har, emakumezkoek gehiago egiten dute euskaraz gizonzkoek baino (%0,6 gehiago). Alde hori ez da oso esanguratsua, ordea. Datuen arabera, interesgarriagoa da sexuaren aldagaia adin-taldeka

aztertzea. Haur, gazte eta helduen artean emakumezkoek gizonzkoek baino gehiago hitz egiten dute euskaraz; adinekoen artean, aldiz, gizonzkoek zertxobait gehiago. Alde nabarmenena haurrengan eta gazteengan jaso dugu. 6. irudian ikus daiteke adin-talde bakoitzaren erabilera-maila sexuaren arabera.

6. irudia. Kale-erabilera adin-taldeka eta sexuaren arabera Gasteizen, 2011 (euskaraz, %)



Nabarmentzekoa da joera hori Hegoaldeko lau hiriburuetan⁵ gertatzen dela; alegia, Donostian, Bilbon eta Iruñean ere adin-talde guztietan emakumezkoek gizonzkoek baino zertxobait gehiago hitz egiten dute euskaraz, adinekoen adin-taldean izan ezik. Baina, Gasteizen bi sexuen arteko aldea handiagoa da beste hiriburuetan baino, batez ere haurren eta gazteen adin-taldean.

⁵ Iparraldeko hiriburuetan ez dugu nahikoa elkarriketa behatu, adin-taldeka eta sexuaren arabera erabilera-datu sendoak izateko.


Haurren presentzia

Lehen ere aipatu dugu haurren presentziak baldintzatu egiten duela solaskideen arteko hizkuntza-hautua. 2011ko Gasteizko datuek baieztapen hori berresteko aukera eman digute.

Hiru kategoria nagusitan bereizi ditugu solas-taldeak: haurrak baizik ez daudenekoak, nagusiak baizik ez daudenekoak (nagusizat hartzen dira gazteak, helduak nahiz adinekoak), eta haurrak eta nagusiak nahasturik daudenekoak.

Joera nagusia hauxe da: haurrak bakarrik (nagusirik gabe) edo nagusiak bakarrik (haurrik gabe) ari direnean, erdarara jotzen dute batzuek zein besteek nagusiki. Haurrak bakarrik egonda, %1,7koa izan da euskararen erabilera eta nagusiak bakarrik egonda, %1,9koa. Bi kasuetan datuak erabilera orokorraren batez bestekoaren azpitik daude (%3,1).

7. irudia. Kale-erabilera haurren presentziaren arabera Gasteizen, 2011 (euskaraz, %)



Haurrak eta nagusiak elkarrizketa bereko partaide direnean, aldiz, erabilerara %5,3raino igotzen da. Elkarrizketa hauetan, nagusiek hitz egiten dutenean erabilerara %7,2 da, eta haurrak ari direnean %4,3.

Alde esanguratsuak aurkitu ditugu, hortaz, euskararen erabileran solas-taldearen osaeraren arabera. Azpimarratzekoa da gure ikerketan aztertutako aldagai guztien artean haurren presentzia dugula, alde handiarekin gainera, aldagairik diskriminatzaileena, hau da, herritarren hizkuntza-portaeran gehien eragiten duena.


Bai hurrek bai nagusiek, bakarrik daudenean, erdarara jotzeko duten joera horren atzean, besteak beste, arrazoi pragmatikoak egon daitezke. Gasteizko euskaldun gehienak (haur zein nagusi) gaztelaniaz hobeto moldatuko dira ziur aski euskaraz baino, alegia, errazago eta egokiago komunikatzen dira gaztelaniaz. Salbuespenak salbuespen, horixe izango da euren hautu praktikoa gehien-gehienetan. beraz, zeharka bada ere, hizkuntza-gaitasunean ahulgune bat dagoela adieraziko ligukete datu horiek.

Bestalde, haurrak eta nagusiak elkarrekin daudenean euskarak hartzen duen presentzia handiagoan beste funtzio eta motibazio batzuk badirela adierazten du. Nolabait, Gasteizko euskaldunek belaunaldi berriei euskara transmititzeko duten gogoaren eta konpromisoaren adierazgarri izan daitezke datuok. Izan ere, nagusi horietako gehienei hurrekin ere gaztelaniaz aritzea errazagoa litzaieke, baina euskararen aldeko hautua egiten dute egunerokoan.

Haurrak eta nagusiak elkarrekin egon edo ez, alde handia antzematen da euskararen erabileran, baina ez Gasteizen bakarrik. Euskal Herri osoko ezaugarria da hori (ikus 8. irudia). Bereziki adierazgarria da alde hori euskarak nabarmen atzera egin, eta berreskuratze-lanetan ari diren inguruetan. Habitat soziolinguistikoko horietako euskaldunek, oro har, badute ondorengoei euskara transmititzeko borondatea, eta ahaleginak egiten dituzte horretan, euren seme-alabei (eta gainerako hurrei) euskaraz eginez. Praktikoki, ordea, errazagoa zaie gaztelaniaz jardutea, eta halaxe egiten dute gehienek nagusien arteko elkarrizketetan. Inguru horietako haur euskaldunek ere euskaraz jarduteko gaitasun mugatuagoa dute. Horrez gain, euren gurasoen eredutik ere ikasten dute (euskaraz jakin bai, baina askotan gaz-

telaniaz jardun), eta euren artean daudenean, haur euskaldunek ere gaztelaniara jotzen dute, nagusiki.

8. irudia. Kale-erabilera haurren presentziaren arabera Hegoaldeko hiriburuetan, 2011 (euskaraz, %)



Beste hizkuntzak

Amaitzeko, euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntzen erabilera ere behatu dugu, eta emaitza oso interesgarriak jaso ditugu. 2011ko neurketaren arabera, beste hizkuntzen erabilera %5ekoa da. Duela bost urte jasotako erabilera bikoiztu egin da beste hizkuntzei dagokienean; 2006an %2,5ekoa izan baitzen. Deigarria da 2011n beste hizkuntzen erabilera euskararena baino altuagoa dela Gasteizen.

Euskara edo gaztelania ez diren beste hizkuntzetako hiztunak helduak eta gizonezkoak dira, batez ere. Bost urtetik hona, dena den, beste hizkuntzen erabilera gehien igotzen den adin-taldea gazteena izan da.

Oraintsu arte uste zen etorkinen presentziak hizkuntza-ohituren aldaketa sakon bat ekar zezakeela, baina krisi ekonomikoaren eraginez etorkinen fluxua eten baita, ikuskizun dago zer-nolako bilakaera izango duen beste hizkuntzen erabilerak.

5. Ondorioak

Artikulu honetan Euskararen Kale-Erabilera neurtzeko erabiltzen den metodologiaren ezaugarri nagusiak aurkeztu dira.

Dagoeneko badira hogeita bi urte erabileraren datuak jasotzen hasi zirenetik Euskal Herriko geografiaren luze-zabalean. 2011n jaso dira azkenekoz erabilera-datuak. Zoritxarrez, oraindik ez da azken datu horien lanketa estatistikoa burutu. Alabaina, Hego Euskal Herriko hiriburuetakoz zenbait datu ekarri dugu hona, bereziki arreta jarriz Gasteizi dagozkion datuetan. Hiru aldagai nagusiren arabera aurkeztu ditugu erabilera-datuak: adina, sexua eta haurren presentzia.

Esan dezakegu Gasteizko erabilera orokorrean ez dela gorabehera handirik antzeman 1989tik hona. Bertako euskaldunen kopurua aintzat hartuta, bistakoa da urruti dagoela %30eko mugatik, eta, erabileraren eta gaitasunaren korrelazioek diotenez, zaila da atalase horretatik beherako herrietan erabilerak gorakada handirik izatea. Horrelakoetan ez da aski oinarririk aurkitzen harreman-sareak euskaraz egiteko eta zabaltzeko. Zailtasun horretan legoke arrazoi bat erabileraren emendatze trabatua justifikatzeko.

Arazo kuantitatibo horri gehitu behar zaio, gainera, hiztunen gaitasun kualitatiboak eragindako zailtasuna. Nahiz euskaraz nolabaiteko gaitasuna lortu, eta ondorioz euskaldunen kopuruak gora egin, hiztun horien komunikazio-hizkuntza berezkoa eta naturala erdara da gehienetan. Horra hor bigarren arrazoi bat euskararen erabilera haztea eragozten duena.

6. Eskerrak

Euskararen Kale-Erabileraren VI. Neurketa aurrera eramanez ahal izateko ezinbestekoa izan da Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikaren Sailburuor-

detzaren, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundien eta hainbat udalen laguntza.

7. Bibliografia

ALVAREZ ENPARANTZA, J. L., TXILLARDEGI, 2001. *Hacia una Socio-Lingüística Matemática*. Donostia: Euskal Soziolinguistika Institutua Sortzen.

EUSKO JAURLARITZA, 2008. IV. *Inkesta Soziolinguistikoa*. Vitoria-Gasteiz.

SOZIOLINGUISTIKA KLUSTERRA, 1991. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 3-4. Andoain.

———, 2002. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 28. Andoain.

———, 2007. *BAT Soziolinguistika aldizkaria*, 64. Andoain.

Arabako euskara eta herrigintza joan deneko 25 urtean

El euskera como movimiento popular en Álava en los últimos 25 años

La langue basque, mouvement populaire en Alava au cours des 25 dernières années

Basque and collective organization in Araba over the last 25 years

ELUSTONDO, Miel A.

Idazlea eta argazkilaria

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 577-588. Bilbo
ISSN 0210-1564

Ondoko artikulua euskarak Araban 60ko hamarkadatik hona egin duen bideari begiratzeari du helburu. Gerra ondoren hasitako mugimenduak gaurdaino irauten du, era batera zein bestera, eta hainbat modu ezberdinetan. 50eko hamarkadaren hastapeneko euskarazko eskolak, Andoni Urrestarazu «Umandi» eta Peli Presaren eskutik etorri zirenak. 60ko hamarkadako lehenbiziko ikastola eta lehenbiziko andereñoa, hau da, Izaskun Arrue; 70eko hamarkadako Euskaltzaindiaren babespeko eskolak Henrike Knorren ingurukoak, eta Alfabetatze-Euskalduntze mugimenduaren abiatzea Araban. Olabide ikastolaren sorrera eta, 80ko hamarkadan eta Arabako Ikastolen Elkartearen eraginez, ikastola sarearen hedatzea lurralde osoan. HABE, AEK eta IKAreneko lana. Euskara Elkarteen ekimena, Bertsozale Elkartearen jarduna eta, finean, hezkuntza sistemak eta euskalgintzak ekarri duen elebidun kopuruaren emendatze azkarra. Horien gaineko panorama eskaintzen du artikulua, gaurko datuen argitan.

Hitz-gakoak: Euskarazko eskolak, Andoni Urrestarazu, Ikastolak, Izaskun Arrue, Alfabetatze-Euskalduntze mugimendua, Henrike Knorr.

El objetivo de este artículo, es realizar una mirada retrospectiva al camino que ha hecho el euskera en Álava desde la década de los 60. El camino emprendido en la posguerra llega hasta hoy de muy diferentes maneras. Las primeras clases de euskera de los años 50, que vinieron de la mano de Andoni Urrestarazu «Umandi» y de Peli Presa. La primera ikastola y la primera andereño, Izaskun Arrue, en la década de los 60. En los 70 Henrike Knörr y Euskaltzaindia impulsaron clases para aprender euskera, y se puso en marcha en Álava el movimiento de alfabetización de adultos. En los 80 en cambio surge la Ikastola Olabide y la red se expande por todo el territorio. HABE, AEK, IKA, las asociaciones para el fomento del euskera, la asociación de bertsozaleak, y en general, el sistema educativo y la red de apoyo al euskera es lo que ha impulsado el rápido crecimiento del número de euskaldunes. Este artículo analiza todo esto, al albor de los datos actuales.

Palabras clave: clases de euskera, Andoni Urrestarazu, Ikastolas, Izaskun Arrue, Movimiento de alfabetización de adultos, Henrike Knörr.

L'objectif de cet article est de proposer un regard rétrospectif sur le chemin parcouru par la langue basque en Alava depuis les années 60. Le chemin emprunté à l'après-guerre parvient jusqu'à nous de différentes manières. Les premiers cours de basque des années 50 furent dispensés par Andoni Urrestarazu «Umandi» et Peli Presa. La première ikastola et la première andereño, Izaskun Arrue, datent des années 60. Au cours des années 70 Henrike Knörr et Euskaltzaindia lancèrent des cours de basque et en Alava le mouvement d'alphabétisation des adultes se mit en marche. Au cours des années 80 naquit l'Ikastola Olabide et le réseau s'étendit sur tout le territoire. HABE, AEK, IKA, les associations pour la pro-

motion de la langue basque, l'association des bertsolaris, et de façon générale le système éducatif et le réseau d'aide à la langue basque ont tous participé à la croissance rapide du nombre de bascophones. Cet article analyse tout cela à la lumière des données actuelles.

Mots-clés : cours de basque, Andoni Urrestarazu, Ikastolas, Izaskun Arrue, Mouvement d'alphabétisation des adultes, Henrike Knörr.

This paper sets out to look at the progress made by Basque in Araba (Alava) since the 1960s. The movement begun during the years following the Spanish Civil War [1936-39] in one way or another persists until today: the first Basque classes of the 1950s run by Andoni Urrestarazu aka «Umandi» and Peli Presa; the first *ikastola* or Basque-medium school in the 1960s, and its first teacher Izaskun Arrue; the schools set up by Henrike Knörr under the auspices of the Euskaltzaindia in the 1970s; and the start of the Literacy-Basquisition movement in Araba. The 1980s saw the founding of the Olabide *ikastola* and the network of *ikastolas* spread throughout the province as a result of the work of the Federation of *Ikastolas* of Araba. The work of HABE, AEK and IKA. The initiative of the Associations in Favour of Basque, the activity of the Association of Extempore Verse Making Devotees, and last, but not least, the rapid increase in the number of bilinguals brought about by the education system and activities fostering the Basque language and culture... In the light of current data the paper offers an overview of all these things.

Keywords: Basque-medium schools, Andoni Urrestarazu, *Ikastolas*, Izaskun Arrue, the Literacy-Basquisition movement, Henrike Knörr.

«San Martinen estutasuna» du izena ipuinak.

San Martin errementaria zen. Behin, kolpe txarren bat jo, nonbait, eta dioska hasi zen, Jainkoaren kontra, deabruari hoska. Eta, ohi denez, deabrua etorri, eta San Martin damutu! Eta hasi omen da San Martin, aitzakia beti merke bila. Ernegatuta zegoelako ekin omen zion Jainkoaren kontra. Ez zela benetan ari. Deabruak, orduan, gaizki esanen ordainetan, kristautasunaren misterioak esateko agindu omen zion.

Eta deabruak: «Errak bat!», eta San Martinek, santu naizen honek...

arantxa aretxandieta, andoni perez cuadrado, izaskun arrue, beheko harrisiak, ikastola, aranzabal, eusebio osa, arantxa ulibbarri, ezosi leturiondo, pako eizagirre, iñaki oregi, kepa mallea, felix placer, gonzalez salazar, esther aramendi, jose mari rekarte, ramon basaras, lurdes arrieta, amaia visa, txutxi muro, iñaki mendiguren, laudio, amurrio, alex vadillo, okon corres, roberto madrid, euskal herrian euskaraz, jon zabala, mailu lasarte, udalak, ikerne oiarzabal, mikel escudero, aek, ika, bagare, geu gasteiz, iñaki martinez de luna, estitxu breñas, piztidze, txus arrieta, euskaltzaindia, kepa mendia, maite mendiburu, txipi ormaetxea, txerren, mauri, aramaio, oleta, joxemari berasategi, lapuebla labarka, argantzun, henrike knorr, begoña ariznabarreta, manuel iradier elkarrea, olabide, armentia, koldo zuazo, diputazioaren euskara zerbitzua, andoni umandi, teresa urrestarazu, peli presa, euskaltzaleen elkargunea, errezil, urrestilla, iñigo castresana... eta gehiago eta gehiago, arabako herri-ekimena euskararen normalizaziora bidean.

Eta deabruak: «Errak bi!»

Eta nondik hasi. Hor ikusten dut neure burua, bizikletan, ero. Odontologo, oftalmologoa, dermatologoa, psikologoa... Gasteizen barna bizikletan, noiz kaminoan, noiz espaloian, pedalei eragin eta eragin. Horretan, Izaskun Arrue bizi den kalean gertatu naiz. Kalearen izenik ez dakit. irakurri behar izan dut: «Joakin Jose Landazuri». Jakina, bada! Landazuri... Jakina, bada, Izaskun Arrue, ikastolak Araban izan duen lehen andereñoa...

«Guraso batzuk hasi ziren Gasteizen lanean. Ni ez nintzen hasi, esanez: "Orain ikastola irekiko dut". Guraso haiek euskaraz ez zekiten. Gogo hori

sortu zitzairen eta bila hasi ziren. Eta ni aurkitu ninduten. Guraso haiek izan ziren fundatzaile, haiek.

Esaten dute gerra aurretik ere bazela ikastola Gasteizen. Pilar Landaburu zela tartean, Arabak Madrilen zuen diputatuaren arreba. Apenas ezagutu nuen Pilar hura. Esaten dute euskaraz ez zekiela, baina ahal zuena ikasi eta ikastola antzeko zera txiki bat zeukala.

Ni 1960an etorri nintzen Gasteiza, ezkondata. Arte eta Lanbide Eskolan hasi nintzen lanean. Handik hiru urtera, zenbait gurasok beren umeek euskaraz ikastea nahi zutela, eta Donostiatik bueltan, Oñatibia anaiak tarteko, nirekin harremanetan jarri ziren. Eta euskarazko eskola hasi nuen, etxean, Zerka Barren kalean, dozena bat umerekin. Bigarren urtean, ume gehiago. Hirugarrenean, gehiago. Hogeita hamalau bat. Saltoka ibili behar haien artean. Ez zegoen horrela segitzerik, gero eta ume gehiago ari ziren-eta izena ematen. Orduan, batzar bat egin zen Estibalitzen, monasterioan. Tartean zen bertako abata Ixidro Baztarrika. Norbaitek esan zuen iragarki bat jarriko zuela egunkarian, lokal batzuk behar zirela adieraziz. Eta, nonbait, berehalaxe erantzun zuen moja batek. Afrikan zegoen, misiolari, baina txalet txiki bat zuen Estibalizko etorbidean, Gasteizen bertan. Errentan eman ziguten etxe hura eta hantxe hasi ginen, 67an».

Izaskun Arrue. Oñatibia anaiak. Pilar Landaburu. Isidor Baztarrika 1967

«Errak hiru!»

Horra bizikletan ni, Andra Mari Zuria plazan, Mendia Optikara itsu. Keparekin hitz egin beharra daukat. Garai batean, noizbait, *Jakin* aldizkarian idatzi zuena irakurri nahi dut berriz. Kepak ez du ahantzia: «Juanjo Urangarekin batera idatzi nian. Arabako alfabetatze-euskalduntzeari buruz». Etxean, jo dut apaletara, hantxe *Jakin*. 1981eko alea da. Hogeita hamar urte dira joanak. Irakurtzen hasi naiz...

«60ko hamarkadaren hastapenean, euskal borroka osoaren pizkundearekin batera koka genitzake oraingo euskalgintzaren lehenengo saioak. [Gerra ostetik 1960ra doan aro beltzaren aipua tartean, eta, jarraian, euskaltzale handi batena] Urrestrarazu' tar Andoni jauna, Araiako euskaldun berria, geroago erabili den «Umandi» izeneko gramatika-metodoaren egile. 1953an,

frankismoa bide, Pariseko erbestera jo behar du Urrestarazuk. Ondoko urtean, haren ikasle Peli Presak lehenengo maila irakasteari ekiten dio. (...) 60ko hamarkadaren bukaeran, Arabako lehenengo ikastola sortuko da, Aita Olabide. Une berean, helduen euskal eskolak ugaltzen ari dira. Peli Presak ageri-agerian erakusten du euskara Arte eta Lanbide Eskolan. Administrazioa, gogoz kontra bada ere, egoera onartzera beharturik dago.

1970an, «Joan Bautista Gamiz» lehenengo irakasle taldea sortuko da. Eragileen artean dira Juanjo Uranga, Ima Murgoitio, Aingeru Ibisate, Gonzal Fontaneda eta Pako Eizagirre. «Manuel Iradier» elkartearen babesean ari dira. Horietarik gehienak gaurko AEKn ari dira eta, batzuek, zuzendaritza osatzen dute.

Urte batzuk geroago, talde berri bat sortuko da Euskaltzaindiaren babesean, Henrike Knorren inguruan. Maite Mendiburu, Imanol Leturiondo, Kepa Mendia... dira. (...) 1977ko udan, Araban hasten da lanean ordurako beste herrialdeetan lanean ari zen Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea. 38 lagunek osatzen dute irakasle elkarte Araban».

Andoni Urrestarazu. Peli Presa. Izen eta irakasle mordoxka, eta Kepa Mendia eta Juanjo Uranga berriemaile. *Jakin*-en ale eder berean, hainbat abiapuntu euskarak Araban izan duen historia idazten hasteko.

«Errak lau!»

Josu Zubiaur ari da *Jakin*-en. «Arabako ikastolen bilakaera» du izena haren lanak. Hiru aroren berri ematen du. Lehen aroa, 1967-71, Olabide Ikastola. Bigarren aroa, 1971-1976. Zazpi dira ikastolak herrialdean: Laudion, Aramaion, Agurainen, eta Olabide, Durana, Ali eta Umandi Gasteizen. Hirugarren aroa, 1977tik hona datorrena. Zubiaurri irakurri diogu: «Arabako Ikastolen Elkarteak ikastolak ezartzeari ekiten dio probintzia osoan, argi eta garbi, baita urte batzuk lehenago euskarazko irakaskuntza eskatzea pentsaezina zen eskualdeetan ere».

«Diputazioko buru Kaietano Ezkerrak Ikastolen Elkarte ezagutu zuen ofizialki. (...) Diputazioak, Euskararen Zerbitzukoak ziren ikastolak bultzatu eta indartu zituen, [Abendaño, Arantzabela, Barrutia, Ikasbidea, Umandi, batetik, eta, bestetik, Ikastolen Elkarteak sortu nahi zituenak lagundu

zituen. Ikastola berriak ireki zituzten Amurrion, Araian eta Dulantzin, Langraizen eta Abetxukon, eta Legution».

Eta ikastolen ugaritzeari dagokionez, sententzia Josu Zubiaurrek: «Baina, batez ere, [ireki diren ikastola guztien artean], bi dira aipagarrienak: Kanpezuak eta Oiongoa, Arabako Errioxan biak. Horrenbestez, ikastola ezarria gelditzen da Arabako haran guztietan».

Zubiaurrek ezin jakin Lapuebla Labarkan, Lantziegon eta Bastidan ere irekiko zituztela ikastolak. Eta euskarazko gelak Mainuetan eta Billarren... Eta, Argantzunen.

Eta euskararen irakaskuntza, eta euskarazkoa, Araba osora iritsiko zela Euskararen Normalizazio Legea eta hezkuntza elebidunaren bitartez...

Dena dela, eragileen izenik ez digu Josu Zubiaurrek ematen, Kaietano Ezkerra ahaldun nagusi hura aipatu ezik. Izaskun Arrueren hitzak beti burrunban nire buruan:

«Guraso batzuk hasi ziren hemen lanean. Ni ez nintzen hasi, esanez: "Ikastola irekiko dut Gasteizen". Guraso haiek euskaraz ez zekiten, baina beren umeez euskaraz jakitea nahi zuten. Guraso haiek izan ziren fundatzaile, haiek».

Guraso haiek, eta eragile zenbait, Joxe Mari Rekarte, Ramon Basaras eta irakasle eta andereño andana handia. 1980-81ean Errezilen eta Urrestillan ikasitakoak, edo ondoko ikasturtean euskarazko tituluaz jabetzeko ikastaroa, larunbatetan egin zena Gasteizko Irakasle Eskolan. Eusebio Osa, Iñaki Elustondo, honen anaia eta Patxi Marigorta ziren irakasleetan

«Errak bost!»

1979an, EAEko Estatutuak euskara hizkuntza ofizial izendatu zuen, gaztelaniarekin batera.

1982an, Euskararen Erabilera Normalizatzeko Oinarrizko Legea onartu zuen Legebiltzarrak.

80ko hamarkadan badira ikastolak, badira helduentzako euskara eskolak, bada –ikastolaz kanpo ere eta estatutu eta legeen babesean–, euskararen

irakaskuntza derrigorrezkoa gure hezkuntza-sisteman... Horrek, ageriko denez, fruituak eman zituen eta hortik, 90eko hamarkadaren amaieran, Koldo Zuazo irakasleari adierazgarria iruditzea 1998-99 ikasturtean, hiru urteko haurren aurrematrikulazioaren datuak Araban: A eredia, % 22.7. B, % 43.1. D, % 34.2.

Gatozen oraingo Arabara. 2011koak dira aurrematrikulazio datuak: «2.653 ikaslek eman dute izena denera, eta haietatik 1.514k aukeratu dute euskarazko eredia. Ikasleen %57ren irakats eredia izango da, beraz, D eredia. B ereduak gora egin du zerbait, eta A ereduak, behera, nabarmenago –73 ikasle, aurreko ikasturtean–. Araban, ehunetik hiru ikasle berrik ere ez dute gaztelania hutsezko ereduaren alde egiten. D eredia iaz baino are nabarmenago gailendu da herrialdean, eta kontu berria da hori: orain bi urte arte, B eredia aukeratzen zuten hezkuntza sisteman sartzen ziren gehienak».

Gurasoak, fundatzaile, kanpaina guztiak lagun.

«Errak sei!»

1999an, zioen Koldo Zuazok:

«Helduentzako alfabetatze-euskalduntze eskolak ere Araba osoan hedatu dira. Sare nagusi bi daude Araban, AEK eta IKA». 3.805 ikasle, 98-99 ikastaroan, Zuazo ari zenean. Egun, 4.571 ikasle dira euskaltegietan, eta 319, berriz, autoikaskuntza-zentroetan.

AEKk sei euskaltegi ditu: Agurainen, Amurrión, Gasteizen (hiru) eta Laudion. Euskaltegi horien bidez ondoko herrietan ere ematen dituzte klaseak: Arespalditzan, Argantzunen, Artziniegan, Asparrenan, Dulantzín, Luiaondón, Okondón, Trebiñun, Urkabustaizen, Zigoitian eta Zuian.

IKAk hiru euskaltegi ditu, hiruak Gasteizen. Euskaltegi hauen bidez Duranan eta Kuartangon ematen dituzte eskolak.

Euskaltegi horiez gain Gasteizen beste lau zentro daude (Hegoalde eta Udaberria euskaltegiak, Bai&By eta Mondragon Lingua). Araban, gainera, udal-euskaltegi bana Laudion eta Oionen. Oiongoak eskolak ematen ditu Bastidan, Guardian eta Lapuebla Labarkan.

«Errak zazpi!»

Herri-ekimenari loturik, bestelako gizarte mugimendu bat jomugan har-
turik, honela esango du Zuazok:

«Arabán ere badira Euskara Elkarteak: *Baietz* Agurainen, Aspiltza Amu-
rrión, *Euskara Añanan mingainean* Añanan eta Koartangon, Asparrengo
Euskara Taldea Araian, *Bagare*, Euskal Herrian Euskaraz, Euskeraz bizi,
Euskharan eta Geu Gasteiz hiriburuan, Laudioko *Basalarrina*, eta Ttiki-
Ttaka Lapuebla Labarkan. Denetan ezagunena eta indartsuena Geu Gasteiz
da, eta beronek plazaratzen du elkartearen izen bera duen euskara hutsezko
aldizkaria. (...) Euskara hutsezkoa da, era berean, Ttiki-Ttaka Elkarteak
urtean birritan ateratzen duen aldizkaria, non eta Lapuebla Labarkan».

Euskara taldeak Araban gaur egun ere ez dira gutxi. Oraingoan, antola-
tzen dituzten euskararen aste edo egunak non eta non egiten diren begira
jarri gara, eta zerrenda osatu. Aiara, Okondo, Artziniega, Zuiako Koadrila,
Zigoitia, Zuia, Urkabustaiz, Aramaio, Legutio, Barrundia, Asparrena, Agu-
rain, Zaldondo, Dulantzi, Argote, Añana, Kuartango, Iekora...

Joan den azaroan, *Berria* egunkariak Gipuzkoako bertsolari-txapelketa-
ren harira zekarren puntura joan zitzaidan ihesi begia, joan belarria: «Ezin
bizi gintezke, aterkirik gabe...»

Non da Arabako euskara taldeak biltzen dituen aterkia?

«Errak zortzi!»

Ezin bizi gintezke, aterkirik gabe...

Txosten bat dut esku artean. *Arabako Bertsolaritzaren egoera 2011*. Eta
dio: «Arabán, Aramaio inguruan salbu, apenas ezagutzen da bertsolaritzak
inolako historiarik izan duenik XX. mende bukaera arte. Euskara ia erabat
galdu zen eta berarekin batera Arabako euskararen eta euskarazko ahozko
kulturaren historia ilunpean geratu ziren. Baina 80ko hamarkadan euska-
raren berreskurapen prozesua eta bertsolaritzaren prestigio mailari esker
bertsolaritza Arabako lurraldean hedatzen hasi zen eta, horrela, 1982an
Aiarako eta Gasteizko bertso-eskolak sortu ziren.

Arabako Bertsozale Elkartea 1993ko maiatzean sortu zen eta lanerako egiturak finkatu ziren. Ondorengo urteetan batez ere, hezkuntza eta bertso eskoletan egin dira ahaleginak».

«Errak bederatzil!»

Liburu bat, 2002koa, euskarak Araban egin duen historia biltzen duena. *Arabako Euskal Hotsak*. Estitxu Breñas eta Jabi Otsoa de Alda dira egile. Henrike Knorrek behin eta berriz eta askotan esana irakurri dugu bertan. Alegia, euskarari dagokionean, Araba aitzindari izan dugula zenbait gauzatan: «Lehen hiztegia, lehen antzezlan, lehen almanaka, Kixoteren lehen itzulpen osoa, Fisika eta Kimikako lehen liburuak, lehen komikia...» Euskararen iraganari begiratu ikusgarria, etorkizunari begirako aldarria, ondoan irakurri dugunez:

«Euskara haziz Araban.

Gaur egun, zorionez, euskarak Araban bizia du, eta egunik egun gora doa ehunka haur, gazte, eta euskalduntzen ari diren helduren ahotan. Baita egunetik egunera aberatsagoa eta anitzagoa den literatur ekoizpenean ere (...) Arabarron ia %25ek euskara-gaztelania elebitasuna erabiltzen dugu. Oinarri garrantzizkoa da, ziurrenik handituz joango dena, une batean edo bestean euskaraz komunikatzea hautatzen duenak bere burua inguru natural batean sentitzeko. (...) euskara ezagutzen duten pertsonak zenbat eta gehiago izan, orduan eta errazagoa eta erosoagoa gertatuko zaio euskara hautatu duenari naturalki hitz egitea. Antza denez, bide horretan gaude. (...) Milurteko berri honetan inor ez da harritzen Gasteizko eta Arabako gazteei euskaraz mintzatu eta erantzuna euskaraz ere jasotzea...»

«Errak hamar!»

«Euskararen egoera aztertzen denean, euskal hiztunek zenbat (eta zein maiztasunez) erabiltzen duten euskara izan ohi da kezka nagusia. Inork gutxik jarriko du zalantzan euskararen ezagutzan urrats nabarmenak egin direla, baina euskararen erabilerari buruz dagoen iritzia oso bestelakoa da».

Iritzia besterik ez ote da?

«Egoera argitze aldera, komenigarria da hizkuntzaren erabileran eragiten duten faktore nagusiak zein diren ezagutzea. Hizkuntza bat erabiltzeko

hainbat faktore egon daitezke, baina bi dira nagusi: erraztasuna, hau da, hiztunak hizkuntza hori zailtasunik gabe erabiltzeko gaitasuna, eta harreman-sarea, hau da, hiztunak norekin hitz egin izatea. Horrek ez du esan nahi bi baldintza horiek betez gero hizkuntzaren erabilera ziurtatua dagoenik, baina bai bi baldintza horiek gabe hiztunak nekez erabiliko duela hizkuntza».

Eta hau eta hura, eta irudi bat, «Euskararen erabilera lurraldeka. EAE. 2006 (%)». Arabari dagozkion datuak, «euskara erdara beste edo gehiago» erabiltzen du %3.4k; «euskara erdara baino gutxiago», %7.3k; «erdara bakarrik, %89.3k. Mapan, Trebiño zuriz jantzia. Bertan hasi zen iaz Korrika. Galdetu Roberto Gonzalez Viñasprei...

«Errak hamaika!»

Arabako herri-ekimenaren lana euskararen normalizaziora bidean. Eta bagoaz, eta bagabiltza, baina ez gara denok batera ari, ez norabide berean. Diru murrizketak heldu dira, ekarri ditu dena delako krisiak. 49 milioi euro dituzte Hizkuntza Politikarako 2012 honetan. Horixe bera, baina bestela irakurri genuen iaz egunkarian: «Urgellek hiru milioi euro gutxiago emango du hizkuntz politikarako». Herri Lan eta Etxebizitza Sailak, aldiz, «iaz baino hirurogeita hamabost milioi euro gehiago izango ditu AHTa eraikitzeko». Iñaki Arriola sailburuaren hitzak orduko hartan: «Euskadi iraunkorragoa eta lehiakorra izatea nahi dugu».

Ez alferrik, bizikletan gabiltza euskaraz, gaztelaniaz abiadura handiko trenean dabiltzanean.

Horra, jakin dugu zertan den ditzosozko «normalizazioa». Diru murrizketak heldu dira. Hezkuntza hirueleduna heldu da. Ikasgaien erdiak euskaraz ikastea nahikoa izango da euskara mailarik frogatu behar ez izateko. Olabide ikastolan ikasia da Laura Garrido. Non ikasi zuten Araban agintari ditugunak? Baskonia – Caja Laboral. Liquidación. Liquidación total. Liquidación total por jubilación. Análisis. Ferretería. Persianas. Taberna. Electricidad. El número marcado no existe. Inténtelo otra vez. ETA no - ETA ez. donde el verde es capital bertan berdea nagusi where the green is capital.

Arabako herri-ekimenaren lana, euskararen normalizaziora bidean... 1967an, 2067an. Euskarari guztiz bizkar emanda bizi dira. «Euskararen kontrakoez egina dute euskara suntsitzeko plangintza». Sagarario Alemanek esan zidan orain hiruzpalau urte elkarrizketan. Huraxe izan zen titularra. Nafarroatik ari zen, Nafarroaz, baina gurean, hizkuntza politikarik ez egi-teak hizkuntza hiltzeko politika egitea dakar.

«Errak hamabi!»

Koldo Zuazok dio: «Arabaren iraganarekin alderatu behar da Arabaren oraina. Euskararen Herriari bizkarra erakutsita ibili da mende luzeetan Araba. XVI. mendean geratu ibili da horrela. Eta une honetan, berriz, 40.479 arabar daude Euskararen Herri horretan, eta beste 54.366 arabar ere Euskararen Herri horretarantz doaz urratsez urrats. Horixe da kontuan izan behar dena, eta horretantxe datza arabarren meritua. Eta arabarrek eurek ez ezik, arabarrak ez diren gainerako euskaldunek ere oso kontuan izan beharko lukete Arabako lana eta ahalegina».

2006ko datuen arabera, 72.248 dira elebidunak Araban, (%25.0); 51.519 (%17.8) elebidun hartzaileak –«Euskararen Herri horretarantz doazenak», Zuazorekin batera esatera–, eta 185.759 (%57.3) erdaldun elebakarrak.

Hiztun asko euskarak, erabilera bila. Euskarak bakarrik balitu hiztunak!

Askoz ere hiztun gehiago, ugaltze etengabea, gaztelaniak.

«Errak hamahiru!»

Hamahirugarrenik ez dago
Oilarrak kantatzen du munduan
Aingeruak zeruan
Jesu Kristori ipintzen diogu
Gure arima eskuan.

Euskararen inguruko diskurtso berria Arabarako: gogoeta eta proposamena

**Un nuevo discurso en relación al euskera en Álava:
reflexión y propuesta**

**Un nouveau discours à propos de la langue basque
en Alava: réflexion et proposition**

**New points of view about basque in Araba:
reflections and proposals**

MARTÍNEZ DE LUNA, Iñaki
Euskal Herriko Unibertsitatea
i.martinezdeluna@ehu.es

Sarrera data: 2012-02-21

Onartze data: 2012-07-16

Euskera. 2011, 56, 3. 589-652. Bilbo
ISSN 0210-1564

Euskarak aurrera egingo badu gizartearen babesarekin izango da, orain arte izan dituen babesguneak sendotuz eta uzkur izan zaizkion sektoreak ere bereganatuz, bereziki Araban. Horretarako euskararen inguruko diskurtso berri eta egokia eraikitzea ezinbestekoa da, oraindik indarrean dagoen diskurtsoaren mugak gainditu ahal izateko. Besteak beste *Hizkuntzen Ekologiak* oinarri sendoak eskaintzen ditu asmo hori aurrera eramateko, baina egungo planteamenduetatik ere badago zer gorde eta erabili.

Hitz-gakoak: Euskara, hizkuntzen ekologia, Araba.

Resumen: Si el euskera ha de avanzar, será gracias al apoyo social. Reforzando su presencia en áreas donde se ha mostrado históricamente fuerte, y a su vez, insertándose en aquellos sectores no muy propicios hasta la fecha, sobre todo en Álava. Para ello, es necesario construir un nuevo y adecuado discurso, que supere los límites del actual discurso. *Hizkuntzen Ekologiak* nos ofrece una buena base para llevar a cabo este deseo, pero reconociendo a su vez la validez de ciertos aspectos de los planteamientos actuales.

Palabras clave: Euskera, ecología de las lenguas, Álava.

Si la langue basque doit progresser ce sera grâce à une volonté sociale, en renforçant sa présence dans des zones où historiquement elle s'est toujours montré forte mais également en investissant des secteurs jusque là peu propices, surtout en Alava. Il est pour cela nécessaire d'élaborer un discours neuf et adéquat, qui dépasse les limites du discours actuel. L'écologie des langues nous offre une bonne base pour mener à bien ce souhait tout en reconnaissant la validité d'une partie des discours actuels.

Mots-clés : Langue basque, écologie des langues, Alava.

If Basque is to progress, it will be with the support of society, through the consolidation of the spheres of protection it has had so far, and by attracting the sectors that have resisted it, in Araba (Alava), in particular. For this purpose, it is crucial to build a fresh, appropriate discourse around Basque to be able to overcome the limits of the discourse in force until now. Among other things, *Language Ecology* offers firm bases for taking this project forward, but there are things that can be preserved and used from today's approaches.

Keywords: Basque, language ecology, Araba (Alava).

1. Aurrekariak

Beste lan batean¹ idatzi genuen, XX. mendeko 80-90 hamarkadetatik aurrera EAEko gizartean zegoen euskarekiko lilura –*Framing Aldarrikatzai-leak* bultzatua– lurruntzen hasia zela, batez ere abertzaletasunaz kanpoko sektoreetan, eta hizkuntza horren aldeko jarrera eta atxikimendua zalan-tzan jartzen hasiak zirela.

Giro hori baliatuta, euskararen errealitatearen hautematea eta irudika-tea gidatzen eta bideratzen zituen egitura kognitibo (*framing*) jakin bat garatu zuten nortasun espainiarduneko zenbait sektore sozialek eta senti-sibilitate identitario bereko alderdiek. *Framing Uzkur*² horren baitan euska-raren aldeko hizkuntza-politikari kutsu politizatua eta ideologikoa zein era-bilera partidista leporatu zaizkio. (Martínez de Luna, 2010: 53-57)

Ingurune horretan, «EAE n 16 urte edo gehiagoko hiru lagunetik bi (%64,7) euskararen erabilera sustatzearen alde» dauden arren (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008: 221), aldekotasun zabal horrek funts ahula du. Izan ere, suspertze horretan ezinbestekoak diren neurriak zehatz-mehatz aipa-tzen hasi bezain pronto, zalantzak eta kontrako jarrerak agertzen dira euskal gizartearen hainbat sektoretan. Hori ohikoagoa da erdaldunen artean, euskararen mundutik kanpo izateak hizkuntza horrekiko jarrera kritikoa edo uzkurra hartzea errazten baitie. Amorrortu eta Ortega *Bai-bainako* deitzen duten jende-multzoa bete-betean sartzen da esandako *Framing Uzkur* ho-rretan: «*Bai-bainakoek, euskararen eta bere aldeko politikaren kontra egon gabe, azken horri mugak ipintzen dizkiote eta jarrera epela, konplexua eta batzuetan kontraesankorra dute.*» (Amorrortu eta Ortega, 2011: 4) Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreñaren arabera, *Bai-Bainako* erdaldun horiek adierazten duten euskararekiko aldekotasuna azalekoa baino ez da: «*Hor amaitzen da aldekotasuna, izan ere EAEko erdaldunen lautik hiruk (%75) bat egiten dute hainbat kritiketari.*» (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 302)

¹ Martínez de Luna, I. (2010). Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharrianetara. *Bat Soziolinguística aldizkaria* 76 (53-67).

² Arestian aipatutako lan hartan *Framing Herabe* izendatu genuen bera da orain *Framing Uzkur* birbataiatu duguna, egokiagoa delakoan.

Pentsatzekoa da euskaldunen artean hedatuak dauden euskararen inguruko iritziak erdaldunenak baino baikorragoak edo aldekoagoak direla, betiere erdaldunen artean euskaltzale sutsuak egon badaudela ahaztu gabe. Dena den, pisu demografikoaren arabera euskaldunak gutxiengoa dira askogatik euskal gizartean, eta, beraz, erdaldun askok partekatzen duten hizkuntza-politikaren interpretazioak pisu erlatibo handia du gizartean.

Hortaz, nagusiki bi *framing* ezberdin eta kontrajarri aurkitzen ditugu gaur egun, EAEn, arestian aipatutako lanean azaltzen zen bezala:

- a) *Framing Aldarrikatzailea*, abertzaletasunaren magalean aspaldian sortua da eta, egokitzapen batzuk tartean, gaur arte iraun du. Horren arabera, euskara bertako zinezko hizkuntza bakarra eta euskal izaeraren ardatza da; aldiz, erdara biak –gaztelania zein frantsesa– hizkuntza arrotz eta inposatuak dira. Euskara egoera gutxituan dagoenez, interbentzio eraginkorraren eta neurri babesgarrien premia du –diskriminazio positiboa, alegia–, halakorik aplikatu ezean, desagertzeko zorian baitago. Gizarte osoa euskalduntzea da diskurtso mota honen jomuga, batzuek euskara gustukoa izan ala ez. Ikuspegi hori, euskal kulturaren eta euskalgintzaren sektore gehienetan jaun eta jabe da.
- b) *Framing Uzkurra*: euskarak biziraun dezan interbentzioa eta neurriak hartzea beharrezkoa dela ez badu ukatzen ere, halakoak proposatzean edota aplikatzean berehala arbuiatzen ditu, inposiziotzat edo diskriminaziotzat joz eta erdaldunen hizkuntza-eskubideen kontrakoak direla argudiatuz. Gehienbat nortasun espainiardun herritarrengan nagusitzen da, baina diskurtso horren ale batzuk euskaltzaleak diren edota sentimendu abertzalea dutenengana ere hedatu dira. Oro har, euskararekin kezka handirik ez dago, eta kasu batzuetan aurkako jarrera ezkututzen da. Horregatik, hizkuntza-liberalismoa defendatzen du –nahi duenak euskara ikasi edota erabil dezan–, hori posible egiteko erakunde publikoen interbentzioa eta diskriminazio positiboa ezinbestekoak direla zalantzan jarriz edo errefusatuz.³

³ *Framing Uzkurra* berrelikatzen da Estatuko hainbat komunikabide eta iritziemaileren bitartez ere; hona hemen adibide bat: «Y mientras los nacionalistas catalanes avanzan en la imposición de la

Bi *framing* horiek gidatu dute ukipen egoeran dauden hizkuntzen –euskararen eta erdararen– arteko harremana, *hizkuntza-nazionalismoaren* eske-matik abiatuta, Moreno Cabrera-k argi uzten duen bezala (Moreno Cabrera, 2008); alegia, *nazio bat / estatu bat / hizkuntza bat* hirukotea ardatz hartuta. Horregatik, elkarren kontra aritzen diren *framingak* dira eta begi bistakoa da zein zaila zaien biei oinarri-oinarrizko adostasun puntu batera iristea:

Adostasun-maila bat lortzeko [ikerketako eztabaida-taldeetan egin-dako] saiakerak ez du fruitu askorik eman, euskararen aldeko printzipio orokorren adierazpen bat edo oso orokorrean egin diren balorazio positiboak izan ezik. (Amorrortu et al., 2009: 302)

Bistan da, halaber, bi *framing* kontrajarri horiek gizarte berean eta une berean agertzea ez dela baldintzarik egokiena hizkuntza-politika eraginkorra aurrera eraman ahal izateko. Izan ere, edozein hizkuntzak duen bermerik handiena txertatuta dagoen komunitatearen babeseta eta atxikimendua da; ez, ordea, sektore kontrajarriek sortzen duten testuinguru gatazkatsua. Horregatik, euskarak euskal gizarte osoaren laguntza *behar* du, ez soilik sektore euskaltzalearena edo euskaldunarena.

Egia da euskal iritzi publikoaren beste zati handi bat bi *Framing* mota horien artean kokatzen dela; gizartearen multzo zabala –EAEen zabalena dena, seguru asko–, zeinak pasiboki bada ere –arestian aipatu bezala– euskara onartzen duen (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008: 221). Izan ere, EAEko gizartean euskarari leku berezia aitortzen dioten ideiek (adibidez: «*niretzat euskara da euskal herritarren berezko hizkuntza*») pisu handiagoa dute (%54) leku berezirik aitortzen ez dioten tankerakoek (adibidez: «*Niretzat, euskara euskal herritarren hizkuntzetako bat da, ez euskal herritarren hiz-*

lengua regional, los vascos se lamentan por no poder imponer su idioma a los funcionarios. El lehendakari, Patxi López, ha decidido no exigir el vascuence en las próximas oposiciones. Se tendrá en cuenta positivamente, pero no será imprescindible el conocimiento de euskera. El PNV se ha mostrado muy disgustado y ha aludido a los tiempos de Franco. También han comentado que supone <impedir una plena normalización lingüística, rompiendo, así, un consenso social y político que duraba más de 30 años>. (...) Exigir un elevado conocimiento es casi equivalente a pedir que el solicitante sea nacionalista, puesto que la mayoría de los vascos hablan lo son.» (Giménez, 2011-08-19)

kuntza bakarra») baino (%34) (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 9). Hala ere, gizaratearen erdiko kokagune horretan badaude esandako bi *framing* horien azarnak; batzuetan nahasian. Adibidez, euskararen aldeko jaietara joan ohi den pertsonak berak bere haserrea adieraz dezake lanpostu publiko batera aurkeztu den seme/alabari euskarazko nahikotasunik duen frogatzea eskatu diotelako. Horregatik, euskal gizarteko multzo zabal bateko jarrera epel hori zaurgarri edo kaltebera izan liteke *Framing Uzku*raren erasoaren aurrean eta, horren ondorioz, diskurtso horren multzorantz erraz lerratu.

Hizpide ditugun bi *frame* horien ikuspuntuak jasota daude nolabait Euskadiko Autonomia Erkidegoko legedian. Zehatzago, *Euskararen erabilera normalizatzeko Legeak*⁴ horrela dio, bere 5. eta 4. artikuluetan:

- Euskal Herriko herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz.
- Herri-aginteek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte..

Bi asmo horiek zilegiak eta, banan-banan hartuta, desiragarriak izanik, gakoa da horiek biak nola ekarri planteamendu bakar batera; adibidez, euskaldunek duten euskara erabiltzeko eskubidea ez da besterik gabe ezkon-tzen jendaurreko lanpostuetara aurkezten diren hautagai erdaldunak ez diskriminatzearekin. Legearen artikulua horietatik aipatu dugun lehenengoak *Framing Aldarrikatzailearen* ikuspuntua babestuko luke; bigarrenak, aldiz, *Framing Uzku*rarena.

Horregatik, euskararen gaineko hizkuntza-politika eraginkor batek aurrera egingo badu eta, horrek lagunduta, euskara biziberrituko bada, euskal gizaratearen gehiengo zabalak dituen hautemate eta ulertzeko bi modu kontrajarri horiek gairatu beharko dira. Horrela baino ez da posible izango sortzea hizkuntza normalizatu ahal izateko behar den aldeko giro orokortua.

⁴ 1982ko azaroaren 24ko 10/1982 Legea, *Euskeraren Erabilpena Arautzezkoa* (1982-12-16ko EHAako 160. zk.).

Horregatik, hasieran aipatutako beste idazlan hartan honako eginkizun hau aipatzen zen: «iritzi publikoak duen euskararen hautematea eta irudikapena aldarazteko eta aldekoagoa bihurtzeko bide batzuk proposatzea.» (Martínez de Luna, 2010: 54) Iritsi zaigu, hain zuzen, erronka horri aurre egiteko unea; alegia, *Framing Berrirako* lehenengo pausoak ematen hasteko unea, ahalegin horren bidez sentsibilitate eta jarrera ezberdinek edota kontrajarriek bat egin dezaten laguntzeko asmoz. Hori bai, euskara normaltzeko antzua litzatekeen *onkeria* inozoaren arriskuaz ongi jabetuta abiatu behar dugu ibilbide horretan.

2. Framing Berria lantzeko premia

Hasteko, ongi jabetu behar da *Framing Berria* sortzeak duen garrantziaz, izan ere, Canel eta Sanders-ek (2005) esan bezala, egiten den gertaeren edo egoeraren interpretazioa (*framinga*) hiru modutan erabil daiteke errealitatea sortzeko: a) iraganaren zein etorkizunaren ulermena eraikitzeko; b) agenda finkatzeko; c) jendea jarduerara bultzatzeko.

2.1. Aurkakotasuna gainditu beharra

Bestalde, euskararen geroari buruzko hausnarketa eginez, EAERI dagozkion hiru puntu jasotzen ditu Patxi Baztarrikak, benetan gogoan eduki beharrekoak: lehenbizikoa, «adostasun sozial eta politiko zabala»; bigarrena, «hizkuntza-politika eraginkorra, zilegia eta sustatzailea»; hirugarrena, «aurrekoarekin loturik, gizartearen eta herritarren borondatea». (Baztarrika, 2010: 82-83) Ados, baina hizkuntza-politika eraginkorra, zilegia eta sustatzailea abian jarri ahal izateko, aurretik beste bi pauso horiek eman beharko dira: *euskararen inguruan adostasun zabala ehuntzea eta gizartearen borondatea eskuratzea*, hain zuzen. Adostasun eta borondate horiek erdiestea ezinezkoa da egungo *Framing Aldarrikaitzailea* euskararen komunikaziorako oinarri hartuta, eta hortxe sortzen da *Framing Berri* baten premia.

Izan ere, gaur egun *Framing Aldarrikatzailetik* begiratzuz erraza da *Framing Uzkuraren* ajeak salatzea. Esan liteke, adibidez, ele zuri dariola edo itxura-

keriatan dabilela eta haren hitzen atzean euskararen aldeko bene-benetako konpromisorik ez dagoela:

Hitzetik hortzera dabiltza, han eta hemen, tolerantziaren eta pluraltasunaren aldeko hitz arranditsuak pertsona elebakarren artean. Onik one-nean, tolerantziaren eta diferentziaren aldeko politika horren emaitza jendeak «bere etxean» berezko hizkuntzan berba egiteko aukera eduki-tzean datza. (Odriozola, 2011: 63)

Informazio enpirikoak berresten du Odriozolaren salaketa hori; alegia, *Framing Uzkur*rean bete-betean kokatzen diren gizarte sektore batzuen us-tezko aldekotasunaren atzean ezkutatzen den benetako epelkeria. Adibidez, Donostiako gazteekin egindako ikerketa baten emaitzetatik hurrengo on-doriora iristen zen:

Kontrako eta Indiferentzia diskurtsoak dituztenek inplikazio praktiko-rik ez dute nabarmendu; ez gazte bezala, ez etorkizuneko guraso bezala. Euskara ez da galdu behar baina beste batzuen -ez norberaren- inplika-zioaren bidez salbu egongo da. (Jausoro, Martínez de Luna eta Dávila, 1998: 80)

Baina, aldi berean, baliteke ere *Framing Aldarrikaitzaileak* behar bezain ongi ez ezagutzea *Framing Uzkur*rak dituen sakoneko eta zinezko arrazoiak eta, horren ondorioz, planteamendu hori sasi-arrazoibidetzat jotzea. Dena den, *Framing Uzkur*ren argudioak hutsalak edo zurrumurru hutsak balira ere, sinesgarria izan daitezke eta, horren ondorioz, jendearengan eragin. Horregatik argudio horiek ongi ezagutu eta aztertu behar dira, bestela ezi-nezkoa litzateke euskararen inguruko balizko faltsukeriei aurre egitea.


Bestalde, pentsatu beharko da ere *Framing Aldarrikaitzaileak* duen utopia ez ote den *Framing Uzkur*ren asimilazio hutsa; hau da, azken horrek bere planteamenduak baztertu eta *Framing Aldarrikaitzailearekin* bat egin dezala; hots, *etsaiaren fede-aldaketa* lortzea. Horrela balitz, jai du *Framing Aldarrikai-tzaileak* beste ideia horiek gainditzeko ahaleginetan, gizatalde ahulak –eus-kaltzaleak– ezarpena baliatuz sektore boteretsuaren sinesmenak aldarazteko duen aukera (ia) hutsaren hurrengoa delako. Horregatik, beste estrategia bati ekin beharko zaio euskararen inguruan duda-mudatan dauden gizarte sektore horiek hizkuntza ahularen defentsara bildu daitezen.

2.2. Arabako hizkuntzen iritziak eta jarrerak

Euskararen inguruko *Framing Uzkurra* sendotu eta hedatu da EAEn azken hamarkadetan eta, horregatik, zentzuduna da pentsatzea Araban nagusitzen den interpretazio eta ikuspuntua hori bera dela: baldintza soziolinguistikoak zein atxikimendu ideologikoak eta alderdikoiak Gipuzkoan eta Bizkaian baino egokiagoak dira *framing* mota hori heda dadin.

Adibidez, 2011ko Biltzar Nagusietako hauteskunde emaitzei erreparatuta begi bistan gelditzen da Arabako gizartean dauden *Framing Aldarrikatzaile* eta *Framing Uzkurra*ren balizko oinarri sozialek tamaina berdintsua dutela (2. irudia).


2. irudia. *Framing Aldarrikatzaile* eta *Framing Uzkurra*ren oinarri elektoralak



Egia da hauteskunderaz hauteskunde proportzio horiek zerbait aldatzen direla, baina funtsean emaitza horietatik atera daitekeen ondorioak bere horretan dirau: Arabako gizartean oso zaila litzateke bi *framing*etako bat –edozein– erabat nagusitzea.

Ikus ditzagun 2006ko beste datu batzuk (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2008: 65), Araban dauden euskara sustatzearen aldeko jarreraren berri ematen digutenak, hain zuzen (3. irudia).

3. irudia. Euskara sustatzearen aldeko jarrerak (2006)



Euskararen erabilera sustatzearen inguruko datu horiek esanguratsutzat jo daitezke. Izan ere, ia biztanleriaren erdia (%47) halako neurrien alde agertzen bada ere, beste laurden bat (%22) horien kontra dago, inolako ezberrik gabe. Hortaz, aldekotasuna egon badagoela adierazten duen kopurua bezain garbia da inongo zalantzarik gabe kontrako jarrera adierazten dutenena. Araban aurka agertzen direnen proportzio hori, gainera, Bizkaian (%12) edo Gipuzkoan (%6) aitortzen direnak baino handiagoa da. Bestalde, ezin da inolaz ere ahaztu ezeren alde egiten ez dutenen beste herena (%30), zeina, balizko hizkuntza-gatazka bat piztuz gero, errazago lerratuko litzateke neurriak hartzearen kontra dauden multzora –*Framing Uzkurrrera*– alde daudenenera –*Framing Aldarrikatzailea*– baino. Hortaz, Araban badago eskaera euskararen erabilera sustatua izan dadin, baina horren aurkako erresistentzia ere bai.

Informazio horrek, gainera, bi *framingen* arteko auzia eraikitzen duen he-
sia erakusten du, izan ere, euskararen inguruko oinarritzko adostasun batetik
aurrera, argi dago hizkuntza hori suspertzeko neurrien inguruan ez dagoela
bat egiterik. Horregatik, informazio horren argira uler daiteke zein zaila izan
daitekeen, bereziki Araban, *Framing Uzkuraren* gaintik euskararen bul-
tzadan arrakasta izatea. Horregatik, jarrera hori geldiarazi eta, ahal izanez
gero, birbideratzeko baldintza berri batzuk sortu beharko dira, besteak bes-
te hizkuntzen inguruko hautemate eta diskurtsotan.

2.3. Alternatiba bila

Horregatik guztiagatik, euskal gizartean eta, kasu honetan, Arabakoan
dauden planteamendu nagusi biak (*Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing
Uzkurra*) gainditu eta gizartearen gehiengo zabal-zabalak bere egingo duen
Framing Berri bat eraikitzea proposatzen da. Horretarako beharrezkoa da bi
ikuspegi horiek ongi ezagutzea elkar, bi-biek gure hizkuntzen gaineko elkar-
rriketa irekitzea eta hausnarketa egitea.

Horrela baino ez da posible izango ohiko bi hizkuntza-ikuspegi ezberdi-
nen arteko zubia eraikitzea eta, aldi berean, euskararen biziberritzeko bi-
dean bi sentsibilitateak bidaide izan daitezen lortzea; alegia, egungo bi *fra-
ming-en* jarraitzaileek elkarri entzun diezaioten eta elkarlanean has daitezen
lortzea. Halakorik egin ezean, ez da lortuko hizkuntzaren biziraupenerako
behar diren –Baztarririk aipatutako– oinarritzko baldintzak eskuratzea:
«euskararen inguruan adostasun zabalak ehuntzea» eta «gizartearen borondatea
eskuratzea»; ezta, halakorik lortu ezean, «hizkuntza-politika eraginkorra, zile-
gia eta sustatzailea» abian jartzea ere.

Argi dago, beraz, euskara biziberrituko bada, egoera bideratu behar dela.
Baina, euskararen unibertsoa urruti dago eginkizun horri taxuz ekitetik:

*Hartara, non daude euskararen aurka garatzen diren estrategien ibil-
bidea mozteko estrategiak? Nola zatituko ditugu estrategia horien baitan
gizentzen diren jendarte taldeak? Ez daude! Nonbait pentsatzen dugu bo-
rroka bat irabazi daitekeela etsaia ahuldu gabe, etsaiaren oinarri moral eta
filosofikoak zurlatu eta indargabetu gabe. (...)*


Beraz, euskalgintzak taktikak behar ditu, eta bat ere ez du plazaratzen, nik dakidala. Bere komunikazio-lan bakarra egia ideologikoa zabaltzera mugatzen da: euskaldunak gara eta euskaraz jakin/hitz egin behar dugu. Kitto. Mezu edo estrategia hori balekoa da hainbatengana iritsi eta horiek mobilizatzeke, eta oso ondo dago hori, emaitzak ere begi-bistakoak direlako, baina ez du balio denengana iristeko une oro. Taktika soziolinguistikoak behar dira, eta horien arabera komunikazio-estrategiak behar dira. Eta premiazkoa da hori egitea. (Kamio, 2011)

Jakina, Euskal Herriko mugez gaindi ere jabetu dira hizkuntza gutxituen militanteak beren diskurtsoa edo *framing*-a gaurkotzeko beharraz. Katalunian bide horretatik egin dutena aipatzen digu Josep-Anton Fernández-ek:

Aunque la Plataforma per la Llengua ha conseguido un buen número de éxitos en sus más de quince años de existencia, probablemente su proyecto actual de renovación de los discursos a favor del catalán es su contribución más notable. (Fernández, 2011: 3)

Hortaz, euskararen inguruko *framing*aren edo diskurtsoaren berrikuntzari ekarpen bat egin nahirik landu dira hurrengo lerrook. Aurrerakin gisa esan dezagun *Framing Berriaren* proposamena lantzeko osagai ezberdinak erabiliko direla: lehenik, *Hizkuntzen Ekologiaren*, *Berdintasunaren* edota *Iraunkortasunaren* mamia; bigarrenik, *Framing Aldarrikatzailearen* eta *Framing Uzkuraren* oinarritzko balio batzuk; eta, hirugarrenik, *euskara gaurkotzeko egokitzapen* batzuk (1. irudia).

1. irudia. Oraingo egoera eta eragin beharreko egoera berria zein Framing Berrirako osagaiak



3. Framing Aldarrikatzailearen mugak

Esana dugu euskalgintzak euskararen defentsan erabiltzen duen *Framing Aldarrikatzailearen* diskurtsotik kanpora ere bide-zidor berriak arakatu behar direla. Era berean, arestian aipatu da *Framing Uzkurriari* zer-nolako ahulezia leporatzen zaion. Baina egoki izan liteke *Framing Aldarrikatzailearen* mugak zein diren ere zehatz-mehatz aztertzea; hau da, zergatik euskararen defentsa ezin den ikuspegi horretan bakarrik oinarritu.

3.1. Planteamendu identitarioa

Arestian esan bezala, *Framing Aldarrikatzailea* euskal abertzaletasunean dago sustraituta, batez ere, eta haren muina gehienbat «*euskara, euskal na-*

zioaren hizkuntza», «gaztelania eta frantsesa inposatutako hizkuntza arrotzak» eta antzeko leloek osatzen dute. Egia da, espainiar edo frantziar sentitzen diren euskal herritar askoren kasuan badagoela euskararekiko bestelako atxikimendu mota bat; hots, kutsu kultural, etniko edota komunitario hutsezkoa (alegia, ez politikoa): «bertako eta berariazko hizkuntza».... Baina, jatorri etno-kulturaleko planteamendu hori bigarren mailan gelditzen da, jatorri abertzaleko diskurtsoaren indarrak lausotua:

Lengua y nacionalismo se alían y, ahora [1960-1983], el euskera comparece como la frontera que delimita dos comunidades, dos conciencias; como el elemento desde el que se dota de consistencia al nombre de la vasquidad... (...) Desde la lengua se marca el espacio, la historia y también el sujeto modelo de la vasquidad, su hombre normal: el <vascoparlante con conciencia de pertenencia a una comunidad...> (Gatti, 2007: 46-47)

Gaur ere, iragan hurbilean bezala, euskararen biziberritzearen eta normalizazioaren alde egiteko aldarrikapen abertzale hori batzuentzat guztiz balekoa eta nahikoa da. Gainera, abertzaletasunaren ikuspuntutik begiratuta, ulergarria da nazio/hizkuntza binomioaren argudiatze hori erreakzio eta autodefentsa gisa sortu izana, estatu espainiarrak zein frantziarrak haien nazio-estatuen hizkuntza bakarra inposatu dutelako, lekuan lekukoak zokoratu. Azken finean, Phillipson-ek landu zuen *Linguistic Imperialism* delakoaz ari gara (Phillipson, 1992) edota Moreno Cabreraren *Nacionalismo Lingüístico*-az (Moreno Cabrera, 2008)

Hala ere, euskal aberrian oinarritutako *Framing Aldarrikatzaileak* sorrera ulergarria izateak ez du esan nahi duen argudiatze-mota gaur egun egokia denik euskal gizartearen sentsibilitate ezberdinak euskarara bildu ahal izateko, arestian aipatu den gazte donostiarren ikerlanak dioten bezala: «...talde bateko ikur berezia izatea mugatzailea da hizkuntzarentzat talde horrekin identifikatzen ez direnak hizkuntza bera ere alde batera utziko dutelako.» (Jausoro, Martínez de Luna eta Dávila, 1998: 63)

Izan ere, euskararen aldeko aldarrikapen abertzaleak gizarteko hainbat esparrutan euskararentzat lekua irabazteko balio izan badu ere, aldi berean, beste sektoreetan kontrako erreakzioa piztu du. Alegia, abertzale sentitzen ez denari *Framing Aldarrikatzailea* lekutan gelditzen zaio; *framing* horrek ez

du erakargarritasunik euskal herritar ez abertzaleentzat. Aitzitik, kontrako jarrera sortaraz dezake pertsona horrengan, silogismo honen eskutik: *abertzaleek etsaitzat dituzte Espainia (edo Frantzia) zein bere hizkuntza, eta euskara euskal aberriaren benetako hizkuntza bakartzat dute; hortaz, hizkuntza hori Espainia eta Frantziaren aurkako arma da. Beraz, euskara nire identitate nazionalarentzat kaltegarria izan daitekeenez, nik hori gaitzetsi eta gaztelania (edo frantsesa) bultzatu behar dut. Hori bera da, hain zuzen, Framing Uzkkurretik baliatu eta elikatu den Framing Aldarrikatzailearen kontrako argudioa.*

Horregatik, une honetan bestelako ikuspegi etikoei eta ideologikoei erreparatu gabe, euskara biziberritzeko ahaleginetan euskalgintzak ezin du bere burua mugatu *Framing Aldarrikatzailea* erabiltzera, ondoko arrazoi pragmatikoengatik: a) horrekin gizartearen zati handi bat bere planteamenduetara biltzerik ez duelako; b) harreman gatazkatsuetan boteretsuaren logika bera erabiliz gero, boteretsuenak garaile ateratzeko dituen aukerak handiagoak direlako; c) *Framing Aldarrikatzaileari* neurria ongi hartuta, *Framing Uzkkurra* haren aurkako erantzuna arrakastaz bultzatzen eta zabaltzen ari delako.

Hori dela eta, bistan da identitate nazionalaren –abertzaleetasunaren– ize-nean egiten den euskararen aldarriak nortasun mistoan (euskal herritar bezain espainiar sentitzen den horretan) lekurik ez duela. Psikologiatik abiatuta ere, Ferran Suay eta Gemma Sanginés-ek argi uzten dute euskal nazioaren izenean egiten den euskararen defentsarako ohiko diskurtsoa antzua izan daitekeela:

... ja hem vist més amunt que un dels mecanismes d'extinció lingüística més eficients és el d'associar un idioma amb una determinada tendència ideològica. És per això que quan entrem en la trampa d'explicar en termes històrics (la llarga tradició de la cultura basca) o polítics (els irrenunciables drets lingüístics), ingressem en un espai en què –en qualsevol cas– hem perdut la discussió. (Suay eta Sanginés, 2011: 16)

Horren orde, egile horiek beste estrategia batzuk proposatzen dituzte hizkuntza horrekin distantzia edo epelkeria adierazten dutenen jarrera eta interesa aldarazteko: hurbilpen subjektiboak eta, bereziki, sedukzioa.

Baina euskararen izaera identitarioak dakartzan mugak ez dira gorago esandakoarekin agortzen. Hizkuntzek nazionalitateen ikur gisa duten ga-

rrantziak ederki jabetuta, *nazionalismo* eta *nazionismo* kontzeptuak bereizi zituen Fishmanek, Fasold-ek dioskun bezala. Lehenengoa *–nazionalismoa–* nazioari eta horrek duen dimentsio identitateari dago lotuta; bigarrena *–nazionismoa–*, aldiz, gobernuaren edo herri-administrazioaren eginkizun formalei. Horrela, hizkuntzak ere bi multzotan sailka daitezke: *hizkuntza nazionalistak* (edo *nazionalak*) eta *hizkuntza nazionistak*:

Hizkuntza nazionalistek (edo nazionalek) alderdi simbolikoa nabarmentzen dute. Hizkuntza nazionistak (hizkuntza ofizialak), ostera, gobernu-eginkizunak betetzeko erabiltzen diren hizkuntzak dira; zerga-agiriak idazteko, Kongresuan eztabaidatzeko, armada zuzentzeko eta haurrak hezteko, adibidez. (Fasold, 2010: 403)

Egia da bereizketa kontzeptual hori sortua dela botere koloniala jasan duten Afrika zein Asiako herrialdeen egoera ulertzeko, baina, aldeak alde eta egokitzapen batzuk tartean, gurean ere aplikatu daitezke. Horrela, *Framing Aldarrikatzailearentzat hizkuntza nazionala* euskara da eta *hizkuntza nazionista* erdara, alegia, ofizialki ezinbestez jakin eta hainbatetan erabili beharrekoa. *Framing Uzkurarentzat*, aldiz, gaztelania *–edo frantsesa–* da *hizkuntza nazionala* eta euskarak izaera bikoitza du: bata, *hizkuntza erregionala*, Euskal Herria Espainia eta Frantziaren erregiotzat hartzen duelako eta horrela euskarari bigarren mailako kutsu identitarioa ematen dio, betiere hizkuntza nazionalaren azpikoa; horrezaz gain, *Framing Uzkurarentzat* euskara *hizkuntza nazionista* da EAEn zein Nafarroako eremu euskaldunetan, non administrazioaren zenbait ataletan eta hezkuntza sisteman *–ez bizitzako gaintzeko egoeratan–*, neurri batean edo bestean, onartu beharrekoa den. Bat dator, oro har, planteamendu hori Donostiako gazte batzuek *–Framing Uzkuraren koka daitezkeenek–* euskararen inguruan adierazten zuten irudiarekin:

Euskarak bi ezaugarri ditu: bata, Autonomi Erkidegoko «beste hizkuntza» da, hots, lehenengo hizkuntza gaztelania dela; euskara ere bertako hizkuntza da, baina batzuk bakarrik ezagutzen dute. Bigarren ezaugarria, eskolako ikasgaiarena eta onartu beharrekoa bertako hizkuntza delako; euskaldunen ondarea delako.

Halere, ez dago euskararekiko nortasun sentimendu berezirik eta «vasco» izatea ez dago euskarari lotuta; (...) (Jausoro et al., 1998: 55)

Gainera, baliteke, Faseldek dioen bezala, euskara hautemateko modu horiek hizkuntza horren erabileran eta horrekiko atxikimenduan eragitea:

Azken batean, hizkuntza nazionala ez dago erabili beharrik ere, nahikoa da jendearen identitate-ikurra izatea. Hizkuntza ofiziala ez dago zertan maitatu, nahikoa da bere lana betetzen badu, hots, gobernuaren funtzionamendua ahalbidetzea. (Fasold, 2010: 403)

Alegia, euskararen eragile guztien kezka nagusietako bat da, gaur egun, hizkuntza horren erabilerak duen hazkunde apala. Hizkuntza-erabilera gertaera korapilatsua izanik, espero/nahi den baino erabilera apalago horren arrazoiak asko izan daitezke, baina horietako bat *hizkuntza nazionalista* (edo *nazionala*) eta *hizkuntza nazionista* kontzeptuetan koka liteke, Faseldek esandakoa gurean ere betez gero; Donostiako gazteengan badaude aukera horren zantzu garbiak:

Gazte euskaradunek [euskaraz badakitenek] euskararekiko nortasun balioak azpimarratzen dituzte bereziki. Euskararen erabilerarik eza barikatzen dute euskararekiko maitasuna, errespetua, sentimendua baldin badago; zentzu honetan, gazte euskaradunak ez du hizkuntza komunitatea azpimarratzen, atxikimendu komunitatea baizik. Hau, euskararen erabileraren normalkuntzarako oztopo bat izan da, azken finean, euskararen ezagutza eta erabilpena praktikan ez direlako azpimarratzen (nahiz eta horien garrantzia maila ideologikoan onartu), euskararen aldeko sentimendua izatea baizik. (Jausoro et al., 1998: 80)

3.2. Hizkuntzen bortizkeria sinbolikoa

Hala ere, identitatean oinarritutako diskurtsoaren muga horiek ez dira euskararen aldekotasuna gizartean hedatzeko dauden bakarrak; ezta, seguru asko, nagusienak ere. Baliteke beste bat izatea euskararen defentsan aurrki daitezkeen oztopoetatik handiena: euskararen komunitateak berak pairatzen duen *bortizkeria sinbolikoa*. Hots, Pierre Bourdieu soziologo frantziarrak botere-harremanen ondorioz gertatzen den eta kontzeptu horrekin izendatu zuen bortizkeria:

Se trata de una forma <suave> de violencia, <una violencia que se ejerce sobre el agente social con su complicidad> (Bourdieu y Wacquant,

1992: 167). (...) *El lenguaje, los significados, el sistema simbólico de los que están en el poder se imponen al resto de la población.* (Ritzer, 2002: 496)

...*Pierre Bourdieu, quien la considera indispensable [bortizkeria sinbolikoaren ideia] para explicar fenómenos aparentemente tan diferentes como la dominación personal en sociedades tradicionales o la dominación de clase en las sociedades avanzadas, las relaciones de dominación entre naciones (como en el imperialismo o el colonialismo) o la dominación masculina tanto en las sociedades primitivas como modernas.* (Fernández, 2005: 8)

Bestela esanda, bortizkeria sinbolikoa pairatzen duten egoerak ez dira berezkoak, baizik eta mendekotasun-harreman jakin baten aurrean eraikitzen diren *framing* mota bat; izan ere, mendekotasun egoera baten aurrean bi erantzun mota sor daitezke: aurkako *irakurketa askatzailea* ala egoeraren mendean jartzen den *bortizkeria sinbolikoa*. Hortaz, halako egoerak gertatzeko, menderatzaileek beraien mundu-ikuskerara, gizarte rolak, ezagutza-kategoriak eta buruko egiturak ezarri behar dizkiete menderatuei. Era horretan, *bortizkeria sinbolikoa* jasaten duenak menderatzailearen ikuspegi orokorra barneratu eta, ohartu gabe, bere egiten du, horren baitako botere-harremanak ere barne.

Halako egoera pairatzen duten hizkuntza gutxituen hiztunak dituzte mintzagai Suay eta Sanginés-ek, psikologiatik abiatuta: hizkuntza gutxituaren komunitateak men egiten dio hizkuntza nagusiarenari bere planteamenduetan eta sumisio horrek hizkuntza gutxituaren hiztuna hizkuntza nagusiarekin bat egitera –erabiltzera– darama, joera hori portaera automatiko bihurtzeraino. Gainera, joera eta portaera horiek iraultzea, nahi izanda ere, zaila da. (Suay eta Sanginés, 2011: 11) Hizkuntza-sumisio hori nabaria da euskararen kasuan, gazte donostiar euskaldunek pairatzen duten *borondate oneko asimilazio* mekanismoak erakusten digun bezala:

Euskaradunen eta erdaradunen arteko harremanak aztertzean ezin dugu aipatu gabe utzi Indiferentzia diskurtsoan hedatu den «borondate oneko asimilazioaren» mekanismoa. (...) Hizkuntza bietan harreman simetrikoak izateko denek elebidunak izatea ezinbestekoa da, eta bitartean, gazte euskaradunek oztopo bati aurre egin behar diote: euskara aldarrikatzen denean (kolektibo bezala) «diferentziaren» eskubidea exijitzen da «asimilazioaren» aurrean (topagune propioak edo berezituak...); baina,

beste diskurtsoetan kokatzen diren gazteek «bereizketa» bezala ulertzen dute «diferentzia» eta horrek eragina du euskaradun gazteen jarreran, azken finean, «bereizkeria» ez dute eurek ere onartzen. Orduan, «diferentzia/asimilazio» dikotomiaren arabera euskaradun gazteak «bakarrik» eta kontraesanetan «galduak» sentitzen dira. (Jausoro et al., 1998: 76)

«Borondate oneko asimilazioaren» mekanismoa euskararekiko arriskutsua da gizarte legitimitatea [euskaraz egiteko] baztertzen duelako «komunikazio» eta «errespetu» ideiak aldarrikatuz. (...) ...euskararen normalkuntzarako oso diskurtso arriskutsua bihurtzen da, integrazioaren izenean ezberdina dena ukatzen duelako, hots, gehiengoak gutxiengoaren tensten du berdintasuna aldarrikatuz. (Jausoro et al., 1998: 62)

Jone Miren Hernándezek, bere aldetik, ematen digu *bortizkeria sinbolikoa*-ren baitan ongi egokitzen den feminismoaren eremuko beste adibide bat, hizkuntzen eremura ekarrita:

Generoa sexuan oinarritutako irakurketa edota interpretazio soziala litzateke, eta horren arabera emakumezkoei eta gizonezkoei hainbat funtzio, betebeharrak, balio, ezaugarri eta abar atxikitzen eta ezartzen zaizkie. (...) Sistema horren arabera (...) gizonezkoei atxikitzen zaienak, beti prestigio gehiago izango du. (...) emakumei atxikitzen zaiena ordea, bigarren maila batean egongo da. Eskema hau hizkuntzaren kasuan aplikagarria dela uste dut. (...) ...adibidez, hizkuntzak alde aurretik ezarritako eskema baten arabera kokatzen ari garela, esate baterako «high» eta «low» (maskulinitatea eta feminitatearekin gertatzen den antzera). (...) Nire ustez hizkuntz identifikazio sistema batean ari gara murgiltzen uneoro, non identifikazioak behartzen gaituen (...) toki batean edo bestean kokatzera eta dinamika horretan sartuta, ez gara gai, sistema osoa bera kritikatzeko eta apurtzeko. (Hernandez, 2011: 18-19)

Euskal gizartearen hizkuntza-hierarkia jakin bat dago ezarrita eta herritar gehienek, euskaldunak izan ala ez, barneratua dute eskema hierarkiko hori⁵. Horren arabera bi erdarak (frantsesa Iparraldean eta gaztelania Hegoaldean) dira legitimotasun osoa duten bakarrak eta, aldez, euskararen ones-

⁵ Horren adibide polita eskaintzen du Jone Miren Hernándezek berak beste lan batean, non, 12 urteko umeek hizkuntzekiko duten pertzeptzioaren bitartez, euskara –maitatua izan arren– bigarren mailako hizkuntza bezala agertzen den. (Hernández, 2000: 31-35)

pena zenbait (g)unetara mugatua dago; euskara onartua bai, baina ez edozein gizarte egoeratan edota erdararen pare, ez aurretik. Horregatik *Framing Aldarrikatzaileak* zailtasun handiak ditu euskararentzako lekua eskatzean, halakoetan zalantza eta gaitzespen ugariarekin erantzuten baitzaio:

Zenbat eztabaida antzu inon euskara eskakizuna egin denean. Zenbat konplexu eta amore emate euskaldunon aldetik. Europako estatuek ordea argiago daukate auzia. (...) ...Europar Batasuneko 27 estatuetatik 23k nolabaiteko hizkuntza eskakizuna ezartzen diete beren biztanleei, gutxieneko eskubide batzuk lortu ahal izateko. (...) ...denek dute oinarri bera: hizkuntza eskakizuna egitea zilegia du estatuak. (...) Eta gu, gaixo euskaldunak artatu behar dituen medikuak euskara jakin behar ote duen eztabaidatzen, oraindik ere. (Amezaga, 2011: 22)

Horregatik hain zuzen, *bortizkeria simbolikoa* gertatzen ari dela ohartu eta hori iraultzeko ahaleginak egiten direnean, *Framing Uzku*raren baitatik *Framing Aldarrikatzailearen* exijentziei intrantsigentzia leporatu eta euskaraz ez dakitenentzako *errespetua*, *jarrera malgua* eta *tolerantzia* eskatzen dira. Hona hemen nazioarteko adibide bat euskararen kasura ekarria, non argi ikusten den *borondate oneko asimilazioa* asumitu ezean *Framing Uzku*rretik nola erantzun ohi den:

Hace unos meses, el profesor de la Universidad de Lovaina Philippe Van Parijs, al ser preguntado sobre la convivencia lingüística en Bélgica, decía «En la mayoría de los encuentros entre flamencos y valones se habla francés. Este pequeño proceso que nace de la amabilidad tiende a llevar a la agonía de las lenguas más débiles. La amabilidad de la gente, que quiere comunicarse entre sí, lleva al exterminio de las lenguas». Lo sostenido por nuestro profesor, la teoría del maleducado como salvaguarda de la lengua, podríamos decir, ha hecho fortuna por estos lares, donde no es raro escuchar palabras parecidas. Se trataría, en definitiva, de ser un grosero para ser un buen euskaltzale. (Gutiérrez, El País: 2011-06-28)

Lovaina-ko irakasleak esan bezala, hemen ere gaztelaniaz egiten duen euskaldun euskaltzalearen malgutasun hori epelkeriatzat jo daiteke, euskararen kaltetan dela argudiatuz. Baina, jarrera *epel* hori ulergarria izan, bada, gizartearen gehiago zabalak barneratutako *bortizkeria simbolikoa* oinarritzen delako. Azken buruan, euskararen aldeko ahalegina eta militantzia

izen ona galtzen ari dira *Framing Uzku*raren eragin pean, baita hizkuntza horrek babesgune eta gotorleku dituen giro batzuetan ere.

3.3. Denborak utzitako beste ajeak

Bestalde, egungo euskal gizarteak dituen zenbait ezaugarri berri batzuei ere erreparatu behar diegu. Izan ere, *Framing Aldarrikaitzailea* hedatu eta indartu zen garaietatik (XX. mendearen erditik) gaurko gizartera alde handia dago, hainbat arlotan. Horregatik, arestian esandakoez gain, *Framing Aldarrikaitzaileak* baditu beste ezaugarri desegoki, gaurko gizartera ongi egokitu ahal izateko. Soziolinguistikari dagokionez, batez ere hauek dira *Framing Aldarrikaitzailea* sortu zeneko gizartearen aldeak gaurko gizartearekiko:

1. Kultura eta hizkuntza handien nagusitasuna ezbairik gabe onartzen zen eta mundu mailan gaur dagoen aniztasunaren eta eleaniztasunaren aldeko korronterik ez zegoen.
2. Euskal gizartearen baldintza sozio-demografiko eta politikoak oso ezberdinak ziren.
3. Euskal gizartean ezjakintasun soziolinguistikoa handia zegoen.
4. Euskararen aldeotasuna lantzeko marketin aurreko eskema erabili zen.

Ezberdintasuna horietatik hemen bigarrena eta laugarrena baino ez ditugu landuko, beste biak ulertterazak direlakoan.

Baldintza sozio-demografikoen aldaketa ilustratzeko egokiak dira Hernándezek aipatzen dizkigun kasuak: familia erdalduneko seme-alaba asko euskaldundu izana eta etorkin berrien presentzia (beren kultura eta hizkuntza propioak barne). Bestalde, post-modernotasunaren eraginez, euskara norbanakoen identitate-marka gisa ere zalantzan jarri behar da:

Ezin dugu pentsatu gure identitatea hizkuntzarik gabe eta hizkuntzak –uste dugu– ez du bizirik iraungo identitatearen sostengurik gabe. Nik uste dut egun errealitatean eskema hori, gañdituta dagoela, besteak beste hizkuntza erdigimean ez dagoelako; aldiz hiztuna da zentroa bereganatu duena. (...) Baina ezin dugu ahaztu hiztuna ez dela hizkuntza, hiztuna hizkuntza baino gehiago dela, hiztunak bizitzaren osotasuna biltzen du bere

baitan, eta hiztunaz gain (edo hiztuna izatearekin batera) emakumea edo gizona dela, gaztea edo heldua, langilea, kirolaria, eta abar eta abar.

Hizkuntza eta hiztunaren arteko harremana bat izango da, baina hor ez da identitatea agortzen, are gehiago, askotan identitatea abiatu baino ez da egiten hortik. Honekin batera, kontuan hartu behar dugu identitatea osatzen duten pusketa guztiak elkarrizketan daudela, elkar eragiten dutela. Horregatik gazteak, esate baterako, ezin ditugu aztertu hiztun hutsak izatetik, gazte izatetik ere ulertu behar ditugu. Hori egin ezean gure hausnarketek huts egingo dute. (Hernández, 2011: 17-18)

Gazteen aipu hori egokia izan daiteke hainbat gazte euskaldun-euskaltzalek izan ohi duten jarduna ulertzeko, haien arteko harremanetan erdara barra-barra erabiltzen dutenean. Baliteke egungo gazteen nortasuna –zein beren taldearena– eraiki eta zedarrizterako euskara ez, baizik beste hainbat osagai garrantzitsutzat jotzea. Hori horrela, euskara osagaietako bat baino ez litzateke, beste askoren artean, eta ez legoke hori erabili beharrik nork bere buruaren izaera eraiki edota berresteko.

Laugarren ezberdintasuna, *Framing Aldarrikatzailearen* sorrera marketin aurreko eskeman edo eredian oinarritua izatea da. Marketina sortu aurretik, lehenbiziko ahalegina ekoizpenaren ingurukoa zen: produktu edo zerbitzu bat sortzea. Horren ondoren etorriko zen ekoiztutakoa merkaturatzeko saioa. Marketinarekin, aldiz, merkatuan dauden premiak identifikatzen dira, beste ezer baino lehen, eta, ondoren, bakarrik ekoizten da eskaera hori asebate beharko duen produktu edo zerbitzua. Hona hemen marketinaren egokitasuna azpimarratzen duen aipamen bat:

...iruditzen zait herri mugimenduek goitik behera ezagutu beharko litzaketela marketinaren eskutik datozen ikuspegi eta estrategia operatiboen nondik norakoak. Hori horrela balitz, aukera minimo bat izango lukete ulertzeko nondik datozkien erasoak, non-nola zulatu daitezkeen eta non-nola eraiki daitezkeen gure kausarako estrategia emankorrak. (...) Marketina oso azkarra izan da hainbat eta hainbat ezagutza-esparruk eman dutena eskema analitiko eta operatibo simple batera ekartzen, batetik; bestetik, jarrera eta enfoko egokia definitu ditu mota guztietako antolakundeentzako: kanpotik barrurako jarrera behar dute antolakunde guztiek eraginkor izan nahi badute. (...) ...badakit praktikan hor dagoela gure akatsik handienetakoak: jendearekin ahaztu egin gara. (Kamio, 2011)

Hiru dira, nagusiki, marketinaren metodologiaren pausoak, modu errazenean azalduta: merkatuak eskatzen duena zer den edo zeren gabezia dagoen (edukia) zedarritzea. Gure xede-taldeak *nortzuk/zeintzuk* diren edo merkatuan zer sektore edo kolektibo ezberdin dauden bereizi eta finkatzea (merkatuaren segmentazioa). *Nola* helarazi edukiaren berri (komunikazioa) xede-taldetzat aukeratu den kolektiboari.

Euskararen egoera soziolinguistikora itzuliz, gogora dezagun *Framing Aldarrikatzailea* (edukia) abertzaletasunaren eskutik sortu zela, gizarteak zer-nolako premiak zituen ezagutzeke (merkatu-analisirik egin gabe), mezu hori bere horretan gizarte osora hedatuko zelakoan (merkatu segmentaziorik gabe). Euskararen inguruko planteamendu hori erein zen eta lur mugatu baina emankorra aurkitu zuen –abertzaleen artean, batez ere– eta hortik uzta oparoa jaso da; horren ondorioz, euskarak aurrerapauso garrantzitsuak eman ditu. Baina, ez zen aintzat hartu (merkatuaren analisirik eta segmentaziorik ez zen egin) gizartearen zati handi batek –ez-abertzaleak– euskarari buruz beste *eduki* mota bat nahi/espero zuela eta *Framing Aldarrikatzailea* ez zen sektore horretan errotu. Hori da, hain zuzen ere, *Framing Berriak*, marketin estrategiaren eskutik, asebate beharko lukeen merkatuko xede-talde berria, betiere orain arte ongi erantzun duen gizarte sektorea ahaztu edo baztertu gabe.

3.4. Euskaltzale zintzoa nora ezean

Aurreko ataletan esandako guztiaren eraginez, euskaltzale zintzoa bere jarduna zalantzan jartzera iritsi da hainbat egoeratan, *Framing Uzkkurraren* aurrean euskaltzale hori –betiko planteamenduetan iltzatua eta argumentuz biluzik– egoera deserosoan eta erantzun eraginkorrik gabe gelditu baita. Halakoetan, euskaldun euskaltzaleak zaila du koherentziari eustea, alegia euskara erabiltzen saiatzea edota horren aldeko neurriak defendatzea.

Pasadizo deseroso horiek ugaritu eta denboran irauteak pertsona horren euskaltzaletasuna ahultzea lekarke, koherentziaren izenean. Bestela esanda, Leon Festinger-ek *disonantzia kognitibo* bezala izendatu zuen egoeran ez erortzea bilatuko luke; alegia pentsamoldearen eta jardunaren arteko kon-

traesanetan ez erortzen saiatuko litzateke eta, horretarako, pentsamoldez aldatzea litzateke irteera posibleena, Festingeren arabera. Horren ondorioz, euskaltzalearen egoera ez omen da oso sendoa, Imanol Minerek idazten zuen bezala:

Ez gara gure baitakoak: Euskaraz bizitzea ez dago gure harrotasunaren erdigunean. Autoestima lurretik daukagu: ez dugu gure ahalmenean sinesten eta, ondorioz, ez dugu begirada berariazko bat geureganatu oraindik. (Miner, 2010)

Azken finean, arestian aipatu dugun *bortizkeria simbolikoaren* menpe daude euskararen komunitatea zein euskaltzale asko, eta hori irauli ezean ez da euskara normalterik izango. Hortaz, euskaltzale horrek ere *Framing Berri* baten premia du, zeinak euskararen inguruko argudio eta euskarri sendoak eskainiko dizkion. Era berean, *Framing Berriak* lagundu beharko dio gizarteko hizkuntza-hierarkiaren menpe dagoela jabetzen, ondoren, buru-mendekotasun horretatik aska dadin. Euskaltzale zintzoak horrela baino ez du posible izango tinko aurre egitea *Framing Uzkuurrari*.

4. *Framing Uzkuurraren* oztopoak

Arestian esan dugu (2.2 azpiatalean) Arabako lurraldea edo, hobeto, gizartea bereziki emankorra izan daitekeela *Framing Uzkuurreko* hazia lora dadin, baieztapen hori zenbait datutan oinarrituz. Baldintza horietan euskarak normalkuntzaren bidetik aurrera egitea oso zaila izango denez, komenigarria izango zaigu baldintza horiek nolakoak diren hobeto ezagutzea.

4.1. *Framing Uzkuurrari* aurre egiteko estrategia

Euskararen aurkako estrategiak lehenik geldiarazi eta ondoren irauli ahal izateko, aurretik *Framing Uzkuurreko* sentsibilitate ezberdinak eta ezaugarriak ongi ulertu behar dira. Izan ere, euskara salbatuko bada, euskal gizartearen gehiengo zabal baten babesari esker izango da, ez soilik euskaldun euskaltzaleen eskutik. Euskaldunak eta euskaltzaleak ez diren beste horiek ere –erdaldunak eta euskararekin axolagabekoak direnak, hain zuzen–

zehatz-mehatz ezagututa baino ez da posible izango hizkuntza-motibaziorik beraiengan piztea eta, horrela, euskararen defentsara bildu daitezten lortzea:

Guk geuk euskaldimen (euskal hiztumen) gizartea lortu nahi baldin badugu (...) gizarte sektore guztiei euskara egiteko aukera eman behar diegu, edozein izan daitekeelarik ere haien motibazioa. Baina guk, euskal gizartea eraikitzea nahi dugun heinean, detektatu behar ditugu motibazio haiek, erantzun oso diferenteak eta egokiak eman behar ditugu, eta kasu askotan motibazioa sortu ere bai. (Elser, 2011: 3)

Ezagutu behar ditugu, ongi ezagutu ere, gizarte sektore edo sentsibilitate bakoitzak dituen euskararen inguruko plantamenduak, ondoren euskararen aldeko baldintza berriak bultzatu ahal izateko; azken buruan eta marketinaren terminologian, eginkizunak hauek dira: *merkatu azterketa* egitea xedetatalde ezberdinak zedarritzeko (*merkatuaren segmentazioa*) eta horietako bakoitzaren premiak (eskaini behar zaien *edukia*) ezagutzeko. Hori guztia, lau helburu zehatz hauekin:

- a) *Euskararen mamuak* uxatzea: aurreiritziei, esamesei eta uste okerreirei aurre eginez, informazio zuzenaren eskutik.
- b) *Framing Uzkuurraren eragina indargabetzea*: diskurtsoari eta bere motibazioei aurre eginez eta bere ideologia hedatzailea (bortizkeria sinbolikoaren funtsa dena) deslegitimatuz, arrazoibide eta argudio *onargarrien* bitartez.
- c) Euskararen *aldekotasuna piztu* edota *indartzea*: diskurtso eta motibazio mota berriak eraikiz edo jada existitu litezkeenak sendotuz eta hedatuz, era horretan euskararentzako eremu sozial berriak lortu ahal izateko.
- d) Euskararen komunitatea *bortizkeria sinbolikotik aska dadin* eta euskaltzale zintzoak *auto-estimua berreskura dezaten* lortzea.

Lau maila horien lanketarako beharrezkoak diren hurbilpen eta edukiak *Framing Berritik* eratorri beharko liriateke. Horretarako guztirako, beharrezkoa da hurbilpen sistematikoren bat erabiltzea; adibidez, ikerlan soziolinguistikoez eskaintzen dituen informaziotik abiatzea eta, ondoren, *marketin*-ko teknikak erabiltzea.

Euskal gizartearen izaera plurala ongi ezagutzeko eta ulertzeko lehenengo urratsa egin nahirik hainbat informazio-iturri erabiliko dugu hurrengo lerroetan; batez ere, *Framing Uzkkurraren* edukiez informazio interesgarria eskaintzen diguten ikerlanak eta beste lurralde batzuetan egindako zenbait esperientzia.

4.2. *Framing Uzkkurraren* elikagaiak

Zorionez, euskal gizartearen ezaugarri soziolinguistikoak berri ematen ditugun hainbat lan burutu dira honezkero. Horiei esker, euskal gizartearen –batez ere, EA Eren– euskararekiko motibazioak zein jarrerak ezagunak zaizkigu, neurri handi batean. Lan horietako batzuen informazioa eta emaitzak baliatuko ditugu *Frame Uzkkurra* hobeto ezagutzeko eta, *Framing Berri* bat osatzea ipar hartuta, erabilgarriak izan daitezkeen ideiak biltzeko. Hala ere, lan batzuen ideiak ez ezik, kasuan kasu gure ekarpen propioa ere txertatuko dugu, ikerlanek eskaintako edukiak osatze aldera. Beraz, *Framing Uzkkurra* ren osagaiak edo *priming*-ak zedarritzen ahaleginduko gara hurrengo lerroetan. Zer da, baina, *priming* delako hori?

Priminga agenda eta iritzi publikoen osagaietako bat da. Izan ere, albisteak zabaltzean komunikabideek zenbait erreferente gako ezartzen dizkiote audientziari eta horrek, gertaerak edota eragileak baloratzerakoan eta iritzi bat osatzerakoan, erreferente horiek (*primingak*) makulu gisa erabiliko ditu; horietan oinarrituko ditu audientziak gai jakin baten gaineko dituen usteak eta iritziak. Izan ere, *priming* efektuaren atzean dagoen premisa hau da: pertsona, egitate edo gertaera jakin batez jendeak garatzen dituen balorazioak eta iritziak ez dira eraikitzen informazio osoaren gainean, baizik eta eskura duen informazio ale bakan batzuk baliatuta.

Euskal herritar gehien-gehienek ere *Framing Aldarrikatzailearen* zein *Framing Uzkkurraren* mezuez jabetzerakoan mezu filosofiko eta arrazoibide osoak ez, baizik eta horien ideia gako batzuk baino ez dituzte jasoko eta barneratuko. *Priming* horiek baldintzatzen dute euskara albisteetan zeri lotuta agertzen den, alegia *framing* bakoitzak erabiltzen dituen ohiko lelo edota informazio aleak. Azken buruan, *primingek* ezartzen dute pertsona bati zer datorkion

burura *euskara* entzuten duenean; alegia, zer-nolako irudi, sentsazio, sentimendu, ideia, jarrera eta abar, kontrakoak izan ala aldekoak izan.

Priming efektua ongi ezagutzea eta baliatzea, beraz, garrantzitsua da bi asmo hauetarako: a) euskarak gizartean lortzen duen atxikimendua edo gaitzespena zertan oinarritzen den zehatz-mehatz ezagutzeko; b) ezagutza horretatik abiatuz, euskararen aldeko interbentziorik eraginkorra diseinatu ahal izateko.

Hurrengo tauletan laburbildu dira, beraz, *Framing Uzkurak* baliatu ohi dituen *primingak* edo aurrerantzean baliatu litzakeenak, edukien, esanahien edo izaeraren arabera zortzi mailatan sailkatuta⁶. Sortutako taula horietan txertatu dira, halaber, mezu horien balizko xede-taldeak edo jasotzaileak, hiru multzotan banatuta: edozein herritar, herritar erdaldunak eta, azkenik, herritar euskaldunak. Era horretan, marketinak erabili ohi duen segmentaziorako lehenengo hurbilpena, xume bada ere, egin nahi izan da.

1. taula. Euskararen egoeraren gaineko irudikapenaz

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– <i>Euskara eta gaztelania kontrajartzea</i> . (Siadeco-AED, 2010: 64) – <i>Ereduen arteko haustura honelakoa da: A-B // D, hau da, gaztelaniaren mundua eta euskararen mundua: A/B-koak «españolitos» eta «los castellanos» omen ziren D-koentzat; hauek, berriz, «los vascos» A/B-koentzat</i> . (Jausoro et al., 1998: 59)	x		
– [A/B eredutako gazteek] <i>Euskara, bigarren mailako hizkuntza dela sinestea: hizkuntza erregionala, folklorikoa</i> . (Jausoro et al., 1998: 53, 59) – <i>Euskaldun askok eta erdaldun gehienek erdararen nagusitasuna bameratua izatea eta horren aurrean men egitea</i> . (Suay eta Sanguinés, 2011: 11)	x		

⁶ *Priming* edo ideia gako horietako batzuk sailkapenaren atal batean baino gehiagotan koka litezke, baina hemen bakar batean –ustez egokienean– sartu dira, informazio ale horiek ez errepikatzearren.

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– Euskalki batzuen irudi ahula, prestigio gutxiko sentimenduak. (Siadeco-AED, 2010: 37)			x
– Euskararen erabilera ideologiko-politikoa edota bizi-estilo zehatz bateko taldeekin lotzea. (Siadeco-AED, 2010: 55) – [B ereduko gazteentzat] D eredukoak bi ezaugarritan ezberdintzen dira: «itxiak» eta «politizatuak». (...) D-ko batzuek (halere, irudi istilutsua D-ko guztiei eranstean zaie) euskara «instrumento político» gisa erabiltzen dute. (Jausoro et al., 1998: 59)	x		
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteentzat] Funtzio Mitikoa: Gaztelaniak betetzen du bere «zabaltasunaren» inidiagatik (ia ate guztiak irekitzen ditu...): lanaren esparrua dela, komunikazio esparrua, etab. (bere ezaugarri pragmatikoengatik). Euskarak, funtzio mitiko mugatua du (...) bere «berezitasunak» eranstean diola (jatorri ezezagunak eta berezitasun morfologikoak). (Jausoro et al., 1998: 60)	x		
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteek] Transmisioko hizkuntzari [hiri giroan] hiru kontzeptuok eranstean dizkiote gizarte interakzioa aurreira eramateko: «edukazioa», «errespetua» eta «komunikazioa». Eta balio hauek hizkuntza komun eta inor baztertzen ez duenari bakarrik errekonozitzen zaizkio (gaztelaniari). (Jausoro et al., 1998: 61)	x		
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteek] Erreferentzia Funtzioa: Gaztelaniak betetzen du: kultura euskaraduna ez zaie bereziki interesatzen, gainera, ezagutu ere ez dute ezagutzen... (rocka euskaraz eta bertsoaritzza dira aipatuak: batzuei gustatzen zaie eta beste batzuei ez). (...) kultura euskaraduna banakako «kontsumo» hautaketari dagokiolako. (Jausoro et al., 1998: 61)	x		
– A ereduko ikasle batzuek «euskara eskolaz kanpo ez dute ia inon ikusten». (Jausoro et al., 1998: 52) – Aquí nunca se ha hablado vasco. (Llosa, 2011: 8) ⁷		x	

⁷ Hona hemen horren adibide bat goi-malako arduradun politiko baten ahotik: *XL Semanal* 1174 (2010-04-25). 12 preguntas indiscretas a Patxi López: «**XL**. Y usted, lehendakari, ¿qué tal lleva las clases de euskera? **P.L.** Lo estoy estudiando, lo estoy estudiando. Yo es que soy de la margen izquierda, una zona donde no se ha hablado euskera nunca. Y el euskera es complicado. Además, hago muchas piras ('pellas') [rie].»

2. taula. Euskal hiztunaz

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [A eta B ereduetako] ...gazte hauek euskara profil mota batzuekin erlazionatzen dute: «ikastolakoekin», «herrietakoekin» eta «borrokarekin/ erradikalekin». (...) tribu urbano horrekin ez bada nahasterik nahi ezin dela euskararen aldeko jarrera sutsurik adierazi (Jausoro et al., 1998: 59)	x		
– Euskara norberarekin, norberaren bizitzarekin lotua ez izatea. (Siadeco-AED, 2010: 51)			x
– Euskararekiko motibazio afektiboa eta efektiboaren arteko desoreka. (Siadeco-AED, 2010: 63)			x
– Euskararen erabilera maila baxua azaltzeko errazegi jotzen dugu proiektziora, zein hizkuntzatan egiten dudan neure buruarekin galdetu ordez. (Siadeco-AED, 2010: 64)			x

3. taula. Euskara eta nortasunaz

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [Indiferentzia diskurtso gaztentzat] [Indiferentzia diskurtsoko gazteentzat]...»vasco» izatea ez dago euskarari lotuta; nortasunaren harreman horretan euskara «beste batzuek» (abertzale erradikalek) sartzen dute desoreka gatazkatsua sortuz. (...) Euskara ez da nortasun komuneko eragile funtsezkoa, «gu» bat erakitzen laguntzen duena, «bereizketa» baizik, hots, batzuk dakitena eta beste batzuk ez. (Jausoro et al., 1998: 55, 56)	x		
– [Gazte euskaltzaleentzat] ...euskara gatazkatsua da denek ez dakitelako eta berarekiko jarrera ezberdinak daudelako (kontrakoa ere bai); orduan, [Euskal Herrian] euskara identifikazio elementua da gizarte multzo batena [ez guztiena]. (Jausoro et al., 1998: 66)			

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [Gazte euskaltzaleek] <i>Euskara «sentimenduen», afektibitatearen munduan kokatzen dute (...) Euskal nortasuna, «gu» berezi bat, ez dago «hizkuntza komunitatean» (hizkuntza bera erabiltzen duten subjektuak) bereziki oinarrituta, «atxikimendu komunitatean» (sentimendu berezi bat erkidetzen duten [euskaldun zein erdal-dun] subjektuak) baizik. (Jausoro et al., 1998: 66)</i>		x	

4. taula. Euskara ikasteaz eta jakiteaz

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– <i>Euskara zaila da eta heldutan ikastea ezinezkoa. (Amorrortu eta Ortega, 2011: 6)</i> ⁸		x	
– <i>Elebitasuna ez da posible. (Amorrortu eta Ortega, 2011: 8)</i>	x		
– [Eskolan] <i>ama-hizkuntzan ikasi behar da arrakasta akademikoa izateko. (Amorrortu eta Ortega, 2011: 9)</i>		x	
– [A eta B eruedetako gazteentzat] <i>Euskaraz zertxobait baino ez jakitea (zerbait hitz egin/ulertu) ez da arduratzeko motiboa; ezta lortutako maila mugatua aurrerago galtzea ere. (Jausoro et al., 1998: 56, 58) [B ereduok] ...euskara erdi maila batean eta hitz egiteko arazoekin [bada ere], gaitasun desoreka honek ez ditu bereziki arduratzen.... (Jausoro et al., 1998: 58)</i> – <i>Euskararen ikasketa prozesua, prozesu jarraitua den kontzientziarik ez dago; ezta euskarazko hizkuntza erregistro guztiak (euskalkia, hitanoa...) barneratu beharraren inguruko kontzientziarik ere. (Siadeco-AED, 2010: 63)</i>	x		

⁸ Ikus aurreko oin-oharreko aipua.

FRAMING UZKURRA ELIKATZEKO ERABILI OHI DIREN HIZKUNTZAREN INGURUKO PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
<ul style="list-style-type: none"> – Euskara etengabe hobetu eta erabiltzeak exijitzen duen autodizi- plina eta autosatisfakzioaren arteko oreka falta. (Siadeco-AED, 2010: 63) – [A ereduko gazte] Euskaradunen artean ere badaude kexa ba- tzuk (...) euskara batua ikasi behar dutenez, idatzi mailan berezi- ki esfortzua egin behar dute eta (...) esfortzu horren saria ez dute ikusten. (Jausoro et al., 1998: 57) 	x		
<ul style="list-style-type: none"> – Euskara hobetzeko egin behar den ahaleginaz ez dira jabetu eus- kara «esfortzurik gabe» ikasi duten elebidunek. (Siadeco-AED, 2010: 75-76) – [Gazte] euskaradun ez osoek oztopo berezia dute euskaradun osoeekin (...), ez dutelako euskarazko interakzioa bultzatzen be- raientzat aspergarria delako. (Jausoro et al., 1998: 70) 			x
<ul style="list-style-type: none"> – Euskara ikasteko modu bakarra sistema «arautu» baten bidez dela pentsatzea (euskaltegira egunero joan beharra). (Amorrortu eta Ortega, 2011: 13) – Eguneroko bizimoduarengandik erabat aldentuta dauden, eta ba- tere erakargarriak eta praktikoak ez diren ikasketa-prozesu kultu- ralak antzematen dira. (Siadeco-AED, 2010: 63) 	x		

5. taula. Euskaraz egiteaz

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
<ul style="list-style-type: none"> – Ondo hitz egin behar da (batzuek ondo hitz egiten dute, baina gehienek txarto: euskaldun berriek, bantu, euskara berria, eskolako; euskaldun zaharrek, etxekoa, landu gabekoa; zaharrek, etxe-etxekoa, alfabetatu- gabea; gazteek, euskano) (Amorrortu eta Ortega, 2011: 8) – Euskaraz hitz egiterakoan akatsak egiteko beldurra eta lotsa sen- timenduak. (Siadeco-AED, 2010: 42) – [B eredukoek] ez dute euren burua ziur sentitzen (...) euskaraz hitz egin behar dutenean eta (...) azkenean beti gaztelaniaz egiten dute. (Jausoro et al., 1998: 57, 70) 			x

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal-dunak	Euskal-dunak
<p>– Heziketa txarrekoa da parekoak ez badaki euskaraz egitea. (Amorrortu eta Ortega, 2011: 10)</p> <p>– Solaskide gehienak euskaldunak diren egoera komunikatiboetan, euskaraz ez dakiten pertsonak egoteak, izugarri murrizten du euskararen erabilera, eta gaztelaniaz egitea «kortesia» edo «adeitasun» seinale bihurtzen da. (Siadeco-AED, 2010: 65)</p> <p>– [Gazte] Erdaldunek ez dute onartzen euskaraz egitea beraiek tartean egonda, euskara denontzako komunikazio hizkuntza izatea onartzen ez dutelako. (Jausoro et al., 1998: 55)</p> <p>– [A eta B eredueta] <i>Gazte hauen egumeroko kale giroa gaztelaniaz da (...) dendak eta zerbitzuak batez ere. Esparru horietan ez dute onartzen bestearen erantzuna euskaraz (...) ...»probokazio» gisakoa zaie...</i> (Jausoro et al., 1998: 59)</p> <p>– [Indiferentzia diskurtsoko gazteek] <i>kexa bat agertzen dute euskaradunetik, hauek euskara «bereizketa» gisa erabiltzen dutela: erdaradunen aurrean daudenean euskaraz egiten dute eta gero bakarrik daudenean gaztelaniaz.</i> (Jausoro et al., 1998: 62)</p>	x		
<p>– [Indiferentzia diskurtsoko gazte erdaldunek] «euskaradunetik errespetuaren» kontzeptua ez dute ez ulertzen ezta onartzen ere: euskaradunak elebidunak direnez, bi hizkuntzatan hitz egiteko aukera dute: interakzio mailan euskaradunak -elebidunak- amore eman behar du erdaradunaren -elebakarraren- aurrean, eta horretan kokatzen dute «hizkuntz errespetua». (Jausoro et al., 1998: 62)</p> <p>– Guztiei euskaraz egiten die beti, berdin zaio besteek nola erantzuten dioten; talibana da! (Gazte euskaldun euskaltzale bati 2010ean entzundakoa).</p>	x		
<p>– Gaztelania denok dakigu eta hori izan behar du denontzako eta komunikazio publikorako hizkuntza; euskara borondatezkoa, esparru pribatukoa eta ez gizarte osoarena. (Jausoro et al., 1998: 53, 54)</p> <p>– Hizkuntza bakarra hobe. (Amorrortu eta Ortega, 2011: 9)</p>	x		
<p>– Koadrilan euskaradunak eta erdaradunak elkartzen direnez hizkuntza komuna aukeratzen da hitz egiteko (gaztelania) (...) adiskidetasuna beste edozein balore baino garrantzitsuagoa da. (Jausoro et al., 1998: 60)</p>	x		

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [D ereduko gazteen] <i>Ezezagumekin, beti lehenengo hitza gaztelaniaz izango da. Joera honek argi adierazten du euskararen gizarte legitimitate falta; «besteari» ez baldin bazaio euskaradun irudia sumatzen...</i> (Jausoro et al., 1998: 69-70)			x
– [Gazteen artean] <i>Indiferentzia diskurtsoa «ezagupenaren» diskurtsoa da; honek esan nahi du euskararen oinarritzko irudia ezagupenean kokatzen dela (eta ez euskaraz bizitzean), bigarren hizkuntza ofizial gisa.</i> (Jausoro et al., 1998: 65) – <i>Erabilerak duen garrantziaren inguruko kontzientzia praktikoa falta da. Ez dago euskara erabiltzeko beharraz kontzientzia-haritzea eragiten duen «presio sozial naturalik».</i> (Siadeco-AED, 2010: 63)			x

6. taula. Euskararen premiaz eta erabilgarritasunaz

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [A eredukoentzat] <i>Euskaraz ikasteak ez du abantaila handirik eta oztopoa izan daiteke unibertsitate edo lanean behar den gaztelaniazko gaitasuna lortzeko.</i> (Jausoro et al., 1998: 57)		x	
– [Kontrako diskurtsoko gazteentzat] <i>Euskarari ez diote zentzurik, interesik edo balio pragmatikorik ikusten: lanpostu ospetsuetarako euskarak ez du baliorik eta, zerbait balio baldin badu ere, EAEra mugatzen da eta lan publikora; kanpoan ez du ezertarako balio.</i> (Jausoro et al., 1998: 52) – <i>Maila profesionalean euskarak beste hizkuntza batzuk baino garrantzi operatibo eskasagoa du.</i> (Siadeco-AED, 2010: 52) – [A ereduko] <i>Lanbide heziketako gazteek ez diote ezta abantailarik ikusten euskaraz ikasteari, euren ikuspegi bakarra pragmatikoa denez. (...) [laneko testuinguruan] gaztelania da nagusi.</i> (Jausoro et al., 1998: 57)	x		

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [D ereduko gazteentzat euskaraz ikastearen] ... <i>abantaila, bereziki, lana bilatzeko aukera zabalagoak aipatzen dira; halere, ñabardurak daude abantaila horren inguruan: lanaren munduan euskararen tokia mugatua delako (lan publikoetarako bereziki) (...): oso enpresa gutxi dira euskara eskatzen dutenak.</i> (Jausoro et al., 1998: 69)	x	x	
– [Kontrako diskurtsoko gazteentzat] <i>Euskarak hedatzen duen kultura dimentsiora ez dira heltzen (ideologikoki, ez dute nahi) (...)</i> Azpi-kultura batena [da dimentsio hori]: <i>gizarte garaikidean ematen diren azpitaldeen artean beste azpi multzo bat... banakako eta borondatezko aukera (euskara <kultura produktua>) da nahi duenak <kontsumitzeko> (jaialdiak, erakusketak, etab.).</i> (Jausoro et al., 1998: 54)		x	
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteentzat] ... <i>euskal kultura (cultura vasca) bi hizkuntzez osatzen da eta gartzelania jakinda ezagutzen duzu kultura hori.</i> (Jausoro et al., 1998: 55)			

7. taula. Euskararen aldeko neurriez

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal- dunak	Euskal- dunak
– [Kontrako diskurtsoko gazteek] <i>Erakundeen euskararen aldeko ekimenak gaitzesten dira euskararen koofizialtasuna eta elebitasuna onartzen ez direlako.</i> (Jausoro et al., 1998: 53)	x	x	
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteengan] <i>Euskararekiko ikuspegia estatikoa da, hots, (...) egoera finkatua da eta horrela onartzen dute, ez dute aldatetaren beharrik ikusten edo aldarrikatzen.</i> (Jausoro et al., 1998: 55)			
– [Indiferentzia diskurtsoko gazteentzat] ... <i>euskarak eskolaz gain baditu beste gizarte esparru batzuk bereganatuta, orduan, ez dago beste ezer egin beharrik; horregatik, ez datoz bat euskara «gaizki» dagoela esaten dutenekin balorapen horren azpian motibazio politikoak daudelakoan.</i> (Jausoro et al., 1998: 64)			

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal-dunak	Euskal-dunak
<p>– [Indiferentzia diskurtsoko gazte batzuek] ... erabilera falta aipatzen denean, hori banakakoa, borondatezko aukeratzat hartzen dutenez ez dute onartzen ezer egin daitekeenik, bestela, inposizioa izango litzateke eta. (Jausoro et al., 1998: 64) Euskara inposatzen ari da (Amorrortu et al., 2009: 90, 193, 195, 263-264)</p> <p>– A ereduko gazte batzuek derrigorrezko ikasgai bezala ikusten dute euskara, bestelako ezaugarririk gabe. (Jausoro et al., 1998: 52)</p> <p>– Euskara ikastera derrigortzen, behartzen ari dira (Amorrortu et al., 2009: 72, 195)</p>		x	
<p>– [Onartezina] da jendaurrean lan egiten duten funtzionarioek euskaraz hitz egin dezaten eskatzea. (Amorrortu, Ortega, Idiazabal eta Barreña, 2009: 302)</p> <p>– ...erakunde pribatu batek lanpostuetarako euskara eskakizunak zehazteak, (...) ikuspegi profesional batetik, ez dauka zentzu handirik. (Zaloña, 2011: 72)</p> <p>– Ulergaitza egiten da lan postu publikoetarako euskararen gaitasunari ematen zaion lehentasuna profesional erdaldun egokien kaltetan. (Zaloña, 2011: 73)</p> <p>– Lan eremuan euskara lehenestea edota prestigioa ematea baztertzaileria da eta erdaradun elebakarren eskubideak urratzen ditu. (Zaloña, 2011: 82)</p>	x		
<p>– El que quiere forzar la maquinaria... causa rechazo... (Zaloña, 2011: 72)</p> <p>– Euskara azkarregi berreskuratu nahi izan da. (Amorrortu et al., 2009: 302)</p>	x		
<p>– Ez litzateke euskararen erabilera Euskadiko biztanleria guztiarengana zabaltzen ahalegindu behar. (Amorrortu et al., 2009: 302)</p> <p>– Euskara erabili «beharrarekin» zerikusia duten estrategietan oinarritzea kalterako da. (Siadeco-AED, 2010: 54)</p>	x		
<p>– ... la promoción del euskera. (...) ... fomentar y mantener nuestra cultura. Es un tema sobre todo cultural. (Zaloña, 2011: 73)</p> <p>– Euskararen sustapena ez da gizarte dinamikarekin eta eguneroko bizimoduarekin lotzen; euskararen sustapena, euskararekin bakarrik lotzen da: «euskaraz gehiegi hitz egiten da euskarari buruz, eta ezer gutxi bizitzari buruz». (Siadeco-AED, 2010: 66)</p>	x		

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal-dunak	Euskal-dunak
<ul style="list-style-type: none"> – Euskara planak euskara gaztelaniari gailentzea bilatzen du enpresaren hizkuntza amiztasuna aintzat hartu gabe. (Zaloña, 2011: 59) – Euskararen normalizazioaren azken helburua euskara gaztelaniari gailendu eta inposatzea da. (Zaloña, 2011: 82) 	x		

8. taula. Euskararen etorkizunaz

PERTZEPZIO, USTE, AURREIRITZI, EGOERA EDOTA GABEZIA OZTOPATZAILEAK	Xede-taldeak		
	Edonor	Erdal-dunak	Euskal-dunak
<ul style="list-style-type: none"> – Oso etorkizun ona aurreikusten diote euskarari zalantzarik gabe erakunde publikoek derrigortasuna ezartzen dutelako. (Jausoro et al., 1998: 53) – Euskarak arrosa koloreko etorkizuna dauka (egungo dinamika eta neurriak kontuan hartuta, egoera gutxitua berez konponduko da). (Amorrortu eta Ortega, 2011: 7) 	x		
<ul style="list-style-type: none"> – Euskararen galera ekidinezinaren diskurtso katastrofista: euskarak ez du konponbiderik. (iritzi hau ez da inon jaso, baina ezagutzen ditugu hori pentsatu eta konfiantzako giroan aitortzen duten pertsonak) 	x		
<ul style="list-style-type: none"> – Euskara poliki-poliki eta bortxatu gabe normalizatuko da, irakas-kuntzari esker. (Zaloña, 2011: 82) – Euskara, nahi bada, hiztunek borondatea badute, berez garatu eta normalizatuko da. (Zaloña, 2011: 82) 	x		

Aurreko taulen edukiak *Framing Uzku*raren ale edo *priming* ohikoanak dira, alegia diskurtso horrek izan duen hedapenaren gakoak. Era berean, euskaldun euskaltzaleen artean oso hedatuta dauden beste batzuk ere jaso dira. Batzuek eta besteak ugariak dira eta ez nolanhikoak, batzuetan euskararen izaera eta geroa kolokan jartzen baitituzte. Hala ere, ez da lan honen helburua horien analisisan murgiltzea, baina eskainitako materialek horretarako atek irekitzen dituzte.

Tauletako eduki horien atzean dagoen *Framing Uzku*rriari modu egokian aurre egin eta bere eragina neutralizatzeko balio beharko du; ez ordea *Framing Berria* osatzeko, horren lanketak erabat autonomia izan beharko baitu indarrean dauden *framing* biekiko. Goazen, bada, hurrengo lerroetan *Framing Berrirako* proposamena azaltzera.

4.3. Araba jomugan

Esana dugu, batetik, euskararen defentsaren eta bultzadaren abiapuntu nagusia den *Framing Aldarrikatzailea* ez dela egokiena Arabako giro sozio-politiko zabal batentzat; bestetik, euskalgintzak marketinaren estrategia jarraitzeari jaramonik egin ez diola. Hortik abiatuz, ezinezkoa da ongi ezagutzea arabar askok zer planteamendu mota duten euskararekiko, zertan oinarritzen dituzten *Framing Uzku*rreerantz jotzeko dituzten arrazoiak. Are urrutiago gelditzen da oraindik jakitea euskararekiko dituzten hautematea eta irudikapena aldatu ahal izateko zerbait egiterik ote dagoen. Gauzak horrela, orain arte ez da landu planteamendu egoki bat euskararen inguruan arabar horien sentsibilitatearengana hurbiltzeko.

Mugak muga, hala ere, azken hogeita hamar edo berrogei urteotan aldaketa soziolinguistiko handia gertatu da lurralde horretan, hiriburua barne, eta, duela gutxi idazten nuen bezala, horren lekuko eta bidaide izan naiz:

Nací en Vitoria a mediados del s. XX eta orain Vitoria-Gasteizen bizi naiz. Bistan da, denbora tarte horretan aldaketak gertatu direla, nigan zein nire jaioterrian. Izan ere, hiria bezalakoa nintzen garai haietan, erdaldun petoa eta gaur egun, aldiz, biok elebidunak. Elebitasunerako bide bera jorratu dugu, 2006ko gazte gasteiztarren datuek argi uzten duten bezala [18-25 urte bitarteko gazte gasteiztarren %55 euskaldunak dira, %28 ia-euskaldunak eta %17 erdaldunak].

Egia da gasteiztar euskaldun horien artean motak eta motak daudela: euskaraz gaitasun osoa dutenak zein hizkuntza hori kamuts dutenak; euskara sarri erabiltzen dutenak zein erdarazko harremanetan erabat murgildurik daudenak. Egia da, halaber, multzo koskortu bat –ia euskaldun delakoa– erdibidean gelditu dela euskalduntzeko ahalegimetan. Hala eta

guztiz ere, Vitoria erdal eta ilun hartatik bokazio elebiduna duen egungo Vitoria-Gasteizera alde ederra dago. (GEU elkarte, 2012)

Aldaketa hori, batez ere *Framing Aldarrikatzailearen* eskutik gertatu da. Hortaz, gizarte arabarraren sektore zabal batentzat hizkuntza hautemateko eta ulertzeko modu hori ez zaio urruti gelditzen; aitzitik, berarekin bat egiten du.

Aldaketak aldaketa, hala ere, euskarak bide luzea du aurretik lurralde horretako gizartearen leku nabarmena lor dezan, mendekotasun egoeratik aska dadin. Lan horren tamainaz ez dute zalantzarako tarterik uzten, oraindik orain kaleratu diren datuek:

...euskara erdara beste edo gehiago erabiltzen dutenak, hau da, euskararen erabilera trinkoa egiten dutenak %39 dira Gipuzkoan, %12,8 Bizkaian eta %4,3 Araban. Horietaz gain, euskara erabiltzen dutenak, baina erdara baino gutxiago, %11,3 dira Gipuzkoan, %7,7 Bizkaian eta %8,3 Araban. (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza, 2012: 16)

Hau da, euskararen erabilera ez da %13ra iristen, datu horietan erabilera solteak edo bakanak ere pilatuak izan diren arren. Hizkuntza baten bitzita, azken buruan, erabileran gauzatzen denez, euskarak Araban bizi duen berpizkundera behin-behinekoagoa izan daiteke pospolo baten sugarrak urakan betean daukan irauteko itzaropena baino. Berpizkundera etena izateko arriskua begi bistakoa da, baldin eta Araban egun indarrean dauden baldintza soziolinguistikoak atzean utzi eta egokiagoak diren beste batzuetara jauzirik egiten ez bada.

Esan dugunez, Araban eraldatu beharreko egoera soziolinguistikoaren alderdietako bat «*iritzi publikoak duen euskararen hautematea eta irudikapena*» da. Izan ere, lehentxeago (4.2 azpiatalean) osatu diren 8 tauletako eduki guztiak edo ia guztiak aurki litezke Arabako sektore erdaldun petoen, ia-elebidunen edota euskaldunen artean banatuta. Euskarak diskurtso mailan topatzen dituen zailtasun horiek guztiak ez dira, ordea, modu berdintsuan banatzen arabar guztiengan, baizik eta gizarte sektore bakoitzak dituen berriazko ideologia, sentimendu, bizipen eta abarren arabera.

Taula horietan jasotako uste, iritzi eta jarrerak aldatu ahal izateko, oinarrian dituzten hautemate eta irudikapenetan alde aurretik eragin behar

da; bereziki Arabako gizartearen muinetaraino sartuta dagoen *bortizkeria simbolikoan*, zeinak hizkuntza-zilegitasun osoa eta bakarra gaztelaniari onarzen dion; adibidez, lelo hau (1. taulan jasota) oso zabaldua dago, batez ere adinekoen artean: *Aquí nunca se ha hablado vasco*. Izan ere, iragan hurbileko egoera demolinguistikoaren inertziak euskararen presentzia publikoari (ia) ate guztiak ixten dizkio eta mendekotasun horretan euskaldunak ere –gehienetan, konturatu gabe– erabat harrapatuta daude: *Euskaldun askok eta erdaldun gehienek erdararen nagusitasuna barneratua izatea eta horren aurrean men egitea* (1. taulan).

Horregatik guztiagatik, *Framing Berri* baten premia handia da, hori baita ezinbesteko baldintza Arabako gizarte sektore gehienek, lehendabizi, euskararen normalkuntza onartu eta, ondoren, bultza dezaten.

5. Hizkuntzak ulertzeko paradigma berri baten bila

5.1. Paradigma zaharrak gainditu beharra

Esana dugu euskarak beste funts diskurtsibo baten premia duela, zeinak *Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing Uzkurra*, bi-biak, gaindituko dituen. Ikuspegi berri horrek ez du zertan gaitzetsi euskararen inguruan osatu eta erabili diren ikuspegien osagai guztiak, ez *Framing Aldarrikatzailearenak*, ezta *Framing Uzkurarenak* ere. Hala eta guztiz ere, oso garrantzitsua da *Framing Berriak* berariazko oinarria osatu eta balia dezan eta, era horretan, aurreko bi ikuspegiekiko autonomia osoa lor dezan. Pixka bat aurrerago argituko dugu hori guztia.

Arestian esan bezala, Euskal Herrian bertako hizkuntzen arteko harremanak antolatu eta gidatu ohi dituen *hizkuntza-nazionalismoaren ideologia* da, Moreno Cabrera (2008) hizkuntzalariaren kontzeptua gure eginez. Hor-tik sortuak dira elkarren kontra diharduten *framing* biak: hizkuntza-inperialismoaren *Framing Uzkurra* eta horren aurkako erresistentzia gisa sortu den periferiako nazionalismoaren *Framing Aldarrikatzailea*. Hortaz, eskema gisa, bata eta bestea txanpon beraren bi aldeak dira: *Framing Aldarrikatzailea* *Framing Uzkuraren* ifrentzua edo binperra baino ez da; alegia, *espainiar na-*

zioa/estatua/hizkuntza hirukoteari aurre egiten dion *euskal nazioa/estatua/hizkuntza* hirukotea.

Baina, gogoeta honen proposamena ez datza egun ditugun hizkuntza-harreman hierarkikoak iraultzean, egungo hizkuntza nagusiak eta menderatuak dituzten kokapenak bihar-etzi elkarrekin truka ditzaten, mendekotasun-harreman berri bat ezartzeko asmoz. Harreman hierarkikoak irauli ordeztu, asmoa litzateke harreman mota hori gainditzea. Hori bera da Sánchez Carrión «Txepetx»-ek ezin argiago aipatzen duen abiapuntua, Erizek gogorarazten digun bezala (Erize, 2012)⁹:

...lo que esta Teoría propone no es mayorizar la lengua minoritaria, minorizando a la mayoritaria, términos a los que la perspectiva estatalista –de uno y otro signo– intenta llevar reiteradamente el problema. (Sánchez Carrión, 1999: 282)

Pero esa articulación [de la comunidad lingüística minorizada], para que sea posible, debe ser cualitativamente superior al modelo al que se aspira a sustituir, porque difícilmente atraerá a su seno las adhesiones que necesita si provoca miedos y celos (capitalizables por el estado) a exclusiones y discriminaciones más virulentas ... (Sánchez Carrión, 1999: 77.).

Gure gizartean nagusitzen ari diren mundu globalizatuko parametro berrien poderioz, *Framing Aldarrikatzailearen* eta *Framing Uzkuraren* planteamenduak malgutzen joan dira poliki-poliki bertako hizkuntzen izaera eta erabilera ulertu eta interpretatzerakoan, arerioaren ikuspuntua, neurri batean eta itxuraz behintzat, onartu arte. Baina sakonean, bi *framing* horiek tinko darraite, oraindik ere, elkarren kontra egiten.¹⁰ Horren ondorioz, ezinezkoa gertatzen zaie bi diskurtso horiei beste planteamendu irekiago eta adosgarri

⁹ Xabier Erizeren testuko orri zehatzik ez da aipatuko idazlan hori oraindik argitara bidean da goelako.

¹⁰ Eusko Legebiltzarrak 2011n abian jarri duen Kontsumitzaileen Legea aldatzeko ekimenak erabat berresten du euskara antzemateko eta ulertzeko bi moduen arteko talka indarrean diraula. Gogoratu behar da Legebiltzarraren aldaketa horren ondorioz euskaldunok ez dugula euskaraz artatuak izan beharko saltoki handietan (Eusko Legebiltzarra, 2011ko urriaren 5eko *Osoko Bilkuraren Erabakiak*).

batera jauzi egitea. Hortaz, aurreko ikuspegi gatazkatsu horrekin erabat apurtuko duen beste paradigma bat behar denez, horren lanketari ekiteko komenigarria da mundu mailako soziolinguistikaren egiten ari den bideari erreparatzea. Ahalegin horietaz gogoeta argigarria utzi digu Xabier Erizek:

Hizkuntza ekologia da oraingo soziolinguistikaren hizkuntzen arteko harremanez erabiltzen ari den kontzeptu nagusietako bat (Ricento, 2000; Hult 2010). Indargune garbiak ditu, baina ahulguneak ere bai. (Erize, 2012)

Hizkuntzen ekologiaren mugak zorrotz aztertu eta gero, proposamen bikoitza egitera iritsi da egile hori:

- *Hizkuntzen ekologiaren kontzeptua koherentzia etikoan sakonduz berrindartzea. (...) (Horretarako) Irtenbiderik egokiena, nire ustez, Txepetxeren Berdintasunaren Diskurtsoa da. (Sanchez Carrion, 1987, 394. or.). Hizkuntza gutxitu batek, bere normalizazio prozesuan arrakasta lortu ahal izateko, hizkuntza nagusiak ez duen funtzio kualitatibo berri bat eskuratu behar du (Sanchez Carrion, 1999, 280-281. or.). Funtzio kualitatibo berri hori Berdintasunaren Diskurtsoa bereganatu eta bere izenean jardutea da... (...) Helburua, beraz, bikoitza da: (a) hizkuntza gutxituaren komunitatea trinkotzea, eta (b) eragina lortzea gizarte orokorrean, hizkuntza nagusien hiztunak areriotzat jo gabe. (Erize, 2012)*
- *Hizkuntza ekologiaren ordeztasuna (ing. sustainability) kontzeptu zabalagoa ikertu eta erabili. (...) Iraunkortasuna, ekologia ez bezala, gizarte zientzietan sortutako kontzeptu eta diziplina da eta giza komunitateen iraupen orokorra bermatzea bilatzen du, hiru dimentsio kontuan hartuta: sozio-kulturala, ekonomikoa eta ekologikoa; ez bakarrik alde ekologikoa (Nazio Batuen Erakundea, 1987). (Erize, 2012)*

Funtsean ados gaude Erizek atera dituen ondorioekin eta egin dituen proposamenekin, hala ere, zalantza bat dago tartean: *Hizkuntzen Ekologia* kontzeptuak komunikaziorako dituen adierazgarritasuna eta indarra ea maila berean aurkitzen ote diren *Berdintasunaren Diskurtso* edota *Hizkuntzen Iraunkortasun* kontzeptuetan. Izan ere, euskararen komunikazio eraginkorra xede dugun lerro hauetan, kontzeptuaren zorrotzasunari eta egokitasun

zientifikoari ez ezik, duen komunikaziorako gaitasunari ere erreparatu behar diogu, ezinbestez.

Ikuspuntu komunikatibotik begiratuta, egungo gizartean bada *filosofia ekolinguistiko* kontzeptuaren alde jokatzeko duen zerbait: natura zaintzearen aldeko aldarrikapena ezaguna da gizartean eta, hortaz, logika zein *marka* berdinarekin pean aurkezten den hizkuntzen ekologiak eginik du bide erdia; hots, ideia horren nondik norakoak ez dira erabat berriak edo arrotzak gizartearentzat, baizik eta ezagunak eta neurri handi batean partekatuak, iritzi mailan behinik behin. Ondoko lerroetan jorratuko ditugu gure asmorako balekoak diren hiru hurbilpen horietatik eratorritako zenbait ideia.

5.2. Framing Berriaren ardatza

Ekologiaren ideia hizkuntzen mundura ekarri zuen lehena Einar I. Haugen (1906-1994) izan zen *The Ecology of Language; Language science and national development* liburuarekin. Hizkuntza orok bere ingurunearekin dituen elkar eraginaren azterketa bezala definitu zuen hizkuntzaren ekologia egile horrek (Haugen 1972: 325). Hizkuntzak izaki biziduntzat jotzea, biologiaren mundutik hartutako metafora da. Ikuspegi horretatik abiatuta, hizkuntzen ekologiak honako bi hurbilpen nagusi lantzen ditu: a) ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko harreman ekologikoa; b) hizkuntza bakoitzak bere ingurune sozialarekin duen harreman ekologikoa (Vork Steffensen, 2007).

Hizkuntzen arteko ukipen egoeraren ikuspuntutik, hizkuntza handien eta txikien arteko harremanak aztertzen dira, eta hizkuntzen arteko orekari zein hizkuntza gutxituen biziraupenari ere erreparatzen zaie. <*Hizkuntza handiek txikiak jaten dituztela eta, hortaz, indartsuek baino ez dutela denboran irauten*> motako ideiak (*hizkuntzen darwinismo* eta planteamendu liberalekin) gainditzea eta hizkuntzen gaineko interbentzio planifikatua egitea aldarrikatzen da, hizkuntzen arteko harreman horiek zaindu eta arautu beharra azpimarratuz. Horretarako, aniztasunaren balioa oinarri hartuta, etika eta balio berriak bultzatu behar dira:

Biodibertsitatearen aldekoen irizpideekin bat gatoz askotan, kultur eta hizkuntza aniztasunaren alorrean. Biek ondarea babestu beharra dagoela

diote. Eta hori esateko arrazoia ez da etikoa bakarrik: bai aniztasun biologikoaren alde egitea, bai kultur eta hizkuntza aniztasunaren alde egitea ezinbestekoa da gizakiak ongi izateko, bizia babesten duen orekari eusteko eta nahi dugun bizi kalitatea eskuratzeko. Gaur egun badakigu badela erlaziorik biodibertsitatearen eta hizkuntza aniztasunaren artean. (Martí et al., 2005: 17-18)

Balio horiek XX. mendearen bukaeran hasi ziren hedatzen gurean ere, besteak beste Sánchez Carrión «Txepetx», Juan Carlos Etxegoien «Xamar» eta Jon Sarasuaren eskutik:

Lurra ere bakarra da, baina ez da uniformea. Batasun bat duen bio-dibertsitatea da. Arlo simboliko eta linguistikoa gauza bera gertatzen dela ulertzen badugu, ohartuko gara ez dela apustu zoro bat, gizaki bezala bizitzearen baldintza baizik (Sarasua, 1997: 32).

Balio horiek direla-eta, Maria-Jose Azurmendirentzat *Hizkuntzen Ekologiaren* paradigmak, honako arloak errespetatzen ditu: giza eskubideak, berdintasuna komunikazioetan, eleaniztasuna eta kulturak mantentzea, atzerriko hizkuntzak ikasteko sustapena (Azurmendi 2010: 146). Belen Urangaren ustez, hiru dira ekologiaren ikuspegitik kontuan hartu beharreko balio nagusiak: hizkuntza-aniztasuna, hizkuntza-berdintasuna eta hizkuntzen sistema orekatua (interdependentzia) (Uranga, 2011, 19-20). Battittu Coyosentzat, hizkuntza denek, *txikiek* barne, aberastasuna ematen diote gizadi osoari. (Coyos, 2010)

Baina, balio batzuk ez ezik, *Hizkuntzen Ekologiak* badarama bere baitan zenbait arrisku eta alde nahasgarri ere, Erizek ohartarazten duen bezala; horien artetik bi ekarri ditugu hona, gure argumentuaren hariari ongi egokitzen zaizkiolako:

- a) *Biologiaren eta hizkuntzen arteko paralelismoa irristakorra izatea.*
- b) *Bere ekarpenak (aniztasuna, holismoa, interakzioa, berdintasuna) aldez aurretik existitzea eta hizkuntza ekologiaren berezkoak ez izatea. (Erize, 2012)*

- a) Biologiaren eta hizkuntzen arteko paralelismo irristakorraren arriskua honetan datza: a) darwinismoa: alegia, espezie bizidunetan bezala, hizkuntza boteretsuek hizkuntza ahulak ezinbestez akabatzen dituztela

onartzea; b) bizidunek bezala, hizkuntzek ere biziraupen mugatua dutela asumitzea: jaiio, bizi eta hiltzen direla. Bi gertaera horiek ez dute hizkuntzen kasuan derrigorrez gertatu behar, eta *Berdintasunaren Diskurtsoak* edota *Hizkuntzen Iraunkortasunak* ez dute *Hizkuntzen Ekologiak* duen halako interpretazio arriskutsuetan erortzeko arriskurik.

- b) Erizek dioskun bezala, hainbat balio (*aniztasuna, holismoa, interakzioa, berdintasuna*) partekatzen dituzte *Berdintasunaren Diskurtsoak*, *Hizkuntzen Iraunkortasunak* zein *Hizkuntzen Ekologiak*; hortaz, hizkuntza gutxituen defentsari dagokionez, hiru hurbilpen horietan aurki daitezke balio interesgarri bertsuak.

Adibidez, Albert Bastardas-ek *Hizkuntzen Garapen Jasangarritik* funtsezko bost puntuok eratoritzen ditu, ekintzak eta ekimenak hizkuntza-garapen iraunkorraren alde nola zuzendu beharko lirатеkeen argitzeko (Uranga, 2011: 26-27):

1. interlingua handien gehiegizko erabilpenak mugatu eta hizkuntza-berdintasunaren zein elkartasunaren ideologia zabaldu;
2. gehiengo ez diren eta menperatuta dauden talde linguistikoen autoirudi duina berreskuratu;
3. aukera eman talde horiei, beren komunikazio esparrua kontrola dezaten eta modu autonomoan hizkuntza-erabilera publikoak erabaki ditzaten;
4. funtzio komunikatiboak banatu, gaur egun besteen menpe dauden talde linguistikoen kodeei funtzio eskusiboak eta eraginkorrak emanez;
5. gobernuak, enpresak eta, oro har, gizartea ohartarazi hizkuntza-garapen iraunkorra lortzearen garrantziaz, eta erabakiak hartzeko prozesuetan eragin soziolinguistikoko azterlanak erabiltzeko ohitura hartze-
ra gonbidatu.

Beraz, hiru diskurtso horiek elkarrekin dituzten balioen arabera, *Framing Berriak* defendatuko du hizkuntzen ekosistemako osagai guztiak –hizkuntza guztiak– balioitsuak eta zaindu beharrekoak direla. Behin hori onartuz gero, aurrerago argitu beharrekoak hauek lirатеke: funtzioak nola banatu hizkuntzen artean; hizkuntza bakoitzak bizirauteko bete behar dituen gutxieneko

funtzioak ezarri; transmisioa ziurtatzeko mekanismoak diseinatu eta aplikatu eta abar. Hizkuntzen arteko funtzio-banaketa horretan funtsezkoa den beste planteamendu bat subsidiaritatearena litzateke; alegia, hurbileko hizkuntza txikiak bete ditzakeen funtzioak hizkuntza horretarako gorde, hizkuntza handiak funtzio horiek jan ez ditzan. Azken planteamendu honek badu zerikusirik nazioarteko hizkuntza boteretsuei dagokienez ere: lekuan lekuko hizkuntzak bete ditzakeen funtzioetan, kanpoko hizkuntzaren bat ez erabiltzea.

Framing Berriak ez ezik, *Framing Uzkurak* ere aintzat har lezake printzipio hori. Adibidez, katalanaren edota euskararen aldeko aldarrikapenen aurrean gaztelaniaren defentsan ateratzen direnek aukera paregabea dute, subsidiaritate printzipio hori oinarri hartuta, zenbait funtzio bertako hizkuntzentzat gorde daitezela eskatzeko, horietan ingelesa erabili edo bultzatu ordez.¹¹

Bestalde, *Framing Berria* ezin egokiagoa izan daiteke hizkuntza boteretsuen ideologia hedatzailea deslegitimatuzko, eta hizkuntza hedatuen komunitateak ere hizkuntza gutxituen defentsara biltzeko:

Baina ezin gara geratu aipatu gabe, hizkuntza hedatuetako hiztunak bereziki sentiberak izan beharko luketela hizkuntza-arloan, jakin baitakigu gaur egun hizkuntza jakin baten irautpenak garai bateko egoeretan baino ahalegin handiagoa eskatzen duela, eta hizkuntzak bizirik irautea nahi bada, aldeko praktikak jarri behar direla abian [Bastardas 2005:43].
(in Uranga 2011: 21)

Kontuan hartu behar da, halaber, gehienbat aniztasunaren defentsan oinarritzen direla nazioarte mailan landu eta garatzen ari diren kulturaren eta hizkuntzaren inguruko irizpideak¹². Horrek balio erantsia ematen dio *Fra-*

¹¹ Hegoaldean ingelesaren mehatxu hori (oraindik) lekuz kanpoko delatzen pentsa liteke; dena den, gogoan izan behar da Iparraldean eragiten duen Frantziako legedia aldatua izan zela (1994ko abuztuaren 4ko 94-665 Legea), batez ere ingelesaren eraginari aurre egiteko eta frantsesaren erabilera bermatzeko.

¹² Hala nola, *Kultur Aniztasunari buruzko UNESCOren Deklarazio Unibertsala* (2001), *Aniztasuna eta kultura-adierazpideak babesteko eta sustatzeko UNESCOren hitzarmena* (2007), *Europako Kontseiluko Gutxiengo Nazionalen Babeserako Hitzarmen-markoa* (1994), *Eskualdeetako edo Ereku Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna* (1992), *Hizkuntza Eskubideen Deklarazio Unibertsala* (Bartzelona, 1996).

ming Berriaren planteamenduari, euskararen defentsak nazionalisten kontu hutsa izan behar duela sinesten dutenen aurrean.

Bestalde, arestian esan bezala, hizkuntza bere ingurune sozialetik hartuta ere lantzen da; hala nola egoera demografikoa, botereekiko harremanak, hizkuntzaren gaineko irudikapenak eta abar; azken buruan, Giles, Bourhis eta Taylor-ek (1977) garatu zuten hizkuntzaren *bizindar etnolinguistiko* –objektibo zein subjektibo– kontzeptuko osagaiak daude tartean, neurri handi batean.

Ohartarazi behar dugu, hala ere, *Berdintasunaren Diskurtsotik, Hizkuntzen Iraunkortasunetik* eta *Hizkuntzen Ekologiatik* eratorritako ideia horiek modu egokian landu beharko lirakeela komunikazio eraginkorra ahalbidetzeko eta, horrela, baliagarriak izan daitezzen *Framing Berriaren* eraikuntzan. Izan ere, gaur egun nagusi den sentsibilitate motatik hizkuntza-aniztasunaren ideiaraino jauzi egin ahal izateko, lan pedagogiko handia behar da, eta egin-kizun horretan komunikazioak zeresan handia du. Asmo horrekin, *Framing Berrian* jaso beharko lirakeen *priming* batzuk aipatuko ditugu, labur-labur eta adibide xume gisa:

- a) *Askotariko sistema*: Hizkuntza guztiek sistema bakarra osatzen dute, askotarikoa, non hizkuntza bakoitzak bere lekua duen.
- b) *Berdintasuna*: Sistema horretan hizkuntza guztiek balio berdina dute, horien hiztun-komunitateak txikiak izan ala handiak izan, botere-tsuak ala txiroak.
- c) *Ekosistema*: Hizkuntza bere ingurumarian ulertu behar da, alegia ingurune sozialaren kudeaketa soziolinguistiko egoki baten bitartez, horrela eginda, ekosistema horretan gehiegizko desantolaketarik gerta ez dadin.
- d) *Oreka*: Ukipen egoeran dauden hizkuntzen arteko oreka bilatu behar da, subsidiaritate printzipioa erabiliz eta hizkuntza gutxitukoei ezinbestekoak zaizkien oinarrizko funtzioak gordez.
- e) *Aberastasun unibertsala*: Hizkuntza denek, *txiki*ek barne, aberastasuna ematen diote gizadi osoari eta, hizkuntza horiek, guk geuk jakin ala ez, guztion ondare ditugu.

5.3. Framing Aldarrikatzailearen eta Framing Uzkuurraren egokitzapena

Arestian esan bezala, euskalgintza orain arte saiatu da, itsu-itsuan saiatu ere, gizarte sektore eta sentsibilitate guztiak *Framing Aldarrikatzailearen* planteamenduetara biltzen. *Framing Uzkuurrak*, bere aldetik, ez du ahalegin nahikorik egin euskarari bizirauteko beharrezkoak zaizkion neurriak ulertzen eta bultzatzen. Hemen landu nahi den estrategiak, aldiz, ohiko dinamika horiek gainditu nahi ditu, betiere norik bereari eusteko duen berezko joeraz jabetuta. Horregatik, hemen dugun asmoa ez da *Framing Aldarrikatzailea* ordezkatzea edota *Framing Uzkuurra* gure artetik ezabatzea, besteak beste, nahi izanda ere, ezinezkoa litzatekeelako.

Gogoeta honen asmoa, arestian esan bezala, hauxe da: euskararen inguruan dauden bi sentsibilitateak mugiaraztea eta, bi-biak biltzea hizkuntza horren aldeko elkarlana egin ahal izango duten baldintza berrietara. Horretarako, lau helburu zehatz ezarri genituen (4. atalaren hasieran): a) *Euskararen mamuak* uxatzea; b) *Framing Uzkuurraren eragina indargabetzea*; c) Euskararen *aldekotasuna piztu* edota *indartzea*; d) Euskararen komunitatea *bortizkeria sinbolikotik askatzen* hastea eta euskaltzale zintzoak *auto-estimua berreskuratzea*. Lau maila horien lanketarako beharrezkoak diren edukiak *Framing Berriaren* ardatz nagusitik eratorri beharko dira, gehienbat, baina baita *Framing Aldarrikatzailetik* eta *Framing Uzkuurretik* ere.

Zalantza bat piztu daiteke puntu honetara iritsita: *Framing Aldarrikatzailea* eta *Framing Uzkuurra* elkarren kontrakoak izanda, posible ote da bi-biak *Framing Berriaren* altzora biltzea? Auzi hori argitzeko badugu Erizek arestian proposatzen zuen *Garapen Jasangarriaren* planteamendua, zeinak kontzeptualizazio integratzaile batean –aurkakoak direnak elkartzeko borondatean– duen abiapuntu; alegia «*elkarren aurkako izan daitezkeen kontuen sintesia*», Albert Bastardasen ideia gogoraraziz (Uranga, 2011: 30). Soziolinguistikara ekarrita, aurkarien arteko integrazioa honako hau litzateke: hizkuntza handien hedapen glotofagikoa *versus* hizkuntza-aniztasunari eustea eta bere garapena bultzatzea.¹³

¹³ Abel Irizarren lan berritzaile bat (Irizar, 2007) adibide egokia da elkarren aurkakoak izan litezkeen ikuspuntu ekolinguistikoa eta arrazionaltasun ekonomikoa batera jartzeko ahaleginen

Gure kasuan, hedapen glotofagiko hori *Framing Uzkurrearen* baitan agertzen da, baina gaur egun zailago zaio halako planteamendu bati eustea, nazioarte mailan dagoen aniztasunaren aldeko korrante kementsuaren aurrean. Are zailago, oraindik, euskararekiko axolagabekeria adieraztea ondo ikusita ez dagoen une honetan, EAEko datuek erakusten duten bezala: *Euskara galtzea niri ez zait arazoa iruditzen* bezalako baieztapenak biztanleriaren %82 aurka dauka (Prospekzio Soziologikoen Kabinetea, 2011: 11). Gizartearen aldekotasun horrek, epela bada ere, *Framing Berriaren* magalean aurki dezake diskurtso onargarri eta lasaigarria.

Horrezaz gain, *Framing Berriak* inongo kulturarik edo hizkuntzarik baztertzen ez duenez, alegia gaztelania/frantsesaren auka ez doanez, ikuspuntu filosofiko horretatik egiten diren euskararen aldeko planteamenduek ez dute asaldatu *Framing Uzkuraren* inguruan kokatzen den biztanleria.

Framing Aldarrikatzaileak ere ez darama bere baitan hizkuntzen aniztasunaren defentsa, egoera soziolinguistiko gutxituan aurkitzen den euskararena baizik. Elebakartasun hori egunerokoan gainditua den eztabaida litzateke. Izan ere, gogoeta edo planteamendu teorikorik gabe gertatu bada ere, *Framing Aldarrikatzaileak* barneratuta dauka euskara ez ezik, erdarak ere beharrezkoak direla. Arestian aipatu den *Nazioa/Estatua/Hizkuntza* hirukotea globalizazioak eta egunerokotasunak hautsi egin dute, eta hasierako irudikapen horren egungo bertsioa beste hau litzateke: *Nazioa/Estatua/Hizkuntzak*, non Euskal Herriko berezko hizkuntza denak –euskarak– kanpoko beste batzuekin osatua izan behar duen: gaztelania/frantsesa (Hegoaldean eta Iparraldean, hurrenez hurren), gehi ingelesa, alemana, txinera eta abar.¹⁴

Badirudi, bada, *Framing Berria* gizarte osora hedatzeko aukera egon badagoela; *Framing Aldarrikatzailearen* zein *Framing Uzkuraren* sektoreetara ere bai, praktikan bi *framing* horietako oinarri sozialak norabide horretan

berri izateko. Lan horretan hizkuntzen ekologiaren planteamendua ekonomia errearen bihotzean –lantokian– txertatu nahi da, estrategia hori baliatuta, euskararen etorkizuna eremu horretan bermatzeko asmoz. Hortaz, Irizar bi izaera-mota, bi balio-sistema eta bi indar-maila ezberdin dituzten ikuspuntuak harremanetan jarri eta bat etorrarazten saiatzen da.

¹⁴ Aurreko aipuan jasotzen den Abel Irizarren lanak, adibidez, enpresaren eleaniztasuna du oinarri.

pausoak ematen hasiak dira-eta; hau da, posible omen da berezko aurkariak direnak kontzeptualizazio integratzaile berri baten aterkiperara biltzea.

Posible ez ezik, beharrezkoa ere bada ongi bideratzeko etorkizuna, herri bezala, aniztasunaren ukazioak kolore iluneko etorkizuna margotzen baitu:

Hala da hori guztia (aniztasunaren ukazioa), bai, errazagoa, sinpleagoa eta atseginagoa, alegia; baina pobreagoa eta gatazkatsua ere bada, ikuspegi etikotik guztiz arbuiagarria gainera, ez baita bidezkoa ez eta eraginkorra ere bizikidetzat harmoniatsu bat hezurmamitzeko. (Baztarrika, 2009: 35)

Hala ere, orain arte esandakoagatik pentsa litekeenaren kontra, egungo *Framing Aldarrikatzailearen* eta *Framing Uzkuraren* eduki guzti-guztiak ez dago zertan baztertu. *Framing Aldarrikatzaileak* badu *Framing Berrirako* jaso behar den ikuspuntu garrantzitsu bat, gutxienez: euskara hemengo eta gure hizkuntzat hartzea, beste inon existitzen ez dena. Pizgarri hori *Framing Uzkurreko* jarraitzaileek ere onar dezakete, baldin eta planteamendua euskal komunitate etno-kulturalaren izenean eta horren nortasunaren osagai gisa erabiltzen bada; hots, euskara ez planteatzea denek onartu beharreko euskal nazioaren hizkuntza legitimo bakartzat. Komunitate etno-kulturalaren izenean aurkeztuta, euskal herritar sentimendua duten guzti-guztiak (*euskal herritar baino ez gehi euskal herritar bezain espainiarrek*) denon ondare den euskara defendatzea zilegi bezain logikoa da.

Framing Uzkurak ere badu *Framing Berrirako* harri koxkor baliotsua. Izan ere, hiltun guztiak berdintasunean eta diskriminaziorik gabe tratatuak izateari inork ezin dio muzin egin, ezta askatasun osoz hizkuntza-hautua egiteari ere. Horrela izan dadin, halere, ezinbesteko baldintza da exigentzia hori bi norabidekoa izatea; alegia, euskaldunentzat zein erdaldunentzat berdin-berdin balio izatea.

Egia da, adostasun bila ibilita ere, bi hiltun multzo horien interesak kontrajarriak izango direla hainbat egoeratan; horregatik, asmo desiragarri horretara iristeko bi sentsibilitate ezberdin eta kontrajarri horiek elkarrekin hausnartu, negoziatu eta adostu beharko dituzte denontzako onurarik handienak eta kalterik txikienak dakartzaten neurriak eta funtzionamendu arauak. Eskaera horiek gainera bat datoz *Euskararen erabilera normalizatze*

Legearen 4. eta 5. artikuluek jasotzen dutenarekin¹⁵; baita *Berdintasun Diskurtsoarekin*, *Hizkuntzen Jasangarritasun* edo *Iraunkortasunarekin* eta *Hizkuntzen Ekologia*aren filosofiarekin ere.

Azken buruan, egungo bi *Framingak* egokitu beharko dira *Framing Berria*ren filosofiaren aurrean, bakoitzak bere ekarpen propioa egin, bai, baina aldi berean filosofia horrekin talka egin lezaketen plantamenduak baztertuz.

5.4. Gizarte aldaketek dakarten gaurkotu beharra

Arestian azaldu ditugun *Framing Aldarrikatzaile*aren mugek ez dute jaso hurrengo lerroetan jorratuko den ikuspuntua, horren eduki batzuk lehenago azaldu ditugun batzuekin erraz lotu daitezkeen arren. Izan ere, Kataluniako *Plataforma per la Llengua*-k landu duen hizkuntzaren aldeko diskurtsoaren berrikuntzatik ere badugu zer ikasi euskararen *Framing Berria* osatzeko dugun asmo honetan. Josep-Anton Fernándezek, 2011n Lasarte-Orian emandako *Nuevos discursos y nuevas estrategias a favor del catalán* izeneko hitzaldian horrela deskribatzen zuen aldaketa horren abiapuntua:

...los discursos sobre los cuales se apuntalaba la política lingüística oficial y el activismo lingüístico se basaron, hasta finales de los años 90 e inicios de la década siguiente, en el concepto de «recuperación». (...) Sin embargo, el discurso de la recuperación empezó (...) a mostrar signos de cansancio y claras muestras de sus limitaciones. Este discurso, centrado alrededor de la experiencia y el punto de vista de los catalanohablantes de origen (el catalán como primera lengua o lengua familiar), presentaba una considerable fuerza legitimadora para con este segmento de la población. No obstante, a medida que se iban incorporando nuevos hablantes a la comunidad lingüística catalana y que se intensificaba la manipulación política de la cuestión de la lengua, se empezaron a hacer evidentes las limitaciones... (Fernández, 2011: 3)

¹⁵ Gogora dezagun horrela dioela lege horrek, 4. eta 5. ataletan: «Euskal Herriko herritar guztiak dute hizkuntza ofizialak jakiteko eta erabiltzeko eskubidea, bai ahoz eta bai idatziz...» «Herri-agintek Euskal Autonomia Erkidegoan hizkuntza dela-eta inor diskriminatu ez dadin zainduko dute eta neurri egokiak hartuko dituzte.»

Ikuspegi hori aintzat hartuz, egin beharreko galdera da ea euskara berreskuratzearen aldeko planteamenduarekin beste horrenbeste gertatzen ote den. Bestela esanda, euskaldundu berriek beren burua ongi islatuta ikusten ote duten ohiko aldarrikapen euskaltzaleetan.

Lerro batzuk lehenago ere (3.3 atalean) Jone Miren Hernándezek euskal gizartearen gertatu diren zenbait aldaketaren berri jasotzen bazuen ere (euskara bigarren hizkuntzatzat duten euskaldun berriez eta etorkinen kasuez), horietan ez da agortzen *Nuevos discursos y nuevas estrategias a favor del catalán* delakoak azaltzen duen aldaketa osoa. Kataluniako egoerak eta Euskal Herrikoak, berdin-berdinak izan gabe, badute antza eta, katalanaren inguruko diskurtso aldaketaren muinari (Fernández, 2011: 5-6) gertutik erreparatuz gero, hobeto baloratuko dugu hango esperientziak noraino balio duen euskararen kasurako ere.

Honako hau da aldaketa horren zioa: «*crear nuevos consensos mediante la incorporación del punto de vista de los nuevos hablantes al centro de los discursos sobre la lengua*» (Fernández, 2011: 4) eta egindako berrikuntza puntu haue-tan gauzatu da: 1) Berreskuratzeak irabaztera; 2) Hizkuntzaz aldatzetik norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasunera; 3) Integraziotik adopziora; 4) Biziraupenetik ongizatera; 5) Sakrifiziotik saritutako ahaleginera; 6) Kataluniako berariazko hizkuntzatik katalan guztien hizkuntzara.

Idea horiek abiapuntu, ekin diezaiozun euskararen inguruko diskurtsoak beharko lukeen aldaketaren analisiari, ahalegin horretan Kataluniatik eskuratutako gogoeta euskal gizartearen ezaugarri eta baldintzen argira aztertuta.

1) *Berreskuratzeak irabaztera*: Berreskurapena gertatu ahal izateko, aurretik zerbait galdu behar da. Baina gaurko gazte gehienek ez dute ezer galdu, ez dute ezer galdutzat ematen. Batzuek, euren aitona-amonei entzunda edo, Francok ezarritako euskararen gaineko debekuaren berri izango dute, baina berariazko eta zuzeneko bizipenik ez dute; aitona-amonen kontuak dira horientzat. Beste gazte batzuek, aldiz, ez dute halako aztarnarik ere izango; bertako zein kanpoko familien ondorengoak izanda, euskara eskolan *deskubritu* dute eta ez dute hizkuntza hori galdutzat ematen; ez dute berreskuratu beharrik; behar bakarra *euskara ikasgaia* gainditzea dute.

Lurralde batzuetan euskara aspaldian –XIX. mendean edo XX. mendearen hasieran bada ere– galdua izanik, litekeena da bertakoei entzutea *hantxe ez dela inoiz euskaraz hitz egin, oroimen historikoa* norberaren edota gurasoen historia laburrera mugatzen baita maiz. Ez dute zer berreskuratzerik, beraz. Antzekoa edo are gordinagoa da etorkin berrien kasua; ez dira ukituak sentituko beraiena eta beraien sorterrikoa ez den zerbait berreskuratzeko aldarrikapena entzutean; ezta hurrik eman ere, nahikoa dute-eta egunerokoan aurrera egin ahal izatearekin.

Hala ere, bertako erdalduna izan edo harrera-gizartean txertatzeko irrikan dagoen etorkina izan, bi-biek *badute zer irabazi* euskararekin. Izan ere, *euskara berreskuratzerik ez duten* horiei, herritar gisa dituzten aukerak zabal-tzen eta areagotzen zaizkie elebiduna den gizarteko bi hizkuntzak erabili ahal izatean; eremu eta giro mota gehiagotara sartzeko aukerak areagotzen dituzte. Horrela ikusita, bi aldeak dira irabazle: euskararen komunitatea zein erdaldunak beraiek.

Euskararekin *irabazi* egiten dela esate hori gutxi landu eta hedatu da, salbuespenak salbuespen.¹⁶ Baina ideia hori, *Framing Berriko priming* gisa balekoa litzatekeelakoan gaude, hartzailea edonor izanda ere, nola bertakoa hala etorkina, nahiz euskalduna nahiz erdalduna. Azken buruan, eta Fernándezek dioen bezala, jokoan dagoena hizkuntzarako hitzun berriak eta osagai aberasgarriak lortzea da:

...para la comunidad lingüística, lo que está en juego no es la recuperación de ámbitos perdidos, sino la ganancia de nuevos miembros que le aseguran el futuro y proporcionan a la lengua nuevos acentos y matices expresivos. (Fernández, 2011: 5)

2) *Hizkuntzaz aldatzetik norberak aukeratutako eta gidatutako eleaniztasu-nera*: Arestian esana dugu *Framing Aldarrikatzailea* zein *Framing Uzkurra*, bi-biak, elkarren ukatzaileak eta baztertzaileak direla. Gauzak horrela, euskararen alde egiteak teorikoki nolabait gaztelaniari uko egitea dakar, prak-

¹⁶ Adibidez, Arabako Kuadrilla eta Udaletako Euskara Biziberritzeko Plan Nagusian (EBPN) kokatzen den «*Elebiduna naiz, aberatsa naiz*» kanpainak ildo horri heltzen dio (azken kontsulta: 2012-01-10): <http://www.euskaraba.com/euskara/albisteak/elebiduna-naiz-aberatsa-naiz>

tikan horrela ez bada ere. Hizkuntzaz aldatzearen ideia horrek eleaniztasuna ukatu eta pertsona bidegurutze baten aurrean kokatzen du: bata ala bestea hautatu beharra. Kataluniako *Plataforma per la Llengua*-k, ukipen egoeran dauden bi hizkuntzen arteko aurkakotasun horrezaz jabetuta, eleaniztasunaren eta hizkuntza-aberastasunaren alde egin du:

...hablar catalán y adoptarlo como lengua habitual se describía como un «cambio», lo cual sugería también una transformación a nivel subjetivo que no siempre es deseada, y que puede percibirse como la necesidad de renunciar a la lengua de origen; nosotros preferimos describir esta experiencia como la incorporación de una nueva lengua al repertorio del hablante, que no requiere una renuncia a los orígenes ni a la propia identidad, sino aprender a compatibilizar las diversas lenguas que se hablan según los espacios, ya sean privados o públicos, en que se usan. (Fernández, 2011: 5)

Framing Berriak ere eleaniztasunaren aberastasuna bere egiten du, betiere hizkuntza gutxituaren biziraupen duina eta osasuntsua bermatzeko premia argi utzita.

3) *Integraziotik adopzioa: Integratzea eta parte izatea* ez dira berdin-berdinak. Gu ez bezalakoak gurean integratzea eskatzen denean, beren izaera utzi eta gurea har dezatela eskatzen da; eskuarki etorkinekin erabiltzen dugun kontzeptua da. Baina ohiko adiera hori hedatuz, integrazioaren zantzuak aurki daitezke bertako erdaldun elebakarrak euskarara bil daitezela eskatzen denean ere, ikuspuntu beretik abiatzen delako: «*<integrarse> supone entrar en una constelación discursiva, de representaciones y de prácticas que exige la desintegración de la propia.*» (Fernández, 2011: 5)

Horrela ulertuta, integrazioaren ardatza gu geu gara, gure komunitatea, integratzeke dagoen horrek mendeko hierarkia-maila du gurekiko eta, hortaz, aldatu behar du gu bezalakoak izan dadin; gurean integratu ahal izateko ezin du den bezalakoak izan, horri uko egin behar dio neurri batean:

...el énfasis de este concepto se halla sobre la sociedad de acogida, y no sobre la voluntad y el esfuerzo de la persona que se incorpora a la comunidad lingüística y nacional. (Fernández, 2011: 5)

Ikuspuntua iraultzea da gakoa. Gu ez bezalakoak den horren lekuan jarri, ikuspegi horretatik guk uler dezagun euskararekin eta euskal komunitatearekin bes-

te horrek izan lezakeen harremana nolakoa litzatekeen; beste horrek nahiko lukeena hauxe da: gure hizkuntza onartu eta adoptatu, bereari uko egin gabe:

Desde nuestro punto de vista, el nuevo hablante no es el objeto de la integración, sino el sujeto de la adopción: es él quien adopta la lengua y la sociedad que le acoge, estableciendo con ellas una relación afectiva de carácter permanente. (Fernández, 2011: 5)

Hortaz, beste horren izaera propioari begirunea zor zaio eta den berbera izaten jarrai dezala onartu beharra dugu, batetik. Bestetik, euskararen komunitateak ulertu eta eskertu beharko dio hurbiltzen zaigunak egiten duen ahalegina, ez nahitaezko eginkizuntzat hartu.

4) *Biziraupenetik ongizatera*: Hau da katalanaren egoerarekin distantziarik handiena duen dimentsioa. Izan ere, Kataluniako hizkuntza euskara baino askoz egoera hobean dago, nola hitzun kopuruari hala gizartean betetzen dituen funtzioei dagokienez. Hala ere, euskararen geroari begira, ideia hori hemen jasotzeari interesgarri deritzogu:

Preferimos, pues, la metáfora del bienestar del catalán, que se corresponde mucho mejor con su estatus de lengua mediana: los retos que tiene planteados el catalán actualmente no pasan por evitar el riesgo de extinción, sino por conseguir un nivel de uso social y de reconocimiento legal y político que la homologue a otras lenguas de la Unión Europea con un número parecido de hablantes. (Fernández, 2011: 5)

Alde ederra, beraz, euskararen egoerarekin. Hala ere, euskarak bizirautea ezinbesteko helburua den arren, irautearen aldeko aldarri hori ez ote da bizitza arriskuan duenarena? Bizitza oparo baten itxaropena galdua duenaren orroa, nonbait? Euskara arrisku horretatik erabat libre ez izan arren, hobera egiten ari delakoan gaude, larritasun egoeratik ateratzen eta zainketa intentsiboetako gunetatik at, infekzio hilkorrez kutsatzetik guztiz libre ez dagoen arren.

Horregatik, eman beharreko pausoa beste modu batera izendatu beharko genuke, euskarak duen egoera baino are irudi ezkorragorik ez emateko. Izan ere, egoerak deskribatzeko erabiltzen diren hitzak garrantzitsuak dira euskara hautemateko eta ulertzeko erak (*framingak*) hizpide ditugun lerro hauetan, *framing* orenen *primingak* horiek baliatzen dituztelako. Beraz, *euskararen biziraupenaren* ordez zer beste hitz eman daiteke? Dagoeneko erabi-

lia den *euskararen biziberritzea* izan liteke? *Euskara berpiztea*, agian? *Euskara sendotzea* edo *bizindartzea*...? Lerro hauetan puntua jartzea baino ez dagokigu, eta eztabaidagai jarri dugun horri modu egokian erantzun diezaioketen aditu trebatuak eta gaituak baditu euskal filologiak. Kontua zera da: lehen-dabizi, euskararentzat nahi dugunaren inguruan termino egoki bat aurkitzea, itzaropentsu eta liluragarri gerta litekeena; ondoren, aukeratutako terminoa euskararen inguruko komunikazioan erabiltzea.

5) *Sakrifiziotik ahalegin saritura*: Sakrifizioa eta nekea omen dira euskara ikasi, erabili eta bizi-indartzeko saioen ezinbesteko oinarria. Hori zein gizarteratua dagoen ikusteko, gogoratu besterik ez dago orri batzuk atzerago (1-8 tauletan) jaso diren eta euskara ikasi eta erabiltzeari buruz gizartean dauden usteak eta hautemateak. Euskararen aldeko saio horiek klabe horretan ulertuz gero, asmo horiek bereganatu eta aurrera eramateko pertsona orok behar dituen adorea eta motibazioa izugarriak dira; askotan, erdaldun elebkarrek euskara ikasteko eta euskaldun epelek hizkuntza hori erabiltzeko dituztenak baino handiagoak. Auzi hori irauli egin nahi izan dute Katalunian, beste ikuspuntu hau erabiliz:

Nosotros ponemos el énfasis en la noción de esfuerzo: el del nuevo hablante que gana acceso a nuevos espacios y oportunidades y culmina el esfuerzo de sus padres o abuelos al establecerse en Cataluña, y el de la sociedad catalana, que se garantiza un futuro de bienestar al incorporar nuevos ciudadanos y nuevos hablantes a su comunidad lingüística.
(Fernández, 2011: 6)

Hau da, ikasteko eta erabiltzeko ahaleginaren premia egon badagoela ukatu ordez, azpimarratzen da ahalegin hori saritua izango dela eta onurak ekarriko dituela, norbanakoentzat zein besoak zabaltzen dizkion hizkuntza-komunitatearentzat. Bistan da, arestian jorratu den *irabazte* ideari lotuta dagoela ahalegin sarituaren kontzeptua.

6) *Bertako berariazko hizkuntzatik herritar guztien hizkuntzara*: Ideia hau gurean ere erabili izan da, euskarak herritar guztien lotura izateko duen aukera aipatzeko edo amesteko; hona hemen adibide bat:

Euskara identitatea oinarrizko baimo gehiago identitatea osatzeko erabiliko da. Hizkuntza kare-mortero bilakatuko da. Identitateak gero eta

konplexuagoak, malguagoak, likidoagoak, zatituagoak izango direnez, espazioak hurbiltzeko, genealogiak lotzeko eta aniztasuna kudeatzeko, kare-argamasa beharko dugu. Hortik aurrera, nire ustez airean geratuko zaigun galdera hauxe da: zein osagairekin gorpuztu kare-mortero hori? (Hernández, 2011: 19)

Nortasun konplexuak eta askotarikoak ohikoak zaizkigun une honetan, herri bat osatzen dugun aldetik zerbait partekatu beharra dugu: lurraldea, erakunde publikoak, elementu sinbolikoak eta abar. Hizkuntzak nortasun-ikur gisa indar handia dutenez, euskara izan liteke gure herriaren lokarrieta-ko bat, sendoenetakoa dudarik gabe.

... aquella lengua que estructura la vida pública en un contexto de multilingüismo, que reconcilia la individualidad de cada persona con la pluralidad necesaria en toda sociedad democrática y con la necesidad de compartir referentes y valores para poder convivir y asegurar la cohesión social. En este sentido estamos desarrollando un discurso plenamente liberal. (Fernández, 2011: 6)

Arestian esaten genuen bezala, herritar gisa edozein sentimendua izanda ere (euskalduna baino ez / euskal herritar bezain espainiar / euskalerriratu-tako kanpotarra), herritar guztiena den ondarea eta lokarria –euskara– guzti-guztiek defendatzea zilegia bezain logikoa litzateke.

6. Azken gogoetak: *Framing Berria Arabarako*

Ezagunak dira euskaltzaleen ohiko diskurtsoak dituen zailtasunak eta mugak euskara zalantzan jartzen duen planteamenduari aurre egin eta hizkuntza horren aldeko giroa birsortzeko eta hedatzeko. Izaera kulturala eta ezaugarri demolingüistiko eta soziologikoak direla medio, Araban zailtasun horiek are nabarmenagoak dira. Horregatik, euskarak lurralde horretan aurrera egingo badu, jauzi kualitatibo bat egin behar da hizkuntzekiko ohiko planteamenduetatik haratago; alegia, euskararen aldeko *Framing Berri* bat eraikitzea ezinbestekoa da. Planteamendu berri horrek euskararen aldeko den *Framing Aldarrikatzailearen* eta hizkuntza hori zalantzan jartzen duen *Framing Uzkuraren* arteko *aurkarien jokoa* gainditu behar du; baita lekua

sortu ere bi ikuspegi kontrajarri horiek euskarara bil daitezzen. Hori lortzeko *Framing Aldarrikatzailearen* hainbat alderdiri pentsatu bat eman behar zaie, hala nola, gaur arte gehienbat klabe nazionalistan ulertzen den dimentsio identitarioari, gizarteak pairatzen duen bortizkeria sinbolikoari eta diskurtso zaharkituaren gabeziei. Era berean, bestalde, *Framing Uzkurra*ren hedapenaren aurrean *Framing Berriak* estrategia jakin bat ere ahalbidetu behar du, jomuga hauekin nagusiki: euskararen mamuak uxatzea; *Framing Uzkurra*ren eragina indargabetzea; gizarte sektore horietan euskararen aldekotasuna piztu edota indartzea. Estrategia horren baitan ere aztertu beharko da *Framing Uzkurra* zer-nolako ideia-gakoak erabiltzen dituen euskararekiko zalantzak edo ukazioak suspertzeko (horretarako, 4.2 azpiataleko taulen bilduma abiapuntu egokia izan daiteke).

Pauso bat gehiago emanda, *Framing Berriaren* ardatz nagusia osatzeko hiru planteamendu hauen oinarri filosofikoak proposatzen dira: *Berdintasunaren Diskurtsoa*, *Hizkuntzen Iraunkortasuna* eta *Hizkuntzen Ekologia*. Filosofia horiek partekatzen dituzten zenbait balioen gainean (aniztasuna, holismoa, interakzioa eta berdintasuna, batez ere) hizkuntzen –ez soilik, euskararen– inguruko planteamendu berria eraikiko litzateke, era horretan egungo bi diskurtso nagusien funtsa (*nazionalismo linguistikoa*) gaindituz. Oinarri horrekin posible litzateke euskararen inguruko bi sentsibilitate kontrajarriak mugiaraztea eta, ondoren, bi-biak hizkuntza horren aldeko elkarlanean has daitezzen ahalbidetzea.

Oinarri filosofiko horiek euskararen aldeko defentsan inon lagungarri gerta daitezke, baina Arabako gizartean are zutabe sendoagoa osa dezakete. Izan ere, Euskal Herriko beste lurralde batzuetan euskarak *Framing Aldarrikatzailearen* makulua balia dezake normalkuntzaren bidetik aurrera egiteko, baina euskarri dirkurtsibo horren audientzia Araban ahulagoa da eta, gainera, beste gizarte sektore zabal baltzuk uxatzen ditu; adibidez, halako uste hedatuaren eskutik: *euskararen erabilera ideologiko-politikoa da*, edo *euskararen normalizazioaren azken helburua gazteleari gailendu eta inposatzea da* (1. eta 7. taulak).

Era berean, kutsu politizatuko iritzietatik aparte badaude, arabar askorengan, euskarekiko distantzia sinboliko eta kultural handia eta interes

pragmatikorik eza; esaterako: *euskal kultura (cultura vasca) bi hizkuntzez osatzen da eta gaztelania jakinda ezagutzen da kultura hori edo euskarari ez zaio zentzurik, interesik edo balio pragmatikorik ikusten: lanpostu ospetsuetarako euskarak ez du baliorik...* (6. taula).

Horrela jarrai genezake adibide-sorta luzea eskaintzen, arrazoi bategatik: Arabako gizartearen hainbat sektoretan, *Framiming Aldarrikatzaileak* betetzen ez duen hutsunean ez dago bestelako argudiorik euskarari buruz estimu berezirik sentitzeko. Asmo horrekin proposatu dira *Framing Berriaren* funtsarako oinarri filosofiko horiek; alegia, hizkuntza aniztasunaren izenean, gaztelaniarekin batera, euskarak ere lekua izan dezan.

Baina oinarri hori ez ezik, *Framing Aldarrikatzaileak* zein *Framing Uzku*rrak egin ditzaketen ekarpenak ere aintzat hartu behar dira *Framing Berrian*. Alegia, gainditu behar da euskararen defentsa *Framing Aldarrikatzailearen* eskuetan soilik gelditzea. Euskara batzuentzat hizkuntza nazionala edo beste batzuentzat hizkuntza *nazionista* –Fasolden terminologian– izanik ere, helburua da arabar guzti-guztiek euren ondare identitariotzat –pisu ezberdinarekin, seguru asko– jo eta, hortaz, denok defendatu beharreko hizkuntzat har dezatela. Era berean, *Framing Uzku*rrak egun defendatzen dituen balio batzuk herritar guztiengana hedatu beharko dira; adibidez, euskararen edo erdararen hitzunak izan, guztiek berdintasunean eta diskriminaziorik gabe tratatuak izatea eta askatasun osoz hizkuntza-hautua egitea. Urteak joan, urteak etorri, zaharkituta gelditu diren euskararen inguruko ohiko zenbait ikuspunturi ere gaurkotu bat eman beharko zaie, *Framing Berriaren* osagaietara gehitzeko, era horretan planteamendu hori gizarte sektore zabalagoen izaerara eta sentsibilitatera irekiko delakoan.

Hala ere, esandako edukiez osatuta, inork ez dezala pentsa *Framing Berriak* indar nahikorik izango duenik euskararen presentzia Arabako gizarte osora zabaltzeko eta suspertzeko, besterik gabe. Eragin mugatua izan dezake soilik oinarri filosofiko eta kontzeptualen gainean eraikitzen bada. Horregatik, oinarri hori ez ezik, egunerokotasunak dituen premiei ere erantzun *ukigarri* bat eman beharko lieke *Framing Berriak*. Buruan darabilgun osagai eraginkor bat *gizarte sariarena* litzateke; hau da, gizarteak saritzea hizkuntza gutxituaren alde egiten duena, itzal handiko soziolinguistek aholkatzen duten bezala:

Nolanahi ere, abisu latza ematen digu Fishmanek. Garrantzitsua dela, oso, euskara eta bere kultura gizarteko ordainsarien markoan (zentzu zabalean) ongi txertatzea. Behar-beharrezkoa duela hori euskaldungoak, belaunex belaun bizirik iraungo badu. (...) Gomendio zehatza da berea: <Social reward> eta <sanction> sistema ez dezagula begien bistatik galdu, benetako euskalgintza osasuntsua aurrera atera nahi badugu. (Zalbide, 2008: 24)

Nolanahi ere, gizarte sektore batzuen ustez, egungo egoera soziolinguistikoak ez dio euskarari abantaila handirik eskaintzen hizkuntzen merkatuan lehiatzeko, jasotako iritzien bildumak erakusten duen bezala (4.2 azpiataleko 1-8 taulak). Hortaz, *gizarte-sariaren* ideiak ez du Araban lekurik, gaur egun, *Framing Berriko* osagaietako bat izateko. Izan ere, komunikazio-estrategia batean transmititu nahi den mezuak sinesgarria izan behar du lehenik eta behin, bestela kontrako efektua eragin lezakeelako. Hortaz, *Framing Berri*an oraingoz *gizarte saririk* erabiltzerik ez dagoen arren, baliteke gizarte baldintza berri batzuek halako helduleku sendo baten aukera ahalbidetzea aurrerago.

Gabeziak gabezia, *Framing Berriak*, bere horretan ere, badu zereginik, eta bide horretatik abiatzeko oharren bat eman behar diogu komunikazioaren trikimailuekin ohituta ez dagoen irakurleari. Ohartarazi behar dugu *Frame Berriaren* edukiak kaleratu aurretik *sukaldaritza elaboratu eta planifikatu* baten premia dagoela, eta horretan marketinoko estrategia baliatu beharko dela. Bide horretatik eman beharreko pausoak, labur aipatuta, honako hauek lirateke:

1. Euskararen inguruko *Frame Berriaren* balizko *merkatua* arabar gizarte osoa izanik, sektore ezberdinek euskararen inguruan dituzten premiak, iritzia eta jarrerak zehatz-mehatz ezagutzea (*merkatu ikerketa*), hizkuntza-merkatuaren mapa osoa izateko.
2. Sektore bakoitzaren premiak, iritzia eta jarrera horiek aintzat hartuta, xede-talde ezberdinak finkatzea (*merkatuaren segmentazioa*) eta horietako bakoitzarentzat *Frame Berriaren* eduki egokiena (*mezua*) zehaztea.
3. Herritarrek *Framing Berriaren* planteamendu osorik eta zehatzik barnetatuko ez dutenez, errazago jaso eta ulertuko dituzten diskurtsoaren alegako batzuk (*priming-ak*) lantzea eta xede-taldean arabera sailkatzea.

4. *Framing Berriaren* informazioa helarazteko komunikazio-estrategia orokorra prestatzea, zeregin horretan erabilgarriak diren baliabide eta aukera mota guztiak aintzat hartuz.
5. Aurreko pausoetan aipatzen diren elementuak (xede-taldeak, *priming*-ak eta komunikaziorako aukerak) konbinatu eta sailkatzea, hartzaile mota bakoitzari hobekien egokitzen zaion konbinazioa zedarrituz.
6. Interbentziorako aukerak (beti) nahi baino mugatuagoak direnez, xede-taldeak lehentasunaren arabera antolatzea, eraginkortasun eta efizientzia printzipioen arabera.
7. Komunikazio saioen eragina eta emaitzak balioesteko prozedura eta mekanismoak diseinatu eta martxan jartzea.
8. Balioespenak esango du zertan asmatu den eta zertan ez; horren arabera *Framing Berriaren* komunikazioa hobetzeko edo birbideratzeko neurriak finkatu eta hartzea.

Bukatzeko, gogorarazi behar dugu arestian jada esan dena, alegia, *Framing Berria* hiru modutan erabil daitekeela errealitatea sortzeko: a) euskararen aldeko iraganaren zein etorkizunaren ulermena eraikitzeko; b) gizartearen, komunikabidearen eta herri-agintarien agendetan euskara finkatzeko; c) herritarrak euskararen aldeko jarduerara bultzatzeko. Hori guztia lortzea da, hain zuzen ere, gogoeta hauen zioa.

6. Bibliografia eta erreferentziak

AMEZAGA, J. (2011-09-18). Hizkuntz eskakizunak. *Argia* 2290.

AMORRORTU, E., ORTEGA, A., IDIAZABAL, I. eta BARREÑA, A. (2009). *Erdaldunen euskararekiko aurreritziak eta jarrerak*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza. http://www.euskara.euskadi.net/r59-738/eu/contenidos/informacion/argitalpenak/eu_6092/ikerketasoziolinguistikoak.html#ikerketak (azken kontsulta: 2011-09-02).

AMORRORTU, E. eta ORTEGA, A. (2011). Euskarara hurbiltzeko jarrera mesedegarri eta oztopatzaileak. *Udaltop. Euskara zerbitzuen III. topaketak*. (Lasarte-Oria, 2011/04/08). <http://www.udaltop.com/dokumentazioa/ponentziak> (azken kontsulta: 2011-08-23).

AZURMENDI, M. J. (2010). Hizkuntza ekologia eta jasangarritasuna, globalizazioan: euskarari begira. *Bat Soziolinguistika Aldizkaria* 75: 145-164.

BASTARDAS, A. (2003). Ecodinámica sociolingüística: Comparaciones y analogías entre la diversidad lingüística y la diversidad biológica. *Revista de Llingua i Dret* 39 (119-148).

BAZTARRIKA, P. (2009). *Babeli gorazarre*. Irun (Gipuzkoa). Alberdania.

——— (2010). Euskararen ibilia, etsipenetik itxaropenera. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 76 (69-86).

CANEL, M. J. eta SANDERS, K. (2005). *Political communication in times of crisis: framing a response to the March 11 Madrid Bombings*. ICAREN kongresuan aurkeztutako komunikazioa, 2005/05/26-30, New York.

COYOS, B. (2010). Soziolinguistika. Ondorio gisa: hizkuntzen ekologia, lehen ikuspegia. *Auñamendi Eusko Entziklopedia* (on line). <http://www.euskomedia.org/aunamendi/ee152063/137089> (azken kontsulta: 2011-09-02).

ELSER, P. (2011). Euskara, guztiontzako lekua. *Udaltop. Euskara zerbitzuen III. topaketak*. (Lasarte-Oria, 2011/04/08). <http://www.udaltop.com/dokumentazioa/ponentziak> (azken kontsulta: 2011-08-23).

ERIZE, X. (2012). Hizkuntza ekologiatik iraunkortasunera: indarguneak, ahulgu-neak eta proposamenak. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* (?) (argitara bidean).

EUSKO LEGEBILTZARRA (2011-10-05). *Osoko Bilkuraren Erabakiak*. (http://www.parlamento.euskadi.net/pdfs_acuerdos/2/09/000115.pdf) (azken kontsulta: 2012-01-02).

FASOLD, R. (2010). Hizkuntzaren inguruko politika. In Fasold, R. eta Connor-Linton, J. (Arg.): *Hizkuntza eta hizkuntzalaritza: hastapenak*. Bilbao. Euskal Herriko Unibertsitatea-Universidad del País Vasco (399-428).

FERNÁNDEZ, J. A. (2011). Nuevos discursos y nuevas estrategias a favor del catalán. *UDALTOP: Udaletako euskara-zerbitzuen III. topaketak* (2011/04/08). Lasarte-Oria. <http://www.udaltop.com/dokumentazioa/ponentziak> (azken kontsulta: 2011-08-23).

FERNÁNDEZ, J. M. (2005). La noción de violencia simbólica en la obra de Pierre Bourdieu: una aproximación crítica. *Cuadernos de Trabajo Social*, Vol. 18 (7-31).

GATTI, G. (2007). *Identidades débiles. Una propuesta teórica aplicada al estudio de la identidad en el País Vasco*. Madrid. CIS.

GEU ELKARTEA (2012). *Hiri.net* aldizkari digitala. <http://www.geuelkartea.com/> (laster kaleratutak den egitasmo komunikatibo multimedia).

GILES, H., BOURHIS, R. eta TAYLOR D. M. (1977). Towards a Theory of Language in Ethnic Group Relations, in H. Giles (ed.), *Language, Ethnicity and Intergroup Relations* (307-348). New York. Academic Press.

GIMÉNEZ, P. (2011-08-19). *La Voç Libre*: <http://www.lavozlibre.com/noticias/ampliar/311019/la-generalitat-y-su-plan-para-fomentar-la-literatura-catalana-> (azken kontsulta: 2011-08-23).

HAUGEN, H. (1972). *The Ecology of Languages*. Stanford University Press. California.

HERNÁNDEZ GARCÍA, J. M. (2000). Gaztetxoan hizkuntzekiko diskurtsoak eta bizipenak. In Martínez de Luna, I. eta Berrio-Otxoa, K. (zuz.): *Etorbizuma Aurreikusten 99: Euskal Herriko gazteak eta euskara*. Vitoria-Gasteiz-Martínez de Luna (argitaratzailea).

——— (2011). Eta hizkuntza kare-morteroa izango balitz? Euskara eta identitatearen inguruko hainbat hausnarketa. *UDALTOP: Udaletako euskara-zerbitzuen III. topaketak* (2011/04/07). Lasarte-Oria.

HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA (2008). *IV. Inkesta Soziolinguistikoa 2006*. Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

——— (2012). *Euskal Autonomia Erkidegoa. V. Inkesta Soziolinguistikoa* (laburpena). Vitoria-Gasteiz. Eusko Jaurlaritza.

IRIZAR, A. (2007). Proposamen Ekolinguistiko Bat Fagor Etxetresna Elektrokoak Kooperatibaren Nazioartekotzerako. *HIZNET Hizkuntza Plangintza Ikastaroko sa-kontze ikerlana* (2006-2007 ikasturtea) (argitaratu gabe). http://hiznet.asmoz.org/index.php?option=com_content&view=article&id=88&Itemid=69

JAUSORO, N., MARTÍNEZ DE LUNA, I. eta DÁVILA, A. (1998). Gazte Donostiarren hizkuntzarekiko harremanak. *BAT Soziolinguistika aldizkaria* 27 (51-81 orr.).

KAMIO, J. (2011/06/06). Ostegunez salbatu genuen euskera. *neure (h)egitik* bloga. <http://neurehegitik.wordpress.com/2011/06/06/ostegunez-salbatu-genuen-euskera/> (azken kontsulta: 2011-08-29)

MARTÍ, F., ORTEGA, P., IDIAZABAL, I., BARREÑA, A., JUARISTI, P., JUNYENT, C., URANGA, B. eta AMORRORTU, E. (2005). *Hizkuntzen mundua: Munduko hizkuntzei buruzko txostena*. Unesco Etxea. Bilbo.

MARTÍNEZ DE LUNA, I. (2010). Framing: komunikazio-teorietatik euskararen beharrianetara. *Bat Soziolinguistika aldizkaria* 76 (53-67). <http://www.sociolinguistika.org/eu/node/5374> (azken kontsulta: 2012-01-11)

MINER, I. (2010). *Euskara Elkarteen Topagunea*. 2010eko gogoeta-saioretako lan-materialak (argitaratu gabeak).

MORENO CABRERA, J. C. (2008). *El nacionalismo lingüístico. Una ideología destructiva*. Madrid. Península.

NAZIO BATUEN ERAKUNDEA (1987). *Report of the World Commission on Environment and Development: Our Common Future*. <http://www.un-documents.net/wced-ocf.htm> (azken kontsulta: 2012-01-04).

ODRIOZOLA, J.M. (2011). *Estatu etnozidaren kontra*. Donostia-San Sebastián. Elkar.

PHILLIPSON, R.T (1992) *Linguistic Imperialism*. Oxford: Oxford University Press.

PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA [Eusko Jaurlaritza] (2009). 41. *Euskal Soziometroa*. (azken kontsulta: 2011-09-28). http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/sociometro_vasco_41/eu_soc41/adjuntos/09sv4111.pdf

PROSPEKZIO SOZIOLOGIKOEN KABINETEA (2011). *Euskara: erabilera, jarrerak, politikak*. http://www.lehendakaritza.ejgv.euskadi.net/contenidos/informe_estudio/o_10tef3_euskera/eu_10tef3/adjuntos/10tef3_euskera_eu.pdf (azken kontsulta: 2011-08-25).

RITZER, G. (2002). *Teoría sociológica moderna*. México, etc., McGraw Hill.

SÁNCHEZ CARRIÓN, J. M. «TXEPETX» (1987). *Un futuro para nuestro pasado*. Donostia. Sánchez Carrión (arg.).

——— (1999). *Aplicación sociolingüística de la territorialidad: márgenes de encuentro, Bilbao y el euskera*. Bilbo: Bilboko Udala.

SARASUA, J. (1997). *Txepetxekin solasean. Biziazen hizkuntzaz*. Gara argitaletxea. Bilbo.

SUAY, F. eta SANGINÉS, G. (2011). La seducción de les llengües o el llenguatge de la seducción. *Udaltop. Euskara zerbitzuen III. topaketak*. (Lasarte-Oria, 2011/04/08). <http://www.udaltop.com/dokumentazioa/ponentziak> (azken kontsulta: 2011-08-25).

VORK STEFFENSEN, S. (2007). Language, ecology and society: An introduction to dialectical Linguistics, in Jørgen Christian Bang, Jørgen Døør: *Language, Ecology and Society*. Continuum. London.

XLSEMANAL 1174 (2010-04-25). 12 preguntas indiscretas a Patxi López. http://xlsemanal.finanzas.com/web/articulo.php?id=55018&id_edicion=5147&salto_pagina=3 (azken kontsulta: 2011-12-14).

URANGA, B. (2011). Hizkuntza-ekologiaz. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (1.5 irakasgaia).

ZALBIDE, M. (2008). Hizkuntza gutxituen berreskurapenerako hainbat hurbilpen teoriko. *Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa*. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa. <http://hiznet.asmoz.org/> (1.3. irakasgaia).

ZALOÑA, J. (2011). *Euskararen gaineko diskurtsoak lan munduan. Debagoienan lanean ari direnen zazpi kontakizun*. Hiznet-Hizkuntza Plangintza Graduondoko ikastaroa. UPV-EHU eta Asmoz Fundazioa (argitaratu gabeko sakontze-ikerlana). <http://hiznet.asmoz.org/>